

# Zu hemen zaude. goiena



## HAMAZAZPI URTEKO KIROL IBILBIDEAREN OSTEAN, AGUR ESATEKO EGUNAK DITU MALEN RUIZ DE AZUAK

Ondo hausnartutako erabakia izan da; emaitzak ere hor daude: Espainiako txapelketa absolutuetan hamazazpi domina eta 4,47ko marka pertsonala pertika-jauzian / 32

Malen Ruiz de Azua, Mojategin.

XABIER URTZELAI ATXA



### Lehendakariaren presentziarekin inauguratu du Hirekin zentroa Mondragon Unibertsitateak / 3

### Urriaren 25ean abiatuko da seigarren Danbaka Musika Lehiaketa

Lau kanporaketa eta finala izango ditu, eta hamasei parte hartzaileendako lekua dago; zabalik dago izen-ematea / 34



Danbakaren aurkezpen ekitaldia, asteon, Bergarako Seminarixoan. JAGOBA DOMINGO



### Mondragon Korporazioak presidente berria izango du abuztuaren 1etik aurrera / 5

#### SINADURAK

	OIHAN VEGA / 6		KARMELE URIBESALGO / 21
	ISABEL MEDINA / 9		ESTEBAN IRUSTA MALLEA / 29
	MALENA GONZALEZ ALTUNA / 16		MIKEL BIAU / 40



Esne-tanta bakoitza da altxor bat

Iñigo Mijangosi elkarriketa, 'Aita Mari' ontziak

**MERKEALDIA**

**2 MÓ 189€**  
lehen 229€  
erreflexuen aurkako  
betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

**MULTIÓPTICAS**

943 79 29 95  
Otalora Lizentziaduna, 18  
ARRASATE

943 76 15 75  
Ibargarai, 16  
BERGARA

www.multioplicas.com

**DATUETATIK TIRAKA: AISIALDI-GUNEAK**

**Julen Murua Mesonero** DEBAGOIENA  
Debagoiena ez da kostaldetik gertu dagoen eskualde bat, ezta Pirinioak gertu dituen bailara bat ere. Hala ere, askotariko aisialdi aukerak eta guneak daude bertan: ur-parkeak, jolas-parkeak, museo zein monumentuak eta natura-guneak; eta herritarrek horiek aprobetxatzen dituzte urte osoan eta, bereziki, udan, euren aisialdirako.

**Ur aisialdi-guneak**


Beroa egiten duenean zer hobeto bainu on eta fresko bat hartzea baino. Debagoiena kostaldean dagoen bailara bat ez izan arren, baditu uretan freskatu ahal izateko hainbat aukera, adin tarte guztiei zuzendutakoak. Gaztetxoak izanez gero eta Antzuolan, Aramaion, Arrasaten, Bergaran edo Oñatin biziz gero, aukeretako bat da ur-parkeetara joatea. Baina nagusiagoentzat aukerak ere badaude bailaran; izan ere, kanpoko igerilekuak daude Arrasaten –Mojategin eta Udalan–, Bergaran –Labegaraietan– eta Eskoriatzan –Manuel Muñoz kiroldegian–. Aretxabaletan eta Oñatin kanpoko igerilekurik ez, baina igerilekuak bere horretan badaude, baita bainua hartu ostean lehortzeko belardiak ere. Elgetaren kasuan, beroa egiten duenean Udalak plastikozko igerilekuak jartzen ditu herrian. Horrez gain, bainutoki naturalak ere badaude; ezagunena Usako da, Oñatin, baina Bergaran, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan ere badaude beste hainbat.

**Jolas-parkeak**

Aisialdian atseden hartzea baino jarduera fisikoa egitea nahiago dutenentzat ere badaude zenbait jolas-parke bailarako herrietan. Guztira, lau pump-track-gune daude ibarrean –Antzuolan, Arrasaten, Elgetan eta Oñatin–, sei skatepark –Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Elgetan, Eskoriatzan eta Oñatin–, trialsin-gune bat –Aretxabaletan– eta parkourra egiteko aukera bi herritan –Arrasaten eta Oñatin–. Horrez gain, tirolinak dituzten lau toki ere badaude Debagoiengan –Eskoriatzan, Antzuolan, Elgetan eta Aramaion–. Haien ezaugarriengatik edo eskaintzen dituzten auke-

# Edonon eta edonola, udan aisialdiaz gozatzeko aukera dago bailaran

Mendi buelta bat egitea, beroaldiei aurre egiteko bainu bat hartzea edota edonongo toki esanguratsuenak bisitatzeko izaten dira udako aisialdirako aukeretako batzuk. Horiek guztiak eta askoz gehiago egiteko aukera eskaintzen du Debagoienak



Gazte kuadrilla bat bailarako aisialdi-gune ezagunenetako batean, Usakon, bainua hartzen. GOIENA

rengatik, parke bereziak ere baditugu bailaran: Arrasateko Dragoi parkea, Oñatiko Baratzeko Pikua jolasgunea eta Eskoriatzako Torrebaso parkea, esaterako.

**Natura- eta piknik-guneak**

Kostaldea eta hondartza ez, baina Debagoiena oso aberatsa da bertan dauden mendiengatik, basoengatik, urtegiengatik eta, oro har, herrietan dauden landa eremuengatik. Horiek guztiek eskaintzen dute aisialdirako aukera paregabea; alde batetik, ariketa fisikoa egin nahi dutenek badutelako zer egin; eta, bestetik, uretan sartzeko gogorik ez baina atseden hartzeko natura aprobetxatu gura dutenek ere badutelako non aukeratu.

Debagoieneko herri guztietan daude natura-guneak, eta mendi tontorretara igotzea edo ur-

tegietara joatea dira gehien errepikatzen diren aukerak. Bailarako natura-gune ezagunen artean hainbat nabarmendu daitezke: mendi tontorrei dagokienez, Kurtzebarri –Aretxabaletan–, Udaltax –Arrasaten–, Aloña –Oñatin– eta Atxorrotx –Eskoriatzan–. Hala ere, badaude tontorra izan gabe mendian edo landa eremuan kokatzen diren toki esanguratsuak, hala nola, Aitzulo, Arrikruzeko kobak –Oñatin biak–, Urkulu urtegia –Aretxabaletan– eta Irimo –Antzuola– eta Udala –Arrasate– inguruak.

## UR-PARKEAK DIRA DEBAGOIENKO AISIALDI-GUNEEN ARTEAN GEHIEN IZATEN DIRENAK

Ariketa fisikorako ez ezik, otorduak egiteko ere erabili daitezke natura-guneak, eta horretarako ere eskaintza zabalago dago Debagoiengan. Piknik-guneak deritze toki horiei, eta ibarreko herri guztietan dago norbere jatekoa eraman eta naturaz inguratuta otordua egiteko aukera. Gainera, piknik-gune horietako batzuetan ez legoke etxetik janaria eramateko beharrik; izan ere, badaude parrilla piztu eta bertan barbako bat edo bestelakoak egiteko aukera ematen duten tokiak: Kanpanzarko eta Atxorrotzeko piknik-guneetan, kasu.

**Interpretazio zentroak**

Aurtengo udako eguraldia ikuste besterik ez dago jakiteko Debagoieneko eta, oro har, Euskal Herriko egunak eguzkitsuak izatea ez dagoela bermatuta.

Eguzkirik ez dagoen egun horietarako edo eguzkia egonda ere naturarekin, urarekin eta jarduera fisikoarekin lotutako aisialdi ereduak bilatzen ez dituzten horiendako ere badago zer egin bailaran. Hainbat herritan daude museoak eta interpretazio zentroak, eta horiek bisitatzeko aukera egokia da herrietako ondare historikoa ezagutzeko. Sei aukera daude horretarako: Bergarako Laboratorium museoak, Leintz Gatzaganeko Gatz Museoak, Eskoriatzako Ibarraundi museoak, Elgetako Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa eta Oñatiko Txokolateixia –txokolatearen interpretazio zentroa– eta Arantzazuko Aizkorri-Aratz parke naturalaren interpretazio zentroa.

Museoak eta interpretazio zentrotan gain, bailarako herrietara joatea eta bertako monumentuak, eraikinak eta ondare historikoa ezagutzeko ere badaude Debagoiengan dagoen beste aukeretako bat. Horretarako, bisita gidatuak ere eskaintzen dituzte ibarreko herri batzuetan; esaterako, Bergarako Laboratorium museoan eta Oñatiko Turismo Bulegoan. Gainontzeko herrietan ere egoten dira, tarteka, turismoarekin lotutako bisita gidatuak, baina ez dira horrenbesteko maiztasunekin egiten.

## Debagoieneko aisialdi-guneak

Ur-parkeak	7
Kanpoko igerilekuak	4
Barruko igerilekuak	5
Pump-track-guneak	4
Skate parkeak	6
Trialsin-guneak	1
Parkour-guneak	2
Tirolinak	4
Berezitutako ibilbideak	3
Museoak	3
Interpretazio zentroak	3

ITURRIA: GOIENA



Enpresaren arloko eta erakundeetako ordezkariak, Hirekin zentroaren inaugurazioan. TXOMIN MADINA

# Ekintzailtza industrial jasangarriak Hirekin-en

Asteon inauguratu dute Hirekin, "industria eta teknologia arloko berrikuntza eta ekintzailtza proiektu jasangarriak" sortzeko helburua duen zentroa. Bertan izan da Imanol Pradales lehendakaria; bailaran egin duen lehen agerraldi ofiziala izan da

**Julen Murua Mesonero** ARRASATE Hirekin zentroaren inaugurazioa egin dute asteon Arrasaten, eta bertan izan ziren, besteak beste, Imanol Pradales, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria; eta Juan Ignacio Perez, Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntzako sailburua. Bederatzi milioiko inbertsioa izan du zentroak, 6.000 metro koadro ditu eta, hasiera batean, 25 eta 40 pertsona artean arituko dira bertan. Hiru enpresa proiektu daude aurreikusita 2024-2025eko ikasturterako, eta aurreikuspena da hemendik lau urtera 36 proiektu, 54 ekintzailtzaile eta 67 ikasle igitzea bertatik.

Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoa du buru Hirekin-ek, eta, bertako koordinatzaile nagusi Carlos Garcia azaldu zuenez, "erreferentziako zentro bihurtu nahi du, enpresei industria eta teknologia arloko berrikuntza eta ekintzailtza proiektu jasangarriak asmatzen eta garatzen laguntzeko". Bertan

hiru proiektu mota kokatzea espero dute: "Nagusiki, enpresen dibertsifikazioko proiektuak, barne ekintzailtzaile proiektuak, prozesu berritzaileak...; bestetik, gure ikerketako emaitzen baliotapenetatik, enpresa berriak; eta bukatzeko, gure ikasleen eta ikasle ohien artean kultura ekintzailea sustatzeko ekimenetatik ateratako proiektuak".

Mondragon Unibertsitateko errektore Bixente Atxak, bestalde, eskerrak eman zizkien Hirekin proiektua errealitate bihurtzeko laguntza eskaini duten enpresei eta erakunde publikoei; zentroak aurrera begira egingo duen ekarpena ere nabarmendu zuen: "Lantegi-pabiloi huts batetik jaio bazen Mondra-

**BEDERATZI MILIOI EUROKO INBERTSIOA IZAN DU ZENTROAK ETA 6.000 METRO KOADRO DITU**

gon Unibertsitatearen zati handi bat, ziur nago Hirekin-etik makina bat enpresa garatuko dugula balio erantsi handiko enplegua eta industria iraunkorrrak sortzeko; are gehiago, inguratzeko ekosistema kontuan hartzen badugu: unibertsitateko ikasle gazteak, zentro teknologikoa, ikerketa eta garapeneko enpresa unitateak eta promozio zentroak".

## Pradalesen hitzak

Pradalesek nabarmendu zuen "hoberena izateak etengabeko berrikuntzaren aldeko apustua egitea" eskatzen duela, eta, gainera, Hirekin ekimenak hori guztia "ezin hobeto" ordezkatzeko duela. "Mondragon Unibertsitateak ekintzailtza industrial... eta hor dago gakoak: industrial eta teknologikoa indartzeko egindako apustuaren aparteko emaitza da. Ekintzailtza industrial ez da bide erraza izango, baina guztiz beharrezkoa izango da".



Aretxabaletako Tomatearen Eguneko antolatzaileak, aurkezpenean. IMANOL BELOKI

## Aretxabaletako Tomatearen Eguna irailaren 15ean izango da

Euskal Herriko bertako tomatearen lehiaketaren bigarren edizioa izango da aurtengoa

### J.M.M. ARETXABALETA

Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketa foru diputatu Azahara Dominguezek eta Aretxabaletako alkate Gariokitz Iturbek eman dute lehiaketaren berri, Debagoieneko Garapen Agentziako arduradun Angel Mari Etxaberekin eta Debagaraia Landa Garapena Elkarteko ordezkariekin batera.

Garaikoa eta bertakoa den produktuari garrantzia emateko aprobetxatu du Iturbe alkateak, turismo gastronomikoa bultzatu nahi dutela esanez, eta haien asmoa produktua ezagutzera ematea dela azpimarratu du: "Aurten lehiaketaren bigarren edizioa izango da, eta irailaren 15era arte ekoizleek fin-fin zaindu beharko dituzte euren tomateak. Lehiaketaz gain, Aretxabaletako tomateak izan du bere oihartzuna, hemen sortutako barietatea da, eta, aurtengo eguraldia lagun izan ez badute ere, irailaren 15ean egongo da aukera tomate dastatzeko. Tabernetan pintxoak egongo dira, kozinatze-tailerra egongo da, haziena ere bai... Interesgarri dator bigarren edizioa".

### Hainbat sari

Tomatearen lehiaketak hainbat sari banatuko ditu. Lehen sailkatuak 500 euro eta trofeoa eskuratuko ditu; bigarren sailkatuak, 300 euro; eta hirugarrenak 150 euro. Horrez gain, Aretxabaleta tomate onenak 150 euro lortuko ditu.

### Kalitatezko lehengaiak

Azahara Dominguez diputatuak ere Aretxabaletako produktuari balio emateko aprobetxatu du, eta bertako gastronomiaz gozatzeko Aretxabaletako jaira joatera animatu ditu herritarrik: "Gipuzkoa mundu mailan eza-guna da bere gastronomiatik, eta gure sukaldariak gastronomiko erreferentiek dira euren sorkuntzengatik eta talentuagatik eta kalitatezko lehengaiak erabiltzen dituztelako; hain zuzen, Aretxabaletako tomate horren adibide da".

Lehiaketara begira oinarriak ere zehaztu dituzte; azpimarratu dute lehiaketan parte hartzeko aurrez izena eman behar dela, [kultura@aretxabaleta.eus](mailto:kultura@aretxabaleta.eus) helbidean. Horretarako azken eguna irailaren 12a da, osteguna, 12:00etan.

### Egitarau osoa, irailean

Aretxabaletako Tomatearen Egunaren baitan, egitarau osoa aurrerago emango dutela azaldu dute udal ordezkariak. Hala ere, Iturbek aurreratu du antzinako tomate barietateen erakusketa, haziak erauzteko tailerra, tomatearekin egindako pintxoak tabernetan eta beste hainbat ekintza egongo direla.

**TOMATE LEHIAKETAZ GAIN, HAREKIN LOTUTAKO BESTE HAINBAT EKINTZA ERE EGONGO DIRA**

# "Galdera berriak daude, mende berriak ekarriak"

**JON SARASUA** EUSKARAREN GOGOETAGUNEA PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEA 2022an jarri zuen martxan Euskaltzaindiak Euskararen Gogoetagunea proiektua; orain, 'Euskararen Gogoetagunea (I)' argitalpena kaleratu dute, bi txostenek osatuta

**Gontzal Belategi Zubia** DEBAGOIENA 2021a ezkerko euskaltzain urgazlea da Jon Sarasua (Aretxabaleta, 1966) bertsolari eta irakaslea. Gaur egun, Euskaltzaindiak abiatutako Euskararen Gogoetagunea proiektuaren koordinatzaile dabil lanean.

## Zein helbururekin jarri zen martxan proiektua?

Hutsune bat ikusten genuen euskararen etorkizunaren bisioa ekoizteko orduan. Bisioa ekoiztea ez da soilik etorkizuna irudikatzea edo etorkizuna nahiko genukeen horretatik marraztea. Edozein prozesu kolektibotan gauza garrantzitsu, delikatu eta konplexua da. Nondik zatozen jakin behar duzu, gertatzen denaren diagnostiko egokia egin eta etorkizuna proiektatu, litekeenaren eta nahi duzunaren arteko nahasketa bat eginaz. Azken 60 urteetan biziberritze prozesu bat ireki da, zailtasun handiko prozesua. 60 urteren ondoren, galdera berriak daudela ikusten dugu, mende berriak ekarriak, eta betiko ezintasunak. Iruditzen zitzaigun arnas luzeko lan bat egin gabe zegoela eta Euskaltzaindia bilgune egokia izan zitekeela hori egiteko, hark duen autoritate moralagatik eta 100 urteko erakundea izanik sentsibilitate politiko ezberdi-



Jon Sarasua, Goiena telebistako platoon. GOIENA

nekiko elkarrizketa egiteko gune egokia izan litekeelako. Hortxe hasi ginen, lurralde, begiratu politiko eta sektore askotariko jendea elkartu nahirik, gogoeta hori egiteko.

## Zeintzuk dira XXI. mendeak ekarritako galdegai berriak?

Bi dimentsiotan: gizarte aldaketa eta teknologia aldaketa. Gizarte aldaketari dagokionez, XXI. mendeak hiperkapitalismoaren azelerazio handiagoa eta gizarte indibidualizatuagoa ekarri digu. Horrekin, zenbait zuntz sozial eta komunitario

ahultzeko joera eta konpromiso kultura ahultzea. Oro har, gizartearen eta belaunaldi berrien jarrera aldatu egin da. Horrek euskara bezalako konpromiso sendoa behar duten prozesuei ez die mesederik egin. Bestetik, teknologia aldaketak kontsu-

**"EGIN DUGUNA IKARAGARRIA DA, BAINA ASPEKTU BATZUETAN NORABIDE KEZKAGARRIA DUGU"**

moaren fragmentazioa dakar. Bakoitza bere mundutxoan egon liteke; adibidez, smartphoneen bidez. Horrek komunitatea ere fragmentatzen du eta garai bateko hainbat gauza baldintzatu; telebista audientziak eta kultur-gintzaren garrantzia, adibidez. **Ponentzietako bat euskararen egoeraren gainekoa da; zein da egoeraren diagnostikoa?**

Elementu positiboak daude. Adibidez, azken hamarraldietan leku inportante batzuetan euskararen ezagutzak nabarmen egin du gora, eta hamarkada batzuetan erabilerak ere bai. Duela 40-50 urte, Arrasate batean euskararen ezagutzan eta erabilera aldetik nola geunden eta orain nola gauden ikusita, esan behar da, zintzoki, aurreratu egin dela, bereziki ezagutzan, hezkuntzari esker. Bestetik, datuek esaten digute lurralde guztietan ez dela berdina. Ez da ahaztu behar gure begiratu euskararen lurralde osoari egiten zaiola. Erabileraren kurbak geldotzen ari dira eta arnasguneetan aurrera beharrean atzera egin da. Telebista kontsumoan ere badaude kezkek. Bitasun hori kudeatu egin behar da; egin duguna ikaragarria da, eta aurreratu ez dugula esaten duenak heldulekuak falta ditu, baina beste aspektu batzuetan oso norabide kezkarria daukagu eta ez da ahaztu behar hizkuntza minorizatu dela euskara.

## Bestea etorkizun-ikuspegiaren ponentzia sintetikoa da; ze ideia jasotzen ditu?

Abiapuntua orain arte egindako ibilbidearen egitura da. Bigarren ideia, momentu honetako egoeraren diagnostikoaren laburpena. Ondoren, eragiletzaren egiturak zein diren esaten da; hau da, zein tresna dituen hiztun komunita-

teak aurrera egiteko. Hori eginik, etorkizun ikuspegiaren ardatza planteatzen hasten gara. Bi dimentsiotan planteatzen da hori: batetik, gizarte dimentsioan, ze politika egin behar ditugun eta hizkuntza politika berritzeko ardatz sistema bat aipatzen dira; beste dimentsioa, berriz, komunitatea da, eta hor euskararen biziberritze prozesuarentzako komunitate estrategia batzuk jasotzen dira. Biek elkar osatzen dute, baina ez dira berberak. Gizarte politiken lidergoa erakunde publikoek daramate eta komunitate estrategiak, berriz, komunitate zuntzei lotutako eraketek. Biak behar ditugula iruditzen zaigu.

## Landu beharreko ze adar identifikatu dituzue?

Gizarte politiketan bi kategoria egin ditugu: pausoak eta jauziak. Pausoak orain arte egindako ildoetan egin beharreko urratsak dira. Sei identifikatu ditugu: corpusean, kultur-gintzan, administrazioan, inguru digitalean, helduen euskalduntzean eta etorkinen harrera linguistikoa egin beharrekoak. Jauziak eskala handiko politika aldaketak dira; lau, guztira: lan-eremua, aisialdi antolatua edo hezkuntza ez-formala, hedabide matrizea eta hezkuntza.

## Zein izango da dinamika?

Dinamika ez dago gure esku. Euskaltzaindiak egin nahi duena zerbitzu bat da, ahalik eta kalitate handieneko etorkizun ikuspegi bat eskaintzeko. Eskaini nori? Euskararen mundu antolatuari, alderdi politikoei, erakunde publikoei...



Elkarrizketa ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

## Debagoiengan izan da Goieneko elkartearen Udabizirik ekimena

Uztailaren 14an irten ziren Bilbotik bizikletan, eta eguaztenean heldu ziren ibarrera, azken-aurreko etapari

**G.B.Z.** DEBAGOIENA

Joan den urteko edizioak izan zuen arrakastaren ostean, Goieneko kideek aurten ere Udabizirik ekimena antolatu dute. Bizikletaren bidez, zero kilometroko turismoa egitea da ekime-

naren helburua; bide batez, proiektuak ezagutzeko geldialdiak eginda. Guztira, 35 txirrindularik hartu dute parte; hain zuzen, plaza guztiak bete ziren.

Uztailaren 14an irten ziren, Bilbotik, eta bost etapa egin

ostean Zumaian amaitu zuten atzo. Eguaztenean, azken-aurreko etapari, heldu ziren Debagoienara. Aramaiotik sartu ziren, eta Uribarri auzoan geldialdia egin zuten. Ondoren, Oñatirako bidea hartu zuten txirrindulariek, eta bertan Oñatiko Ur Jauziak bisitatu eta ezagutzera joan ziren. "Guretzako adierazgarria eta berezia da proiektu hau, Goienerekin ehuneko hamarrek parte hartzea daukalako bertan", adierazi du Asier Arzuagak, Goieneko langileak.



Partaideen bisita Oñatiko ur-jauzietara. GOIENA



Iñigo Ucin eta Pello Rodriguez, eguaztenean Bilboko Euskalduna jauregian egindako kongresuan. MONDRAGON KORPORAZIOA

# Azken kongresua Ucin lehendakariarentzat

Mondragon Korporazioak urteroko kongresua egin du Bilbon, eta Kontseilu Orokorraren erreleboa eszenifikatu dute bertan. Orain arte lehendakari izan den Iñigo Ucinek erretiroa hartuko du, eta Pello Rodriguez Zabaletak hartuko dio erreleboa

## Garaiko parke fotovoltaikotik energia jasotzen hasiak dira

Tramite administratiboak gaindituta, abuztuan jasoko dute Leintz bailarako Ekiolako bazkideek faktura berria

**G.B.Z.** DEBAGOIENA

Tramite administratiboek dakarten traba gaindituta, Leintz bailaran Ekiolaren parte diren herritarrek hasi dira dagoeneko Garaian dagoen instalazio fotovoltaikotik energia jasotzen. "Azken hilabeteetan, berez, instalazioa energia sortzen egon da, baina oraindik ez geneukan bazkideen kontratueta lotuta. Orain bai, eta, gauzak horrela, abuztuan jasoko dugu bazkideok faktura berria", adierazi du Leintz Bailarako Ekiolako presidente Iñaki Aranburuk.

Momentuz, instalazioetatik sortzen den energiaren %72 banatzen da bazkideen artean. Hala ere, Ekiolaren asmoa energia guztia bazkideen artean esleitzea dela adierazi dute; ahal den heinean, familia eta etxebizitzaren artean banatuta. Gainontzekoa, momentuz, energia sa-

rera botatzen dute: "Esleituta ez dagoen %28 horrek sortzen duen energia sarera botatzen dugu, eta horregatik zeozer ko-bratuko dugu eta kooperatibarendako onura izango da, baina ez da hori gure helburua, baizik eta Leintz Bailarako herritarren artean partekatzea instalazioak sortzen duen energia".

### Bazkide kanpaina

Garaiko parkearen aurrera-pausoak ikusita, bazkide kanpaina martxan jartzeko momentu ona dela uste du Aranzaburuk: "Uste dugu une hau gako delako bazkide berriak egiteko. Garaiko instalazio berriztagarriak ematen dituen onurak ikusten hasiko gara berehala, eta, gure ustez, hori herritarrek apreziatu egingo dute". Izen ematea [leintzbailara.ekiola.eus](http://leintzbailara.ekiola.eus) atarian egin daiteke.

**Gontzal Belategi Zubia** DEBAGOIENA  
Mondragon Korporazioak Bilboko Euskalduna jauregian egin du 2024ko kongresua asteen. 650 konpromisario zeuden bertara deituta, korporazioko kooperatiba guztien ordezkari bat bermatzeko. Ekitaldian, Kontseilu Orokorraren erreleboa eszenifikatu dute: zortzi urtez lehendakari karguan izan ostean, erretiroa hartuko du Iñigo Ucin; haren kargua Pello Rodriguez urretxuarrak hartuko du, zehazki, abuztuaren 1ean.

### Pello Rodriguez

1975ean jaio zen Rodriguez, Urretxun, eta Goi Mailako Industria Ingeniaritzan lizentziaduna da. Danobat taldean hasi zen lanean, 2000. urtean, eta bertako zuzendaritza nagusian sartu zen 2013an.

2015etik aurrera, korporazioko lehendakariordea eta Ekipo Ondasunen Dibisioko zuzendari nagusia izan da. Esperientzia horrek balio izan dio Ucin utzi duen postua hartzeko. "Esperientzia handia du industriaren eta kudeaketaren arloan; haren ibilbidean beti erakutsi izan du konpromiso sendoa duela eredu

kooperatiboarekin, berrikuntza-aren aldeko beharrezko apustuekin eta negozioen lehiakortasunarekin", adierazi du Mondragonek ohar bidez.

### Bide-orria

2025-2028ko aldiko Politika Sozioenpresariala ere aurkeztu du Mondragonek kongresuan. Pello Rodriguezek berak aurkeztu zuen, eta, Mondragonek zabaldukoaren arabera, "kooperatiba guztientzako nolabaiteko jardura esparru orokorra" da hori.

Bide-orriak honako hau definitzen du erronkari aurre egin ahal izateko: "Ikuspegi bat –lankidetzaren indarraren bidez gizartea eraldatzen duten pertsonekin munduko erreferente kooperatiboa izatea–; erronka bat –lidergo posizioak lortzea, lehiakorragoak, kooperatibagoak eta aldaketan arinagoak izan eta gizartea eraldatzeko funtsezko eragile izateko–; eta lau ardatz estrategiko –konpromisoa eta identitate kooperatiboa; etorkizuna daukaten negozioak; irekitasuna eta inpaktu soziala; eta elkarren arteko lankidetzak–".



DEBAGOIENEN  
**PROFESIONAL  
LIBERALAK**



**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**  
BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

**BEGOÑA LASAGABASTER**  
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
[blasaga@lcagi.net](mailto:blasaga@lcagi.net)

**RAFAEL ARANBURU**  
BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

**ARKITEKTOAK**

**BIARK ARKITEKTOAK**  
ARRASATE  
Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
[www.biark.net](http://www.biark.net)

**AHOLKULARITZAK**

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**  
ARETXABAETA  
Araba ibilbidea 20, behea  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
[andrama@arrakis.es](mailto:andrama@arrakis.es)

**ETXE  
ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO  
ADMINISTRAZIOAK**  
ARRASATE  
Pablo Uranga 3, behea  
Tel.: 943 79 51 25  
[uribesalgo@uribesalgo.es](mailto:uribesalgo@uribesalgo.es)

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



ZABALIK

OIHAN VEGA

## Badator ultraeskuina

Azken hauteskundeetako datuak ikusi besterik ez dago ohartarazteko eskuin muturra jada ez dela anekdota soila. Italia, Hungaria, Austria, Finlandia... asko dira eskuin muturraren esku dauden Europako gobernuak. Eta adi, Frantzia, Alemania eta Suitza atzetik datoz eta.

Oso oker gabiltza pentsatzen badugu hau ez dela guregana iritsiko. Ez dira lau ero. Ez dira burutik jota dauden pertsonaia esperpentiko hutsak; mediatikoak direnak, agian, bai, baina horren atzetik milioika herritar daude, demokratikoki erabaki hori aukeratu dutenak. Barre egiten genuen Argentinan Milei motozerra batekin ikusi genuenean... Ea nor egiten duen barre orain.

Zergatik gertatu den hau? Zalantza izpirik gabe, orain arte egon diren gobernu modeloez ez dutelako

funtzionatu.

### JAKIN BADAIGU MUNSTRO ERRALDOI HORI LASTER JARRIKO DELA GUZTION KONTRA

Autokritika egiteko gai ez bagara, eskuin muturrak jan egingo gaitu berriz ere, Francoren garaian bezala. Zerbait ez garrantzirik ari eta horregatik ari dira

berriz ere ultraeskuindarrak indarra hartzen.

Kontuz! Modu erabat zilegian, demokrazian eta askatasunean oinarrituz. Hor dago koska, ezin dugula kaleetan borrokatu hautsontzietan galdu duguna, horri estatu-kolpea deitzen baitzaio. Zergatik hazi da korrante politiko hori orduan?

Migrazio politikak, agian; laguntza publikoen kudeaketa, akaso; segurtasun falta kaleetan; administrazio publikoaren gastuen norabidea; klase politikoa, oro har... Hori guztia hausnartzen eta zuzentzen ez badugu, kondanatuta gaude, eskuina dator berriz, oso erakargarria den diskurtsoarekin. Baina jakin badakigu munstro erraldoi hori laster jarriko dela guztion kontra.

Beraz, has gaitzen zerbait aldatzen, ze hori ikusteko gai ez bagara eta harrotasunez adierazten badugu ultraeskuindarrak baino gehiago garelako, gureak egin du.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## GUTUNAK

### Kiroldegiko igerilekuan zaborra non-nahi

YOLANDA JIMENEZ SUDUPE  
ARRASATE

Aurtengo uda denboraldia hasi zenetik, bero handia egiten duen egunetan kiroldegiko kanpoko igerilekua jendez betetzen da.

Jendez eta zaborrez.

Kanpoko igerilekua inguratzen duen belar artean jendeak edonon uzten du zaborra lurtean botata; eta eguna amaitutakoan, besteek jaso ez dutena salmenta-postuan lan egiten dutenek jaso behar izaten dute.

Kiroldegiko arduradunei errealitate hori ezagutarazteko, harreraren zegoen langileari egoeraren berri eman nion, eta haren axolagabekeriak eta lankideekiko errespetu faltak harritu egin ninduten. Haren esanetan, igerilekuko erabiltzaileek zaborrontziak erabiltzen ez badituzte, jendeak lurtean botata utzi duen zikinkeria hori guztia jasotzea salmenta-postuko langileen lana da.

Egoera hori igerilekuan aurreko urteetan ikusi ez dudana arren, ez zait zerbait puntuala iruditzen, Arrasate zaborrez beteta baitago. Arazo horren irtenbidea ez da, Udalekoek egiten duten

moduan, garbitzaile gehiago kontratatzea. Horrela, errealitatea ezkutatu besterik ez dute egiten; gainera, horrelako jarrera itsusiak onartuz, errespetu falta sustatzen dute; ingurunearekiko eta besteekiko.

Garbitzaileak ez dira gure morroiak, beraien lana ez da guk lurrera botatakoa jasotzea; herritarrok arduratu behar dugu norberaren hondakinak dagokion edukinontzian uzteaz.

Gure garaian, behintzat, horrela irakatsi ziguten txiki-txikitatik: zaborra zaborrontzian utzi behar zela.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantxabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.

#### Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Bereziar, Iratxe Bengoa,  
Leire Etxebarria.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus  
EGOITZA NAGUSIA  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 18.550 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## BERBAGAI

# "Superkondentsadoreak baterien gehigarriak dira"

JON AJURIA ARREGI CIC ENERGIGUNEKO IKERTZAILEA

## I.B.K. DEBAGOIENA

CIC energiGUNE euskal ikerketa zentroak superkondentsadoreen arloko nazioarteko aditu nagusiak bildu ditu Gasteizen, Kondentsadore Elektrokimiko Aurreratuei buruzko Nazioarteko Sinposioan. *Hemen Debagoiena* saioan izan da sinposioko zuzendari Jon Ajuria (Arrasate, 1979). **Kondentsadore elektrokimiko hobetuak zer dira eta zertarako erabiltzen dira?**

Superkondentsadoreek energia elektrikoa biltegitzen dute eta une puntual batean energia hori oso potentzia altuan askatzeko gai dira. Bateriek, berriz, iraupen oso handia dute eta energia oso modu konstantean ematen dute. Adibidez, ibilgailu elektriko baten superkondentsadorea autoa martxan jartzeko botoian egongo litzateke, une jakin batean energia puntu oso handia behar dutelako motorra pizteko; eta bateriek, berriz, energia puntu horren konstantzia mantenduko lukete.

### Baterien alternatiba gisa ere ikusten dira; zein arlotan?

Merkatu batzuetan alternatiba izan daiteke, baina nik uste dut denen beharra dugula eta *gehigarri* hitza aproposagoa dela. Badaude merkatuak



Jon Ajuria, CIC energiGUNEko ikertzailea. CIC ENERGIGUNE

bateriek baino askoz konponbide merkeago eta efizienteagoak ematen dituztenak. Bat oso orokorra eta ulergarria UPS sistemak izango lirateke: enpresa industrialetan, ospitaleetan eta bankuetan oso garrantzitsuak dira. Gaur egun horretarako berun azidoko bateriak erabiltzen dira eta korrante puntu goren hori emateko bateria horiek sobredimensionatu egin behar dira, eta superkondentsadoreek ez dute

behar mantentze-lan hori; korrante puntu horiek sobredimentsionatu gabe eman lezaketek. Esango nuke gizartearendako gehigarri dela alternatiba baino gehiago.

### Teknologia horrek energia biltegitzearen sektorean duen eraginak zer eragin du merkatuan?

Momentuz, superkondentsadoreen merkatua txikia da baterien merkatuarekin alderatuz. Hemen konponbide onen alde

positiboak zientzialari zein merkatu horretan dauden enpresei ezagutzera emateko erronka dugu. Erraza da merkaturatzea konponbiderik ez dagoenean, baina zailagoa da merkaturatzea konponbide bat existitzen denean eta horren alternatiba bat zarenan. Enpresek beldur handia izaten dute euren irtenbideetan aldaketak egiteko, nahiz eta efizienteagoa izan edo kostu aldetik merkeagoa izan, inor ez dielako ziurtatzek kalerik ez dutenik egingo. Gaur egun bizi garen gizartean huts batek galera izugarriak izan ditzake enpresa batentzat. Hain zuzen, hori da superkondentsadoreen erronka handiena merkatu zabalagoa izateko.

### Zer nabarmenduko zenuke egin duzun sinposiotik?

Superkondentsadoreen mundua trabatuta egon da urte batzuetan oinarritzko materiala den ikatzean. Asko enfokatu da ikatz hori sortzeko lehengaiak zeintzuk izango ziren jakitean. Uste dut izugarritzko aurrerapausoa egon dela material horren ulermenean. Sinposio honetan egon diren hitzaldi askotan teknika berrien ezaugarriak garatu dira. Bestetik, material berriak ere izan dira hizpide. Urte askoan grafenoari buruz hitz egin da. Material bidimentsional bat da, aplikazio askotan oso erabilgarria izan dena, baina energia biltegitze sisteman urte eta diru asko inbertitu dira material horretan eta, agian, ez dira lortu espero

ziren emaitzak. Orain badago familia berri bat, *maxime* deitzen direnak, eta aurrerapauso bat izan daitezke.

### Ze beste ikerketa dituzue esku artean?

Duela pare bat urte, hidrogenoaren arloan hasi ginen ikertzen, hidrogenoa lortzeko estrategiei begira, elektrokatalisiaren bidez. Gero, energia biltegitze dugu. Hemen energia termikoa biltegitzeko eta energia elektrokimikoa biltegitzeko sailak ditugu. Azken horretan jakintza arlo ezberdinak aztertzen ditugu, simulazioetatik sintesietara, elektrolitoetara eta prototipoen garapenetara. Jakintza arlo horiek jaisten ditugu teknologietara; hemen litiozko ioi bateria estandarrenak, elektrolito solidoko bateriak ere jorratzen ditugu, baita sodio ioizko bateriak eta superkondentsadoreak ere. Batzuk merkaturatuko dira eta beste batzuk ez.

## "ENPRESEK BELDURRA IZATEN DUTE EUREN IRTENBIDEETAN ALDAKETAK EGITEKO"

## "TEKNIKA ETA MATERIAL BERRIAK IZAN DIRA HIZPIDE SINPOSIOAN EGON DIREN HITZALDIETAN"



## Realaren eta Alavesen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

### GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Alaves norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko *premium* gunetik. Partidua abuztuaren 28an izango da, 21:30ean. Parte hartzeko azken eguna: uztailaren 26a.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena<sup>''</sup>  
kide

Okm:  
batzen gaituen distantzia



Arrasate Pilota Taldeko hainbat kide, Uarkape berrituan. ARRASATE PILOTA TALDEA

# Pilotaz gozatzea da lehentasuna

Uarkaperen 25. urteurreneko egitarauaren baitan, pilota jaialdia egingo dute gaur Uarkapen bertan, Arrasate Pilota Taldeak antolatuta eta Udalaren babesarekin; hala, 19:30ean hasita, bi partidu jokatuko dituzte: infantil mailakoa eta afizionatu mailakoa

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Arrasate Pilota Taldeak antolatuta, pilota jaialdia egingo dute gaur, egubakoitza, Uarkapen. Bi partidu jokatuko dituzte, 19:30ean hasita, eta sarrera doakoa izango da. Alde batetik, infantil mailan, Peru Orue eta Hodei Dominguez Danel Zubia- ren eta Ibai Osororen aurka ariko dira. Afizionatu mailan, bestalde, Ander Muruak eta Aitor Elizegik Beñat Azketa eta Endika Uriondo izango dituzte aurkari. Arrasate Pilota Taldeko zuzendaritza batzordeko kide eta entrenatzaile Iker Zugastik pilotaz gozatzeko dei egin die arrasatearrei. "Animatu zaitetze, arratsalde polita izango da eta hainbat sorpresa egongo dira!", adierazi du.

Ander Murua pilotari arrasatearra herritarren aurrean izango da, aspaldiko partez, eta,

hain zuzen, harekin lotuta dago sorpresa. Izan ere, aitortza txiki bat egingo diote haren partidua hasi aurretik, nahiz eta ez duten aurreratu nolakoa izango den eta zer egingo dioten.

## Arrasate Pilota Taldea, hazten

Azken bizpahiru urteetan hazten ari da Arrasate Pilota Taldea, geroz eta pilotari gehiago baititu. 2000ko hamarkadan indar handia izan zuen taldeak –Gipuzkoako Herri Artekoa ere irabazi zuten 2007an–, baina gero, gainbehera handia izan zuen, eta orain, berriz indartzen ari

**ARRASATE PILOTA TALDEAN 55 PILOTARI DITUZTE GAUR EGUN; ALEBINAK ETA INFANTILAK GEHIENAK**

da, apurka-apurka. Gaur-gaurkoz, 55 pilotari dituzte taldean, eta datorren denboraldira begira 60 ere izan daitezkeela aurrekusten dute, dagoeneko izen-ematea irekita baitute –horretarako, deitu 615 76 48 19 edo 677 66 85 93 telefono-zenbakietara–.

Hori horrela izanik, Uarkaperen ordutegiaren arazoak izango dituztela uste dute. "Uarkape erabilera askotariko gune bat denez eta gu izaten ari garen hazkundera aintzat hartuta, Udalarekin ordutegiak handitzea adosteko beharra izango dugu. Izan ere, oraingo ordutegiaren ez dugu aukerarik izango guztiendako", dio Oskar Oruek, Arrasate Pilota Taldeko presidenteordeak.

**Emakumeei deialdi berezia** Iaz emakume bat egon zen taldean eta datorren urterako beste ba-



Ander Murua, Bergara Hiria txapelketa irabazi ostean. IÑIGO BARRENA

## Aitortza jasoko du Ander Muruak

Gipuzkoako, Euskal Herriko, Espainiako eta munduko txapeladuna da afizionatu kategorian Ander Murua, eta, horregatik, aitortza egitea erabaki dute. "Ibilbide oparoa egiten ari da, hainbat titulu irabazita. Hala ere, Arrasaten ez du askorik jokatu eta pilotazale arrasatearrei aukera eman gura diegu Murua partidu batean ikusteko", adierazi du Iker Zugastik.

Muruak azaldu du "oso berezia" izango dela Arrasaten partidua jokatzeko, etxeko zaleen aurrean. "Pentsa, Arrasaten jokatu nuen azken partidua duela bederatzita urte izan zen, 15 urte nituela. Gero, zoritxarrez, ez nuen taldekiderik eta irten egin behar izan nuen. Beraz, itzulera gozoa izango da, motibazio bereziarekin joango naiz. Gainera, aitortza egingo didatela jakiteak ilusioa egiten dit. Ez didate ezer aurreratu, baina sorpresa polita izango da, seguru".

tek izena eman du. Edozelan ere, hori indartu gura dute. "Ikusten dugu beste herri batzuetan badituztela emakumeak taldean. Gurean datorren urterako animatu da bat eta esan digu gurako lukeela gehiago egotea. Beraz, deialdia egiten diegu emakume pilotazaleei taldera batzeko", zehaztu du Oruek.

Era horretan, emakumezkoetan zein gizonezkoetan kategoriaz guztietan pilotariak izatea da Arrasate Pilota Taldearen helburu nagusietako bat. Izan ere, orain dituzten pilotari guztiak gazteak dira, alebin eta infantil mailakoak gehienak, eta zaharrenak kadeteak dira: "Urte batzuk barru kategoriaz guztietan pilotariak izan gurako genituzke, esaterako, Gipuzkoako Herri Artekoan parte hartzeko eta Arrasaten talde egituratu bat daukagula esan ahal izateko".

**ANDER MURUAK DUELA BEDERATZI URTE JOKATU ZUEN ARRASATEN AZKEN ALDIZ, KADETEA ZELA**

## Babesleak behar dituzte

Modu berean, onartu dute babesleak lortzeko "zailtasun handiak" dituztela, eta babesle gehiagoren beharra aldarrikatu dute. "Azken batean, horrelako talde bat mantentzeko gastu asko ditu egunerokotasunean: materialak, entrenatzaileak eta abar. Beraz, laguntza oro ongiatorria izango da", nabarmendu du Iker Zubiak, taldeko presidentea. "Gaur egun, Kanpanzar Harrobia eta Dikar dira gure babesleak, baina gutatuko litzaiguke gehiago izatea. Beraz, ea babesleren bat animatzen den gu laguntzera".

## Gurasoen inplikazio handiagoa

Taldearen hazkundera, ezinbestean, lanerako esku gehiagoren beharra dakar. Hori dela eta, gurasoen inplikazioa eskatu dute. "Lau lagun bakarrik ari gara lanean eta geroz eta ume gehiago ditugu. Beraz, gurasoei eskatzen diegu batzordea etorri eta euren aletxo jar dezaten". Horren harira, datorren astean mezua bidaliko diete taldeko pilotarien guraso guztiei, Zuzendaritza batzordean sartzeko gonbidapena egiteko.



# Argiteria eta atletismo pista aldatuko dituzte

Aste honetan hasi dituzte Mojategiko berrikuntza lanak, eta uda osoa irautea aurreikusten du Udal Gobernuak: batetik, atletismo pista berrituko dute; eta, bestetik, argiztapen-sare eraginkorra eta jasangarria jarri, 1.111.175,40 euroko inbertsioarekin

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Mojategin dauden bi instalazioen berrikuntza lanak hasi dituzte aste honetan. Bi inbertsio eta esku-hartze proiektu ezberdin badira ere, biak Mojategiko kirol instalazioetan daude, Musakolako kiroldegian. "Mojategin dauden kirol instalazioak etorkizuneko kiroldegian integratuko dira, eta, horregatik, eguneratzeak eta mantentzeak egin ditugu azken bi urteetan. Hain zuzen ere, atletismo pista berritzea eta argiztapen-sarea eraginkorra eta jasangarria izatea lortzea da egingo diren lanen helburua", azaldu du Mikel San Miguelek, Kirol zinegotziak.

Modu horretan, Musakolako kirol azpiegiturak berritzen joango da Udal Gobernuak gutxika-gutxika, eta uda honetan Mojategin egingo duen inbertsioa, guztira, 1.111.175,40 eurokoa izango da. "Lanak udan egingo dituzte, kirol taldeen etenaldia aprobetxatuz, haien eguneroko jardunean eraginik ez izateko", gaineratu du San Miguelek.

## Zortzi argi-dorre

Mojategin zortzi argi-dorrez osatutako argiteria sistema dago. Lau dorrek futbol zelaia argiztatzen dute eta gainontzeko laurek, errugbi eta atletismo pistak. "Sistema halogeno zahar-akitu da Mojategik, horrek dakarren kontsumo energetiko eta ekonomiko handiarekin. Horregatik, lan horiekin, sistema zaharra kendu eta LED sistema jarriko dute. Sistema berriak argia erregulatzeko aukera ere eskainiko du, erabileraren araberago egokitzeko".

Hango argiak "indar handikoak" direla gaineratu du, eta Arrasaten energia gehien kontsumitzen duten instalazioak direla -305.000 kWh urtean-. Aldaketaren ostean, kontsumoaren erdira pasako da Mojategi,



Mojategiko pista, altxatuta, aste honetan. ARRASATEKO UDALA

## ARGIZTAPEN-SAREA ERAGINKORRA ETA JASANGARRIA IZATEA LORTU GURA DUTE ESKU-HARTZEAREKIN

zinegotziaren arabera, eta urtean 20.000 euro aurrezteko aukera izango du Udalak. "Gainera, trantsizio energetikorako aldaketa garrantzitsua izango da eta CO2 gutxiago isurtzen lagunduko du". Lanak Tecuni enpresak egingo ditu datozen zortzi asteetan, 361.602,81 euroko aurrekontuarekin -BEZa barne-.

## Hamazazpi urte ditu pistak

Atletismo pistak hamazazpi urte ditu, eta ordutik berritu gabe egon da. "Helburu nagusia izango da zoladura eta ekipamenduak berritzea, araudira egokitzeko". Aste honetan hasi berri dituzten lanak hamabi astean amaitzea aurreikusten dute, eta lan horien aurrekontua 749.572,59 eurokoa da -BEZa barne-. Hain zuzen ere, Obras y Pavimentos SA enpresak izango du pista berria jartzeko ardura.

## Musakolan, mantentze-lanak

Joan den astean, era berean, hainbat espazioen mantentze eta eraberritze lanak hasi zituzten Musakolako kiroldegian, azpiegitura berria egin bitartean "urte batzuk" igaroko direla azaldu baitu Kirol zinegotziak: "Gaur egungo kiroldegian espazio batzuk oso egoera txarrean daude; eta horren adibide dira eremu lehorreko aldagelak eta saunaren egoera txarra. Beraz, mantentze-lan horiek zerbitzu publiko duina eskaintzeko ezinbestekotzat jotzen ditugu, kiroldegi berria egin bitartean".

Eremu lehorreko lurra aldatzea izango da, beraz, zereginetako bat: "Antoñako pasilloan dauden aldageletako biniloa altxatu egin da hainbat tokitan, beste leku askotan biniloa kaltetuta dago, eta dutxenean, lurra hondoratu. Beharrezkoa da lurra aldatzea". Horrez gain, lanak egingo dituzte saunan ere: "Saunako lurra duela hamar urte berritu zen, baina dagoeneko gastatuta eta kaltetuta dago". Sauna lehorra ere berrituko dute, "oso kaltetuta" dagoelako. 37.300 euroko aurrekontua dute kiroldegiko lan horiek.

## NIRE USTEZ



ISABEL MEDINA

## Esperientzia trukea

Joan berri zaigun ekainean, Nikaraguako Diriamba udalerritik etorritako hainbat lagun bisita jaso genuen AMS elkartean, esperientziak trukatzeko asmoz; han bizi dituzten esperientziak eta Euskadin bizi ditugunak. Gizartean leku bat egiteko eta bat gehiago izateko borrokatu behar duten herritarrek hartu zuten parte. Fernandok bere istorioa kontatu zuen, eta gaur egun bakarrik dagoela azpimarratu. Parte-hartzeaz ere aritu ginen. Aliciak kontatu zuen eskulanak egitea asko gustatzen zaiola, eta nola abilezia horrek laguntzen dion besteei laguntzen. Era berean, dio batzuetan baino ez duela sentitzen gainontzekoen aitortza. Kontatutako esperientziez gain, ohikoa den errealitate bat ere bizi izan genuen: aulki gurpildunean dagoen pertsona batek garraio publikoa nola erabiltzen duen; hau da, Gasteiza, Bilbora edo Donostiara joateko egin behar dituzten milaka gestioak esperientziatu genituen. Gestio horiek emaitza onak emanda ere, autobusean ez dute inongo euskailu segururik eta, gainera, autobuserako sartu-irtena geldoegia izateak gaizki sentiarazten ditu gainontzeko bidaiariak. A ze esperientzia!

## Osakidetzan baliabide gehiago jartzea eskatuko du Udalak

EH Bilduk aurkeztutako mozioa onartu du udalbatzak, eta eskaera egingo diote Jaurilaritzako Osasun Sailari

## E.A.B. ARRASATE

Eskaerak, besteak beste, honako hauek dira: Osakidetzak "kalitatezko arreta" ziurtatzeko "beharrerekoak" diren espezialitate eta kategoria guztietako osasun profesionalak ezar ditzala eta Debagoieneko Osasun Mentaleko Anbulatorioan bete ditzala premia hutsik dauden psikiatra eta psikologo lanpostuak.

EAJk eta sozialistek aurkako botoa eman zuten martitzeneko osoko bilkuran, eskaera hori "dagokion foroan" egin behar dela argudiatuta.

Bestalde, Asier Murguzurrek uko egin zion zinegotzi karguari. "Urte gogorra izan da eta erabakia ez da erraza izan. Lantalde osoari eskerrak eman gura dizkiot, laguntzarengatik eta erakutsitako eskuzabaltasunagatik. Babes handia jaso dut zuengandik. Esker bereziak Mikel San Migueltzat, itzalean nire ordezkari lanean ibili baita", azaldu zuen. EH Bilduk Eñaut Arriaran proposatu du hura ordezkatzeko, eta, ondo bidean, urriaren leko osoko bilkuran hartuko du zinegotzi kargua.

## Irulegira irteera antolatu du AEDk irailaren 28rako

Irulegiko Burdin Aroko herrirka bisitatze irteera egingo dute irailaren 28an, AEDk antolatuta. Bisitak 10:00etan hasten direnez, 08:00etan irtengo da autobusa Arrasatetik, Aranguren bailarara garaiz iristeko. "Bisitak hiru ordu eta erdi inguru irauten du eta, gidariak taldearen erritmora egokitzen diren arren, ez da egokia mugikortasun

zailtasunak dituztenentzat. Izan ere, oinezko ibilbidea Irulegi mendiko bidexketan zehar egiten da eta tarte maldatsuak ditu. Gainera, gailurrera igotzeko 150 bat eskailera daude", adierazi dute antolatzaileek. "Haurrek arazo gabe egin dezaketzen arren, Aranzadiren proposamena da arkeologoen azalpenak ulertzeko gutxieneko adina 8 urtekoa izatea".

Izena emateko bi bide: 943-77 12 28 zenbakira deituta edo [aed@aedkartea.eus](mailto:aed@aedkartea.eus) era idatzita.

# Iturriperako proposamen gehigarriak ditu EAJk

Udalaren proposamena onartu arren, proposamen gehigarriak egin dituzte jeltzaleek Iturriperako kiroldegi berrirako; tartean, lur azpiko aparkalekua eta kirol instalazio berriak. 2021 eta 2022 artean eginiko prozesu batean jasotako herritarren eskariak dira

**Gontzal Belategi Zubia** ARRASATE

Joan den astean, Udalak, Tokiko Gobernu Batzordearen bitartez, Iturriperako kiroldegi berrirako oinarriak onartu zituen. Proiektuaren idazketak honako puntu hauek jaso beharko ditu, onartutakoaren arabera: eraikin berri bat egitea gaur egungoa birgaitu eta berriarekin parekatuta, frontoi berriak egitea eta urbanizazio erabilgarri eta jasangarria egitea.

Euzko Alderdi Jeltzalea ados dago proiektuan jasotako puntuekin. "Arrasateko EAJk Iturriperako berritzeko proiektuari babesa erakusten dio. Are gehiago, eskua luzatzen diogu Udal Gobernuari elkarlanean aritzeko edo mahai bat sortzeko, proiektua aurrera eraman ahal izateko", adierazi zuen Ederne Unamunok, EAJko kideak.

**Kirolguneak**

EAJko kideek pozez hartu dute proiektua. "Oso berri positibotzat hartzen dugu Udal Gobernuak proiektu hau aurrera ateratzeko pleguak atera izana. Arrasate-arentzat proiektu estrategikoa delakoan gaude. Datozen 40 urteetarako proiektu baten hasiera da, eta aurreko legealdiko prozesu parte-hartzailetik aterako herritarren mandatuari kasu egiten diola uste dugu", dio Ander Garay jeltzaleak.

Prozesu parte-hartzailea 2021 eta 2022 artean egin zen, eta 2023aren hasieran erreforma-aurreproiektu bat egin zuten, ekarpenak gogoan izanda. "Uste dugu gauza asko jasota daudela Udal Gobernuaren plegu horietan, baina anbizio puntu bat falta da", adierazi du Garayk. EAJko kideen ustez, "pauso bat gehiago" eman behar da, adibidez, bi padel pista eraikita: "Erabiltzaileek eskatutako puntu bat da. Musakolako pistak saturatuta daude, eta uste dugu deslokazio garrantzitsua dela".



Ander Garay eta Ederne Unamuno, Arrasateko EAJko kideak, Iturriperan. ARRASATEKO EAJ

## KIROLGUNE BERRIAK ETA BI SOLAIRUKO LUR AZPIKO APARKALEKU BAT PROPOSATZEN DITUZTE

Beste proposamen bat doakoa izango den erabilera libreko kanpoko gune bat eraikitzea da, frontoia eta kanpo-gune osoa hartuko duena: "Han, hasiera batean, skatepark bat egitea irudikatzen zen; erabiltzaile askok eskatu zuten. Gainera, ez zen enpresa batek diseinatutakoa izango, erabiltzaileek eurek diseinatutakoa baizik".

Frontoia da EAJkoen ustez jorratu beharrekoa den beste puntu bat. Haren tamaina mantentzea ezinbestekotzat jotzen dute. "Frontoi hura luzea da eta herrian ez dago halako frontoi luzerik. Askotariko modalitateetan jarduteko 40 metro inguruko frontoia behar dugu, eta hura oso aproposa da", adierazi zuen Unamunok. Zesta-puntan, erremontean eta palan egiteko eremu gisa irudikatzen dute Iturriperako, eta posible ikusten dute aurre-

rago Euskal Pilota Federazioarekin harremanetan jarri eta bertan ekintzak antolatzea.

Bide beretik, frontoi haren nolokotasuna ere azaldu zuen Garayk: "Guztiz itxia izan gabe, erdi itxia izan behar du, negu osoan zehar erabili ahal izateko. Horretarako, frontoia berritu egingo genuke, egun dagoen guneak mantenduta".

**Aparkalekuak**

Garayren iritziz, "gune oso tentsionatua" da Iturriperako ingurua aparkalekuen ikuspegitik, eta "hori bizilagunek, erabiltzaileek zein unibertsitateak esaten duten zerbait da". Arazo horri irtenbidea ematea ezinbestekoa da jeltzaleen ustez, eta bi solairuko lur azpiko aparkaleku bat egitea proposatzen dute.

Aparkalekuak funtzio bikoitza bete beharko luke, EAJkoen ustez; izan ere, motordun autoak aparkatzeko leku bat eskaini eta Iturriperako ingurua destentsionatzeaz gain, patineteen eta bizikleten erabilera ere sustatu nahi dute: "Aparkalekuak patineteendako eta bizikletendako ere izan behar du, gune segurua sortzeko".

## Ohiko azokaz gain, emakume artisauena ere izango da bihar

Hileko hirugarren asteburua izanik, bertako jakien azoka egingo da bihar, emakume artisauen azokarekin batera

**G.B.Z.** ARRASATE

Hileko hirugarren zapatua izanda, ohikoa den bertako eta garaiko produktuen azoka egingo dute bihar Seber Altube plazan.

**Emakume artisauen azoka**

Martxorako emakume ekoizleen eta artisauen azoka antolatzen zuten Emakume Txokoa, baina, eguraldiak baldintzatuta, ezin izan zuten azoka egin. Hala ere, proposamenari eutsi diote, eta, azkenean, zapatu honetan egingo dute. Guztira, hamabi ekoizle izango dira: Arrasateko zortzi

eta inguruko herrietako lau. Askotariko produktuak egongo dira azokan; bereziki, bitxiak.

**Ikastaroak**

Bi azoka horiez gain, eguzkitarako krema egiten ikasteko tailerra ere izango da, Ekoudalatz mintegiak gidatuta. Izen emateko, BAZera deitu beharko da.

**Abuztuan oporraldia**

Abuztuan ez da izango azokarik; irailako hirugarren zapatuta arte itxaron beharko da berriro azokara joan ahal izateko.



ARRASATEKO NAGUSIEN KONTSEILUA

## Kapelak egiteko ikastaroa

Bost urte bete ditu Arrasateko Nagusien Kontseiluak, eta urteurrena ospatzeko hainbat ekintza egingo dituzte. Irailaren 28an kapeladun desfile-poteoa egingo dutela iragarri dute. Aste honetan kapelak sortzeko lehen tailerrak egin dituzte, eta irailaren 23tik 26ra tailer gehiago egingo dituzte, 10:00etatik 12:00ak arte, Seber Altube plazan.

## OHARRAK

### Maalako jaiak

Urtero moduan, hilaren 22an izango dira Maalako jaiak, eta egun osoko egitaraua prestatu dute. Besteak beste, umeendako jolasak eta erraldioen kalejira antolatu dituzte.

### Ferreriasko jaiak

Uztailaren 26rako egun osoko egitaraua prestatu dute; besteak beste, txistulari eta haur-jolasekin. Bazkariko txartelak hilak 22ra arte egongo dira eskuragarri Kili Kolo dendan.

### Jose Antonio Nuñori omenaldia

100 urte bete berri dituen Jose Antonio Nuñori omenaldia egingo diote egubakoitzean Abaroan, 12:30ean.

## Ramon Barrutiak jarraituko du ARTko presidente izaten

Arrasate Rugby Taldeak ohiko batzar orokorra egin du asteon, Mojategin; 30 bazkide inguru batu dira bertan

**Imanol Beloki Unamuno** ARRASATE Martitzenean egin zuen Arrasate Rugby Taldeak ohiko batzar orokorra, Mojategin, klub zuri-moreko bazkideekin. Lau urte igarota, Zuzendaritza Batzorde berria aukeratzea zegoen gai-zerrendan onartu beharreko puntuen artean, eta, lantalde berririk ez denez aurkeztu, bazkideek aho batez adostu zuten Ramon Barrutia buru duen lantaldeak karguan beste lau urtez jarraitzea. Barrutia berak jarraituko du presidente karguan eta Belen Aranbarri

izango da idazkaria. Lantaldea beste bost kidek osatuko dute eta aurpegi berri bakarra Beñat Salaberrirena izango da. Barrutiaren lantaldea "pozik" dago azken lau urteetan egindako lanarekin, eta "2020an finkatutako helburuak betetzeko bide onetik" doazela esan dute.

Besteak beste, 2023-2024ko ekitaldiko balantze ekonomikoa aurkeztu zuten batzarrean, eta diru-sarrerak eta gastuak "orekatuak" izan direla adierazi zuten, 160.000 euro pasatxokoak. Urtero legez, Garagardo Azoka



30 bazkide inguru batu ziren martitzenean Mojategin. ARRASATE RUGBY TALDEA

izan da Arrasate Rugby Taldeak izan duen diru-iturri nagusia: sarrera guztien %25 inguru izan da. Gastuei dagokienez, kirol esparruan egin du inbertsiorik handiena Arrasate Rugby Taldeak 2023-2024ko ekitaldian:

entrenamendu eta monitoreetan, hain justu ere. Testuinguru horretan, 2024-2025eko ekitaldirako antzeko aurrekontua aurkeztu du Zuzendaritza Batzordeak, "azken denboraldietako filosofiari utsiz: sartzen den dirua

baino gehiago ez gastatzea" da gure helburua. Kontu ekonomikoaz gain, kirol esparruan egindakoaren balorazioa ere egin du ARTk, eta, guztien artean, talde inklusiboarekin egindakoak azpimarratu dituzte.



# Fruta eta barazki

# GUZTIAK\*

## OPARITUKO

## DIZKIZUGU



Uztailak

# 20

larunbata

\*Kupoi bakoitza uztailaren 22tik abuztuaren 10era truka daiteke 60 €-ko erosketa batean gutxienez.

Kontsultatu gainerako baldintzak sustapenari atxikitako EROSKI dendetan.

Fruta eta barazkietan 6€-tik gorako erosketengatik

\* Kupoi bakoitza uztailaren 22tik abuztuaren 10era truka daiteke, 60€-ko erosketa batean gutxienez. Erosketa eta egun bakoitzean, kupoi bat baino gehiago trukatu ahal da, baina kupoi bakoitzerako gutxienezko erosketaren baldintza betetzen bada. Sustapenarekin baze egin duten EROSKI dendetan, fruta eta barazki freskoen oraineko erosketa osoaren zenbateko oparituko dirugu kupoietan, atal horietan gutxienez ere 6 € xahutuz gero. Kupoi bakoitza 6 €-ko balioa izango du gutxienez. Kupoi gutxienezko zenbatekoa 24 €-koa izango da (3 kupoi gutxienez). Kupoiak ezin izango dira trukatu EROSKI Gasolindegian, Eroski Bidoietan, testulaburuetan, esperientzia paketeetan, birkarga telefoniketan, E-pay barteletan (aurreordainketa) erretzelatu digitalen, errega eta instalazio zerbitzuetan, selu bidezko fidelizazio sustapenetako produktuetan eta Apple erreferentzietan. Kontsultatu gainerako baldintzak sustapenari atxikitako EROSKI dendetan.



ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE.

Tel.: 943 71 10 30

# Merkatariek hots egin, musikariek erantzun

Bluesaren bueltako askotariko estiloen erreinua izango da Arrasate asteburu honetan, atzo hasi eta domekara arte hamalau emanaldi eta sorpresa gehiago egongo baitira ikusgai. Ibai-arteren Arrasate Blues jaialdiak sona handia hartu du dagoeneko

## Hasier Larrea Herrero ARRASATE

Bi eszenatoki berri –Arimazubi eta Ziorla taberna–, aldi berean lau emanaldi, European Blues Challenge lehiaketan parte hartutako taldeak... Urteik urtera hazten dabil Arrasate Blues jaialdia, eta aurten tokiko eta nazioarteko musikari aparten erakusleho izango da seigarrenez, iazko sentsazio bikainak gaintzeko hainbat osagairekin.

Arrasate Irratiko *Zaku bete kontu* saioan tertulia interesgarria egin dute asteon jaialdiko zuzendari Jon Apraizek eta oholtzetara igoko diren Jokin Vitoria eta Iban Peñakoba bateria-joleek, Aitziber Aranburuzabala kazetariak gidatuta.

Peñakoba aretxabaletarrak Zerendepya taldearekin egingo du debuta festibalean, hirukote formatuan. Hard-rock kutsuko talde klasikoak jarraitu izan dituzte gaztetatik, eta aura hori darie, gehienbat, instrumentalak diren abesti propioei. Eskaintza jaso zutenean "bertigo apur bat" sortu zitzaizela aitortu arren, "18 urte" zeuzkatenean moduko "ilusioarekin" hartu dute erronka, "publikoaren gustuko izateko gogoz".

Vitoria arrasatearrarentzat, berriz, hirugarren aldia izango



Aretxabaletako Zerendepya taldeko kideak. ZERENDEPYA

da, oraingoan Arima Blues-en perkusionista. Euskaraz uztartzen dituzte soul, funk, rhythm and blues, jazz-groove eta neo-soul estiloak. Mikel Makala DJ eta baxu-joleak eta Lidia Insausti abeslariak sortua, boskote gisa aurkeztuko dira Arrasaten: "Gainera, Jokin Zaitegi

## DEIA JASOTZEN DUTEN MUSIKARIEK GOGO ONEZ HARTZEN DUTE JAIALDIAN JOTZEKO GONBIDAPENA

plazan joko dugu, nire gurasoen dendaren alboan", zehaztu du Vitoriak.

Irratsaioko solasaldian konturatu dira Peñakoba eta Vitoria Jose Ramon Elkoro izan zutela biek irakasle, Arrasate Musikalen egoitza Aprendizices eraikin zaharrean zegoenean. Aipatu dutenez, "lehen urte haietan Elkorok transmititutako motibazioa" mantendu egiten dute, eta nabarmentzekoa iruditu zaie haien irakasle izandakoa oraindik aktibo egotea: "Izan ere, jaialdia aurkezteko prentsaurrekoaren osteko kon-

tzertutxoan baketak astintzen aritu zen".

## Musikaren hizkuntzan

Halako istorioak biltzen ditu jaialdi txiki eta, aldi berean, handi horrek. Eta norbaitek ondo baldin badakizki, hori Jon Apraiz da, Arrasate Bluesen hariak mugitzeko arduraduna. Vitoriari jakinarazi dio haren lagun Alex Haro etorriko dela Olana Liss-en saxo-jole gisa, eta hark, harritzearekin batera, gogoratu du azkenengoz Elvis Presleyren omenezko kontzertu bat jotzeko elkartu zirela, Donostiako Daba-Daban.

Eklektikoak baitira bluesaren bueltan mugitzen diren musikariak, askotariko iturrien edaleak. Zenbaitek aurrez ia elkar ezagutu gabe konpartituko dute oholtza, eta aspalditik batera ibili izan direla irudituko zaio publikoari. "Adibidez, Mingo Balaguer harmonika-jole sevillarrari esan nion jaialdira etorri nahi bazuen nik aukeratuko nizkiola musikariak, eta zeintzuk izango ziren esan nionean erantzun zidan betirako joko lukeela haiekin", kontatu du Apraizek.

## Denek baiezkoa

Jaialdiari *baina*-ren bat ateratzekotan, *shuffle* erritmoko dei-erantzun doinuen presentzia urteko sasoi gehiagotara zabaltea gustatuko litzaiekeela adierazi dute solaskideek: "Dena den, uztail erdialdeko festibal hau ezagun egin da hemen eta han, eta horren froga da deitzen diegun taldeek gonbidapena onartu ohi dutela berehala".

Aparretan urtu gabe, lehen aldiko oinarriak mantentzen dituen kartela dela ziurtatu du Apraizek: "Denetik pixka bat duena, euskararen aldekoa eta

## Kontzertuak gaur, bihar eta etzi

### Gaur, egubakoitza

- **19:00** Vulcanizadas, Euskal Herria plazan.
- **19:30** Zerendepya, Musakolako Ziorla tabernaren ondoan.
- **19:30** Diablues & Bluezifer, Arimazubin.
- **20:00** Amann&The Wayward Sons, Otolara Lizentziaduna kalean –Taupa tabernaren ondoan–.
- **22:30** The Allnighters, Arotz plazan –Irtati tabernaren ondoan–.

### Bihar, zapatua

- **13:00** The Half Nelsons, Arbolapetan.
- **18:45** Mingo Balaguer & Pablo Sanpa Blues Blast, Portaloian.
- **20:00** Olana Liss, Herriko Plazan.
- **22:30** Ina Forsman, Herriko Plazan.

### Etzi, domeka

- **13:00** Ibai Garcia Blues Project, Biteri ibilbidean –Mondragon Hotelaren ondoan–.
- **19:00** Arima Soul, Jokin Zaitegi plazan.

emakumeak lehen lerroan jartzen dituen". Aipatzekoa da, azkenik, Aterpe tabernan ostiral eta zapatu gauerdian *jam* saioak egongo direla, eta domeka eguerdian, sorpresa gisa, familientzako ikuskizun ibiltaria, Herriko Plazan hasita.

## Fantasiaz betetako antzezlanaren eguaztenean: 'Art-ilusio'

Markeliñe konpainiak haurren imajinazioa pizteko kale-antzerkia aurkeztuko du Seber Altuben, 19:30ean

## H.L.H. ARRASATE

*Greta* izeneko adineko emakume irakurleak eta haren bihotz tapadekin martxan jartzen den makinak mundu magiko bat sortzen dute *Art-ilusio* obran, liburu eta ipuin klasikoetako

egoera eta pertsonaiekin harremanetan jarriz. Halaxe murgilduko dira ikus-entzuleak *Moby Dick*-en, *Txanogorritxo*-ren, *On Kixote*-ren eta *Frankenstein*-en istorioetan. Aktoreek objektu eta material sinpleak baliatzen di-

tuzte beste esanahi batzuk eman eta irudimenez betetako egoera harrigarriak sortzeko. Markeliñeko sortzaileen proposamena publikoaren entretenezetik harago doa: "Haurtzarotik liburuarekin harreman fisikoa eta egunerokoa izatea oso ona da; irakurri dai-teke entzunez, usainguz, haztatuz edo liburuarekin jolastuz, baita antzerkia eginez ere".

Udazabalen baitako kale-antzerkia hilaren 23an ikusi ahal-ko da, asteazkena, Seber Altube plazan, 19:30ean hasita.



Greta pertsonaia. MARKELIÑE

**Bua...**  
**aspertute nau ja.**  
**Bixer**  
**nora juengo gare**  
**bazkaittera?**



DESKARGATU  
Play Store-n

DESKARGATU  
APP Store-n

**goienaOkmgida**

Debagoiengan baldin badago,  
hemen dago.



Goiena  
Okmgidaren  
eskaintza osoa.



Velez de Mendizabal, sendi giroan bankuaren erdian eserita, Uribarri Ganboako urtegia atzean dutela. J. VELEZ DE MENDIZABAL

# Velez de Mendizabal, Uribarri Ganboako semekotzat izendatua

Bihar, zapatua, jasoko du izendapena Josemari Velez de Mendizabalek, 13:00etan herriko elizan egingo dioten ekitaldian. Dio han atera diola benetako zukua bizitzari, eta maitatua sentitzen dela, nahiz eta azpimarratu duen Aramaio ere ez daukala saltzeko

**Amaia Txintxurreta Guridi** ARAMAIO Josemari Velez de Mendizabal (Aramaio, 1949) Uribarri Ganboako semekotzat izendatuko dute bihar, zapatua, 13:00etan herriko elizan egingo duten ekitaldian. Oso pozik jaso zuen izendatua izango den notizia. "66 urte dira ni hona etortzen naizela. Hasiera batean, nire gurasoei esker, hemen etxe bat egin zutelako, eta gero, nik nirea egin nuelako, eta orain dela sei hamarkada baino gehiago hemen bizi ditut orduak. Izan ere, behin baino gehiagotan idatzi izan dudan moduan, bizi benetan bizi eta zukua atera bizitzari, Uribarri Ganboan egiten dut", adierazi du.

Hala ere, gogorarazi nahi izan du Aramaio ere ez daukala salgai, inondik inora ere. Izan ere, dio haren "bihotzeko" bi herriak direla Aramaio eta Uribarri

Ganboa. Arrasaterekin daukan harremana, berriz, oso "zerebrala" dela dio, Arrasate "buruan" daukala baitio.

## Haren uztatik herriari ematen

Uribarri Ganboak asko eman dio Velez de Mendizabali, baina hark ere bere uztatik asko eman dio herriari: "Sei hamarkada hauetan disfrutatu egin dut eta ahalegindu naiz nire uztatik ere ematen nire herriari; ikertu dut historia, ikertu dut etnografia, egin ditut liburu batzuk herri honen inguruan, dokumental batzuk ere filmatu ditut etno-

**ARAMAIOKO SEME KUTTUN IZENDATU ZUTEN 1999AN; ETA 2013AN, GASTEIZKO URREZKO ZELEDON**

grafiari eta historiari buruzkoak, batez ere, etnografiari buruz, eta horrelako batean etorri zitzaidan hemengo alkatea eta esan zidan: "Aizu, semekotzat egin behar zaitugu". Eta gelditu nintzen flipatzen. Aramaioko seme kuttuna izateaz gain, hemengo semekotzat hartzen baldin banaute, niretzako egundoko plazera, ohorea eta konpromisoa da", esan du.

Martxoaren 27an onartu zuen aho batez bertako kontzejuak Velez de Mendizabal bertako semekotzat izendatzea, eta, Santa Marina jaien barruan, orain jasoko du izendapena.

Adierazi du maitatua sentitzen dela herrian, eta hauxe gaineratu du: "Ezagutzen ditut herriko sukalde guztiak eta sukaldean daudenak eta aurretik egon direnak ere bai, gehiago dauzkadalako beste munduan



Velez de Mendizabal, urtegiaren arraunean, 1964an. J. VELEZ DE MENDIZABAL

## Urtegiari zuku handia ateratzen dio

Uribarri Ganboako urtegiak esangura handia dauka Josemari Velez de Mendizabalendako. "Hona iritsi nintzenean inauguratu zuten, 1958. urtean", adierazi du.

Gainera, Uribarri Ganboako urtegi horri zukua atera izan dio handik eta hemendik, gazte-gaztetatik. Kirol arloari dagokionez, bela egiten duelako 13 urte zituenetik, arrantzan egunero egiten duelako, mendira joaten delako, arraunean egiten duelako edota familiarekin disfrutatzen duelako.

Gainera, haren ekarpena ere egin zuen: Uribarri Ganboako urtegiaren historiari eskainitako dokumentala egin zuen 2010. urtean. Horrez gain, amuarrainak harrapatzeko teknikari buruzko euskarazko liburua argitaratu zuen 1986an, *Amuarrantza* titulua daramana.

hemen baino. Nire lagunak ere Uribarri Ganboan ditut".

## Artxibo digitalizatuekin lanean

1999an Aramaioko seme kuttun izendatu zuten, eta dio "zorionez" Aramaioko artxiboaren digitalizazioa egin zutenean Udalak eman ziola kopia bat, eta, orduan, ez daukala artxibora joan beharrik, haren ordenagailuan daukalako Aramaioko artxibo historikoa eta bertan egiten dituelako lanak. Uribarri Ganboarekin ere gauza bera: 100 lagun inguru errolatuta dauden herri txiki bat da, baina, Velez de Mendizabalen esanetan, "sekulako artxiboa" dauka. Hori ere digitalizatuta dago, eta kopia dauka.

Gaur egun jarraitzen du artxiboko lanekin; horrek "bizitza" ematen diola aitortu du. Arrasateko kontuak ere lantzen ditu, hiru leku horiek baitira haren

**URIBARRI GANBOAKO, ARAMAIOKO ETA ARRASATEKO ARTXIBOKO LANEKIN JARRAITZEN DU EGUN**

lan-esparru geografikoa. Hala ere, hauxe azaldu du: "Nire baitan badago susmoa aurrerantzean denbora gehiago eskainiko diondala Uribarri Ganboako ikerketa lanari Arrasatekoari baino. Baina hori diot Arrasaten askoz gehiago egin dudalako". Esan du, gainera, Uribarri Ganboako jendea "oso eskuragarria" dela.

Herrian egindako lan guztiaren aitortza jasoko du bihar, "lana eta atxikimendua", zehaztu du Velez de Mendizabalek, inplikatu izan delako ez bakarrik ikerketa lanetan, kaleko lana ere egin izan duelako eta horretan jarraitzen duelako oraindik. Esaterako, taldeak mendira eraman izan ditu gerrako trintxerak nolakoak ziren erakustera, edota aprobetxatu izan du baita ere hark dakien hori beste herritar batzuei erakusten.

Gasteizko Urrezko Zeledon izendapena jaso zuen 2013an, eta 2016a ezkerro da elkarteko presidentea. Orain, hirugarren izendapena jasoko du, eta "ordainduta" sentitzen dela azpimarratu du. Iragarri du 2025ean Gasteizko Urrezko Zeledon elkarteko presidente izateari utziko diola.

# "Gogoz itzuli naiz Gernikako taldera"

**ANDER FERNANDEZ PACHECO** FUTBOL JOKALARIA

Etxean bezala sentitzen da Pacheco Gernikako taldean, eta hango eskaintza jaso zuenean ez zuen dudarik izan; eguaztenean hasi zituzten entrenamenduak

**Amaia Txintxurreta Guridi** ARAMAIO

Azken denboraldia Barakaldoko futbol taldean egin ostean, Ander Fernandez Pacheco (Aramaio, 1995) Gernikako taldeak fitxatu berri du. Hala, aurrelariak Bigarren RFEF Mailan jokatzen jarraituko du datorren denboraldian ere. Dena den, Gernika ez da talde berria aramaioarrentzat; izan ere, hiru urtez egon zen bertan jokatzen.

**Gernikako taldera itzuli berritan, zer moduz zaude?**

Oso pozik. Aukera hori irten zitzaidanean, dudarik gabe baietz esan nuen. Gernikako taldera itzultzea etxera itzultzea bezala da. Izan ere, bertan igarotako hiru urteak nire ibilbideko onak bezala gogoratzen ditut; beraz, gogoz itzuli naiz.

**Nola jaso zenuen notizia?**

Barakaldon jokatzen izan naitzen azken denboraldian jokatu dut, baina ez naiz titular izan. Orduan, banekien zaila izango zela kontratua bertan berritzea, mailaz igotzea ere lortu genuelako. Espero nuen Gernikak, adibidez, eskaintza egitea, han jokatutako urteak onak izan zirelako eta aurten ere ondo ibili naizelako. Pixka bat kostatzen da; izan ere, Gernikako Zuzendaritzan jende berria ere bada: aurretik ezagutzen naudenak eta ezagutzen ez naudenak daude, baina nirekin gogoratu dira eta pozik nago.

**Zer eman zizun Gernikako taldeak?**

Aukera jokalaria hobea izateko. Gernikara iritsi aurretik, Zestaon, esaterako, bai egin nuen urte ona, baina gero, Amorebietan, adibidez, asko kostatu zitzaidan. Galiziako Bergantiños-en ere izan nintzen. Baina Gernikan futbol jokalaria gisa heldu egin nintzela esango nuke. Hiru urte oso onak egin nituen: igoera bat lortu, Errege Kopan debutatu eta Bigarren RFEF Mailara igo ostean hamabost gol sartu.



Ander Fernandez Pacheco, Gernikan jokatzen ibili zeneko irudi batean. A.F.P.

## "BARAKALDON SORTU ZEN 'PATXEKISMOA'; MOTIBAGARRIA DA JENDEA ZUREKIN DAGOELA IKUSTEA"

**Badirudi haiek ere pozik daudela: esan dute Patxekismoa bueltan dela.**

Patxekismoa Barakaldon sortu zen, iaz. Ez dakit zer egin nuen, baina peña bat sortu zuen harmailetan ezagutzen ez nuen jendeak, eta kartela izan dute jarrita nire izenarekin. Fama hori hartu du, eta niretzako beti ona izango da Patxekismoa egoitea. Jokalari batendako oso motibagarria da jendea norberarekin egotea.

**Astean hasi dituzue Gernikan entrenamenduak, ezta?**

Oporrak motz gelditu zaizkit, bai. Eguaztenean hasi genituen entrenamenduak. Askotan motibatzen ninduen jende asko ezagutzen nuela lehendik. Egia da kirol zuzendaria, entrenatzaileak eta talde teknikoa berriak direla Gernikan, baina taldekide gehienak ezagutzen ditut, eta

horrek erraztasunak ematen ditu aldagelan.

**Esan izan duzu Barakaldon aldagelan kuadrilla zeneukala.**

Bai; uste dut oso garrantzitsua dela talde-giro ona, familia bat sortzea gure artean. Gernikan aurretik izan nintzen urteetan ere oroitzapen hori daukat, eta espero dut aurten ere, ikusi dudanagatik, giro ona izango dugula gure artean.

**Nola sentitu zara belar artifizialeko zelaiaren berriro?**

Urteekin nabaritzen da belar artifiziala daukaten zelaietan lesioak ere lehenago etortzen direla, baina ondo. Baloiarekin lehen kontaktua egin dugu; zelai naturala dutenetan baloia harrapatzea errazagoa izaten da, artifizialean gehiago botatzen duelako, baina azkar ohituko gara horretara ere.

**Penarekin gelditu zara Barakaldorekin igoera lortu ostean maila horretan ez duzulako jokatuko?**

Egia da jokatu dudana ondo jokatu dudala, baina banekien hau gerta zitekeela. Gainera, pozik gelditu naiz egin dudanarekin eta uste dut jendea nirekin ere gogoratuko dela; beraz, horrekin geratzen naiz.

## Santa Marinako jaiak ospatuko dituzte Arriolan eta Arexolan

Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze izango dira bertsotan, esaterako, gaurko bertso afarian

**A.T.G.** ARAMAIO

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara bitartean adin eta gustu guztiendako askotariko ekin-tzak izango dira Arriola eta Arexola auzoetako Santa Marina jaietan.

20:00etako etxafuegoekin eta kanpai errepiketzarekin hasiko dituzte jaiak. Eta horren ostean egingo duten auzoko bertso afarian duten auzoko bertso afarian duten goi-mailako bertsolariekin gozatzeako aukera izango dute, bertan izango baitira Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze bertsolariak.

Zapatuan, berriz, hainbat ekin-tza izango dira: 12:00etan, meza; 13:00etan, Ibarratik Arexolara bizikleta lasterketa; 17:00etan, kanpai-jotze erakustaldia; ostean, mus eta briska txapelketak; 18:00etan, Arexolatik Arriolara kalejira eta bertan jolasak; eta 21:00etan, erromeria trikitilariekin eta parrillada plazan.

Domekan, berriz, 12:00etan meza izango da, Aramaioko abesbatzak lagunduta, eta ostean, kantu saioa. Eta jaiari bukaera emateko, 17:30ean ume jolasak egingo dituzte.

## Uxue Arana izan da irabazle jaietako argazki lehiaketan

Aurten, estreinakoz, San Martin jaietako argazki lehiaketa antolatatu du Udalak, eta saria irabazi duen argazki-bilduma onena Uxue Arana Ajuriagerrak aurkeztutakoa izan da. Hark aurkeztutako argazkien "aniztasuna" saritu nahi izan dute, adierazi dutelako "askotariko ekin-tzetan izan dela, jaietako irudi orokor bat osatuz". Bi parte-hartzaile izan dira eta Udalak egingo dako lana eskertu nahi izan die.

Bestetik, *Aramaio.eus* webgunean dagoeneko bete daiteke jaietako balorazioa egiteko gal-detegia. Hori betetzeko azken eguna hilaren 30a izango da. Horrekin Udalak herritarren iritzia jaso nahi du.

## Auto klasikoen rallya pasatuko da bihar Aramaiotik

Azpeitiko auto klasikoen rallya izango da bihar, zapatua, 11:00etan hasita, eta aurten 240 kilometroko ibilbidea egingo dute parte-hartzaileek. Tartean, Aramaiotik pasako dira, eta horrek esan nahi du desfile ikusgarria eskainiko dutela, aurreko urteetan bezala; izan ere, pasako diren auto horiek 25 urte dituzte, gutxienez.

## D'Capricho bikotearen doinu kubatarak zapatuan Iturrietan

Kubako eta Euskal Herriko doinuak abesten dituen D'Capricho taldea izango da Iturrieta sagardotegiko terrazan bihar, zapatua, arratsaldeko zazpietan.

*Azul* izeneko diskoa aurkezten ari direa taldea osatzen duten Daniélis eta Daniellis Moya Avila ahizpak, eta ikuskizun berrian ere euskarazko zein gaztelaniazko kantuak abestuko dituzte. Pianoa lagun, kantu gehienak, gainera, euskal poeta ezagunen olerki musikatuak dira. Bikoteak aukeratutako idazleen artean daude Jon Gerediaga, Leire Bilbao, Miren Agur Meabe, Gotzon Barandiaran eta Joseba Sarrionandia, besteak beste.

## Liburutegia goizez izango da zabalik hilaren 31ra arte

Liburutegia goizez egongo da zabalik herritar guztiendako hilaren 31ra bitartean. Ordutegi honetan izango da irekita, zehazki: 10:30etik 13:00etara bitartean. Eta, ondorioz, libururen bat maileguan hartu nahi duenak orain aukera dauka hori goizez egin ahal izateko. Gainera, gogoratu behar da abuztuan itxita egongo dela.

# Aisialdiari eskainitako egunak agurtzeko unea

Jardueraz betetako hiru asteren ondoren, gaur bukatuko dituzte udaleku irekiak neska-mutikoek, baita UDAk antolatutako futboleko campusa ere; nerabeek, ostera, atzo esan zioten agur Udaero programari, Gaztekonkis egitasmoarekin

## Mirari Altube ARETXABALETA

Bukaera jaia ospatuta esango diete agur udaleku irekiei gaur, egubakoitza, 3 eta 12 urte arteko 326 umek. Hiru astez jardun dute elkarrekin eta ekintza mordoa egin dituzte, 34 hezitzailek gidatuta. Loratu ekimenak izan du haien ardura eta bertako bi koordinatzaileek balorazio positiboa egin dute: "Umeek helarazi digute oso gustura etorri direla, ondo pasatu dutela eta hezitzaileekin oso ondo moldatu direla. Horrek adierazten du motibatu egin ditugula eta datorren urtean errepikatze gogoz geratu direla". Jardueren artean kanpora egindako irteerak nabarmendu dituzte: Mutrikura eta Iruña Okako igerilekuetara, esaterako. Horiez gain, inguruko parajeetan ere ibili dira; Urkulun eta Apoztagan, adibidez.

## Futbol campusean "primeran"

UDAK antolatutako futbol campusean 93 neska-mutikok jardun du: "Primeran pasatu dute futbol entrenamenduetan zein bestelako ekintzetan, eguraldia lagun izanda". Padel surfean aritu dira Aldayetako klub nautikoan, mendira txangoak egin dituzte, baita igerilekuetara ere: "Horiez gain Anoetako *tourra* egin dute eta Ondarretako hondartzan eguna borobildu".

## Nerabeek, Udaero

Atxagazte gaztelekuko kideek, ostera, Udaero programarekin eman diote bukaera ikasturteari. Hainbat ekintza izan dituzte uztailen; batzuk herrian bertan –Ojala Zelain film bat ikusi eta buztin-tailerra, esaterako– eta beste batzuk kanpoan –surfean jardun Deban–. Bukaera eman diote Gaztekonkis ekimenarekin. Aurten, Garaion Sorgingunera (Araba) joan dira, Arrasateko eta Eskoriatzako gazteekin batera, 46 inguru, eta atzo itzuli ziren, hiru egun pasatuta.



Neska-mutikoak koloretako hautsarekin jolasean udaleku irekietan. LORATU



Futbol campuseko neska-mutikoak, Anoetara egindako bisitan. UDA



Hainbat nerabe buztina lantzen. ATXAGAZTE GAZTELEKUA



NIRE USTEZ

MALENA GONZALEZ ALTUNA

## Jaiak, guztionak eta guztiontzat

Udarekin batera hainbat herritako jaiak heldu dira gurera: sanjuanak Arrasaten, sanpedroak Eskoriatzan, andramaixak Aretxabaletan...

Zoritzarrez, jaiak, beste hainbat espazio bezala, oraindik ez dira gune seguru eta gozagarriak pertsona guztientzat; emakumeentzat eta LGTBI+ kolektiboko pertsonentzat, adibidez. Hori esanda, nire helburua ez da jaien inguruko ikuspuntu negatiboa plazaratzea, hausnarketa eragitea baizik; izan ere, guztiok dugu zer egin.

Azken urteetan aurrerapausoak eman diren arren, oraindik ere asko dugu hobetzeko: emakumeen eta identitate disidentearen parte hartzea eta errepresentazioa sustatu behar da, indarkeria matxistaren aurkako protokoloak jarri behar dira martxan, irudi eta mezu berdinzaleak sustatu behar dira...

Jaiak gure gizartearen isla dira eta ordua da horiek ere, gutxika, espazio seguruago eta gozagarriago bilakatzen joateko. Jai berdinzaleen aldeko apustua egiteko ordua iritsi da; ekin diezaiozun lanari.

## Ixadebalde azoka gaur Durana kalean, "mauka handiekin"

Aretxarte elkarteak 27.ez egingo du Ixadebalde merkealdien azoka, gaur, egubakoitza, 10:00etatik 20:00etara bitartean. Oraingoan, Durana kalean, plaza barrenean, jarriko dituzte postuak, eta sei hauek elkartuko dira: Asensio, Kilima, Hanka-beltz, Belar Meta, Tak zapata-denda eta Almila Shop. Irailera itxaron beharrean uztailen egitea erabaki dute; udaberri eta uda sasoiaren geratutako produktuak eskainiko dituzte arropa, osagarri eta oinetakoen dende, eta mauka handiak izango direla iragarri dute.

Bezeroak saritzeko, gainera, 50 euroko sei bonu zozketatuko dituzte egunaren bukaeran.

## Kuttune folk taldeak 'Zer ote da?' proiektua egingo du

Nerea Quincoces Ochoa perkuisionista eta abeslari arabarra (Artziniega, 1993) buru duen Kuttune folk taldeak *Zer ote da?* diskoa aurkeztuko du domekan, uztailaren 21ean, 19:30ean, Herriko Plazan.

2019an sortutako taldea goi mailako bederatzita musika osatzen dute eta iaz kaleratu zuen hamabi konposizio biltzen dituen bigarren diskoa. Herri musika eta beste kultura batzuetako folklorea nahasten dituzte; batik bat, Afrika mendebaldeko, Ekialde ertaineko eta Latinoamerikakoa. Betiere, bizkarrezurra Euskal Herriko musika tradizionala izanik. Musika gustuko duen edonor gonbidatu dute.

Jou Diaz  
Karakina

Durana 15  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

Mobiliario  
ARENZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



# Loramendikoen eskutik iritsiko dira andramaixak

Abuztuaren 13tik 17ra bitartean ospatuko dira herriko jai nagusiak, eta Udaleko Kultura Sailak eta Gazte Mugimenduak gertu dute egitarau ofiziala; ohiko ekitaldiek, musika emanaldiek eta hainbat eratako ikuskizunek bat egingo dute kalean

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Andra Mari jaiak badute egitaraua. Jose Luis Pulido Calvo diseinatzaile grafiko madrildarrak egindako irudiarekin osatu dute hori, eta Udaleko Kultura Sailak, hainbat eragilerek batera, eman du antolatutako ekitaldien berri. Jaiak antolatzera 130.000 euro pasatxo bideratu dituzte.

**Paella-jana beteta**

Jaiari hasiera ofiziala abuztuaren 14an emango diete, Loramendi elkarteko kideek botako duten txupinazoarekin. 30. urteurrena ospatzen dihardu euskara elkarrekin, eta udaletxeko balkoitik zabalduko dute euskarara bazteko gonbidapena.

Haurren Egunean, hilaren 16an, ostera, alkate txikia eta alkateorde txikia izango dira protagonista; aurten, Sara Guediane Iparragirre eta Izei Belategi Sodupe. Umeendako bereziki prestatutako ekitaldiak izango dituzte orduan: joko mitologikoak, txotxongilo emanaldia eta jolas parkea, besteak beste.

Arrakasta duten ekitaldiak aurten ere errepikatu egingo dira, hala nola, txirrindulari lasterketa, pilota partiduak, sokamuturra eta paella-jana; hain zuzen bazkarirako toki guztiak,

680, bete ziren izen-ematea zabalduko egunean bertan. Eta berrietasunen artean daude erraldoiak, berriak aurkeztuko baitituzte hilaren 14an.

**Ikuskizunak eta musika**

Ikuskizunek ez dute hutsik egingo, eta horien artean aipatzekoak dira Bizkaiko Deabru Beltzak taldearen *Su danborrak* eta Yogurinha Borova bilbotarraren *Amona molona*.

Musikari dagokionez, estilo askok egingo dute bat plazan, kaleetan eta txosnagunean: mes-

tizajeen aitzindari den Amparanoia taldeak, kanta ezagunak eta azken diskokoak uztartuko ditu; Zaragozako Artistak del Gremiok txaranga doinu ganberroekin beteko ditu kaleak; Nafarroako Puro Relajok, ostera, mariatxi kantuak eroango ditu plazara; eta Iruñeko Goxua'n Salsak saltsa dantzatzeko aukera sortuko du.

Debagoienarrek ere izango dute lekua; horien artean, aipatu behar da azken hilabeteetan txosnaguneak betetzen dabilzan Añube eta Kaparrak.



Amparanoia eta Artistak del Gremio taldeak, elkarrekin. AMPARANOIA



Txarapea ibilbideko hainbat bizilagun jaien berri ematen. MIRARI ALTUBE

## Irailaren 14an ospatuko dituzten jaiak gertatzen dabilta Txarapean

lazkoek izandako arrakastaren ondotik, bigarrenaz antolatuko dituzte, eta laguntza eskatu dute horretarako

**M.A.** ARETXABALETA

Irailaren 14an, zapatua, ospatuko dituzte jaiak Txarapea ibilbidean. Hala iragarri dute bertako hainbat bizilagunek. Iaz antolatu zituzten lehenengoz jaiak, eta orduan izandako arrakastak animatuta aurrera egitea erabaki dute, eta kale bizia dela erakutsi: "Txarapea bizirik dago eta bertako bizilagunak ere bai". Egitaraua gertatzen dabil Jai Batzordea, "zabala eta askotarikoa, guztiok ongi pasatzeko", baina hori lotu bitartean laguntza eskatu diete gainerako bizilagunei.

**Ekarpen ekonomikoa**

Hiru eskaera egin dituzte: bate-tik, diru ekarpena. "Jaiak ekonomikoki bideragarriak izan daitezten, ahal duzuen ekarpena egitea". Eta bi aukera eman dituzte: norberak nahi duena ematea edo atariko 80-100 euro ar-

teko ekarpena egitea –bizilaguneko 10 euro-. Horretarako kontu korrontea ere eman dute: ES07 3035 0002 11 0020084765.

Bestetik, eskatu dute jaietan modu aktiboan parte hartzea: "Kalejiran, txosnan txanda bat eginda, puzgarriko zaintza-txandaren ardura hartuta, herri bazkarian lagunduta edo *Txarabermut*-ean abestu eta musika instrumenturen bat jota". Horretarako, Jai Batzordeko edozein kideri jakinarazteko edo helbide honetara idazteko esan dute: [txarapeakojaixak@gmail.com](mailto:txarapeakojaixak@gmail.com).

**Balkoiak apaintzeko deia**

Hirugarren eskaera da irailaren 14an, jai egunean, balkoiak apaintzea eta, horrela, kalea girotzea: "Atariko bizilagunek batera apaindu dezakete edo nork bere balkoia. Eta atari eta balkoi koloretu eta animatuenarentzat sariak egongo dira".



RPS: 83/19





**Durana**  
Hertz Klinika

**INPLANTOLOGIAKO  
ESPEZIALISTAK 3D  
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN  
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55



Zirrara taldeko kideak Arrasaten, sanjuanetan egindako kontzertuan. OIHANA KOSKORROTZA



Leire Lezeta eta Dorleta Ezeiza eskoriatzarrak. LEIRE LEZETA

## Santa Marinako kioskoa, sortzaileen erakusleiho

Eskoriatzako Udalak antolatutako 'Zedemontre' topaketaren hirugarren edizioaren izen-ematea amaituta, Leire Lezeta eta Dorleta Ezeiza eta Zirrara taldea igoko dira hilaren 19an 19:00etan Santa Marina plazako oholtza gainera

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA *Zedemontre* topaketaren hirugarren edizioa izango da hilaren 19an, mota guztietako sortzaile eta artistentzat, musikan, antzerkian eta taularatu daitekeen beste edozein modalitatetan aritzen direnentzat. Aurten bi sortzaile animatu dira parte hartzera: batetik, Leire Lezeta eta Dorleta Ezeiza eskoriatzarrak bikote formatuan: eta, bestetik, Zirrara taldea. Ekitaldia gaur 19:00etan izango da, Santa Marinako oholtza, eta, bigarren edizioan moduan, sorkuntza

bultzatzeko asmoa duen egitasmoa izanda, parte hartuko dutenek egiten dakitena gauzatzeke zuzenekoak egingo dituzte.

Eskoriatzan jaiotako edo errolatutako pertsona guztiei zuzendutako egitasmoa da. Taldeei dagokienez, taldea osatzen duen pertsonetako batek, gutxienez, Eskoriatzan jaiotakoa izan behar du, edo bertan errolatuta egon. Parte hartzen duten pertsonak edo taldeek 30 minutu inguruko saioa egin behar du zuzenean, eta euskara hutesan egitearren sariak gehiga-

rria izango du. Hauxe adierazi du Arantza Unzuetak, Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariak, aurtengo lehiaketara begira: "Eguraldi txarra egiten badu, kontzejupean egingo dugu ekitaldia, kalean jaio den topaketa delako. Aurrez egindako edizioak arrakastatsua izan dira; iaz, esaterako, jende dezente batu zen Santa Marinan. Parte-hartzea ez da handia izan aurten, baina topaketaren helburua hasiberriei aukera bat ematea; beraz, pozik gaude animatu direnengatik".

### Euskal erromeria

Leire Lezeta eta Dorleta Ezeiza eskoriatzarrek, panderoa eta soinua oinarri, perkusio pixka batekin lagunduta egingo dute zuzeneko saioa. "Gure gustuko kantak hartu, eta nahasketa bat eskainiko dugu; abesti tradizionalak eta ez hain tradizionalak. Kalean aritu izan gara jotzen, baina hortik haratago ere beti egin nahi izan dugu zerbait gehiago egin. Hala, herrian bertan, etxekoen aurrean, erronka modura, parte hartzera animatu gara; ondo pasatzea izango da gure asmoa", adierazi du Leire Lezetak.

### Bertsioak

2023an sortutako taldea da, bestalde, Zirrara, eta musika taldeen bertsioak eskainiko dituzte gaurko emanaldian: "Lagun talde bat gara, eta, ikas bidaierako dirua lortzeko hasi ginen arren, jarraitu egin dugu bidea. Eider da abeslaria, Maren gitarra-jolea eta ahotsa, eta ni [Oihana] taldeko bateria-jolea naiz.

Orain arte, beste musika talde batzuen bertsioak soilik egin ditugu, estilo bakar batera mugatu gabe; gaurko lehiaketarako zuzeneko emateko, berriz, modu akustikoan arituko gara. Hau da, Eiderrek abestu egingo du, Marenek gitarra espainolajoko du, ahotsek lagunduta, eta nik kaxa joko dut. Jasan, Olaia Inziarte, Olatz Salvador, Rozalen, Izaro, Lola Flores... talde askoren bertsioak izango dira egingo ditugunak", dio Oihana Koskorrotza taldekideak.

**Artisau garagardoak lagunduta** Kontzertuek iraun bitartean, Eskoriatzako Gerrigarado elkartearen garagardo artisaua dastatzeko aukera izango da bertan jarriko duten postuan.

**ORDU ERDIKO BI ZUZENEKOREN OSTEAN, SARIAK UNEAN BERTAN BANATUKO DITUZTE**

## Luis Ezeiza areto futbol txapelketa bihar, laugarrenez

Gutxienez sei jokalarik osatutako taldeen areto futbol txapelketa zapatuan izango da, 10:00etan hasita

### I.B. ESKORIATZA

Iaz, zortzi taldek hartu zuten parte Luis Ezeiza areto futbol txapelketan, eta aurten ere parte hartzeko dei egin dute antolatzaileek –izen-ematea taldeko 120 eurokoa izango da–, txapel-

keta ederra antolatu eta aurrera eramateko. Areto futbol partiduez gain, txosna jarriko dute, musika izango da, pintxoak jarriko dituzte salgai, zozketak egingo dituzte... Hain zuzen ere, interesdunek @eskofutsaltxapel-

keta Instagram kontura idatzi dezakete.

"Duela hilabete atera genuen ikus-entzunezko bat sare sozialen bitartez txapelketa iragaritzeko. Kartela, berriz, joan den astean argitaratu genuen, baina izen-ematea gelditu samar dago. Gertuko zenbait lagunek animatuko direla esan digute, baina halakotan azken unean izaten dira izen-emateak. Ea jendea animatzen den...", adierazi du antolakuntza taldeko Jokin Salido eskoriatzarrak.



# Ohiko aisialditik irteteko nerabeentzako eskaintza

Udaero egitasmoan murgilduta izan dira egunotan Eskoriatzako gaztelekuko gaztetxoak, Irati Unanue eta Eñaut Etxebarrieta hezitzaileen gidaritzapean. Aurrez prestatutako egitarauan aldaketak izan arren, "oso ondo" aritu direla esan dute

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Uztaileko lehenengo hamabostaldian ekintza ugari izan dituzte Eskoriatzako gaztelekuko nerabeek Udaero egitasmoaren barruan, eta programatutako zenbait ekintza Aretxabaleako eta Arrasateko gaztelekukoekin batera egin dituzte, gainera. Eskoriatzako gaztelekuko hezitzaileek "oso ondo" baloratu dute egindakoa.

"Gaztetxoan jarrera txalotzekoa izan da antolatutako ekintzetan, eta ikasturtea borobiltzeko egindako ekintza-sorta ederra izan dela uste dugu. Gainera, eguraldia ere lagun izan dugu", azaldu du Irati Unanuek, Eskoriatzako gaztelekuko hezitzaileak.

## Deban surfa egiten

Udaero egitasmoaren barruan egindako ekintzetatik Debara egindako irteera nabarmentzeko dela adierazi du Unanuek: "Eskoriatzako, Aretxabaleako eta Arrasateko gaztelekuko 36 nerabekin izan ginen Deban. Surf ikastaroa egin genuen bertan, Yako surf eskolakoekin, bi taldetan banatuta, eta oso ondo pasatu genuen. Beste edizio batzuetan ere egiten den irteera da, eta funtzionatzen duela esango nuke, gazteek ederto pasatzen dute".



Debako surf ikastaroan ateratako talde-argazkia. IRATI UNANUE

## Kosta, mendia eta azken afaria

Joan den astean, berriz, Murtikuko igerileku naturaletara ziren joatekoak, baina, uretan zegoen bakterio batengatik, Ondarroara joan ziren egun-pasa. "Kasu horretan ere Aretxabaleako eta Arrasateko nerabeekin egin dugu irteera. *Ku-kañan* aritu ginen portuan jauziak egiten...". Horrekin batera, irteera bat ere egin dute Eskoriatzan bertan; hain zuzen ere, ilunabarra ikustera joan ziren joan den astean Santa Luziako berdegunera. Bertan

zenbait jolas egin, proiektorea jarri eta izarren azpian pelikula bat ikusteko tartea ere hartu zuten. Ikasturtea borobiltzeko azken afaria ere egin dugu; hain zuzen, parrillada ederra egin zuten hilaren 12an", adierazi du Unanuek.

## 'Gaztekonkis' Garaionen

Asteon, berriz, hiru eguneko irteera antolatu dute Garaionera, eta bertan *Gaztekonkis* abentura izan dute nerabeek. Taldeetan banatuta, proba ugari egin behar izan dituzte.

deko hautua egingo dugu. Aurren, gainera, jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa egin dugu; izan ere, inoiz baino ekitaldi gehiago izango ditugu, eta kartela azken urteotako onenetako bat dela esango nuke", esan du Iñaki Kortazar antolatzaileak. Gaineratu duenez, musikaz kontzertuez gain, Gorosarri dantza taldearen urteurrena izanda, Arrasateko Lore Gazteak taldearekin batera emanaldia izango da hilaren 22an, 18:30ean, Fernando Eskoriatza plazan.

## Errekan Gora jaialdian dantzak izango direla aurreratu dute

Iraileko hirugarren asteburuan egingo dute Errekan Gora jaialdia, irailaren 20an, 21ean eta 22an

## I.B. ESKORIATZA

Abuztuaren 30ean argitaratuko dute aurtengo Errekan Gora jaialdiaren egitaraua. Aurre-irteeraren gisa, iraileko hirugarren asteburuan ospatuko dela adierazi dute. Horrekin batera,

nabarmendu dute Fernando Eskoriatza plazan oholza handia jarriko dutela eta Inkernu taberna kanpoan oholza txikiago bat.

"Programazioa prest, estilo askotariko musika taldeen al-

# LEINTZ GATZAGA | 19



Gurel guraso elkarteko zenbait kide Gatzagako plazan. AINHOA BARANDIARAN

## Plangintza osatzeko bidean, haurren ongizatea ardatz

Gurel guraso elkarteko kideek urteko ekintza-planari eutsi nahi diote, ekitaldi berriak sortzea baztertu gabe

## Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Herrian kultura jarduera gehien antolatzen dituen taldea da Gurel guraso elkartea. Zuhaitz landaketa, Gatz Eguneko pintxo salmenta, Gaba Baltza eta amaitu berri dituzten udalekuak, esaterako. Haur txikiak dituzten herritarrek hainbatean batzen dira kultura jarduerak antolatzeko, eta belaunaldi berrien beharra dagoela diote.

"Haur txikiak ditugun gurasoak elkartzeko gara, eta haur gehiagorik ezean jende gutxiago batuko gara. Gure txikien aisialdia eta heziketa hobetzeko urteroko

ekintzez gain, plangintza berria ere prestatzear gaude. Datorren ikasturtean ikastaroren bat antolatu nahiko genuke...", dio Ainhoa Barandiaranek, Gurel guraso elkarteko kideak.

## Gurel guraso bilakaera

Amaia Arzelus Gurel guraso elkarteko kideak hauxe gaineratu du: "Herria bizirik mantentzeko ekintzak antolatzen jarraituko dugu. Gure ezaugarri bat da adin tarte askotariko haurrak batzen direla, elkar ere zainduz, eta hori bultzatzea dagokigu".



GORKA MADINABETIA

## Bola-jokoan Gorosabel garaile

Hilaren 12an, joan den egubakoitzean, jokatu zen bigarren Eugenio Otsoaren omenezko bola-txapelketa Leintz Gatzagan, eta Aitziber Gorosabel gatzagarra izan zen irabazlea: txapela ez ezik, 100 euro ere eskuratu zituen; are gehiago, lehen gatzagarra izan zenez, urdaiazpikoa ere harentzako izan zen.



Gipuzkoako Ur Kontsurtzioko eta Bergarako Udaleko ordezkariak Albitxuko deposituan, asteen. B.U.

## Buruja betza hidrikorako urratsa, Albitxu berrituta

2023an Urkuluko urtegiak inoizko mailarik baxuena izan ostean, Gipuzkoako Ur Kontsurtzioa irtenbide berrien bila hasi eta Albitxuko depositua berritzeko lanei ekin zien. Lanak amaitutakoan, ohikoena izango da Bergara depositu berritutik hornitzea

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak hainbat lan egin ditu Albitxuko ur tratamendu plantan, eta, ondorioz, herriguneko etxe guztietara iritsi ahal izango da ura Pol Poleko iturburutik; esan daiteke, beraz, Bergara hasi dela baliabide hidriko propioak erabiltzen. Azken urteetako lehorreek eraginda eta beharrezko

azterketak egin eta gero erabaki zen aspaldian geldirik zeuden Albitxuko instalazioak martxan jarri eta Bergarako herriak Pol Poletik jasotzen dituen urak berriz ere zirkuituan sartzea.

**Iazko lehortetik, irtenbide bila** Izan ere, Urkuluko urtegia inoizko mailarik baxuenean egon zen iaz, eta haren bermea han-

ditzea da helburua. "1988koa da Urkuluko urtegia, eta iaz, 2023an, historiako mailarik baxuenean egon zen. Horregatik hasi ginen hemen eta beste eskualde batzuetan beste irtenbide batzuk bilatzen. Urkulu martxan jarri zenean Udalarekin adostu genuen Albitxuko depositua guk geuk mantenduko genuela; hala, duela urte eta erdi Urkulun zer

gertatzen ari zen ikusita hasi ginen Albitxuko lanekin. Albitxuko nahiko instalazio zaharra zen, eta dena ari gara berritzen", adierazi du Gipuzkoako Ur Kontsurtzioko zuzendari Iñigo Elosegik.

### Hodia Pol-Poletik Albitxura

Urkuluko instalazioetatik kontrolatzen dituzte Bergarakoak, eta, horregatik, egindako lanen artetik automatismoak azpimarratu ditu Elosegik. 300.000 euroko inbertsioa egin dute dagoeneko, beste 100.000 eta 150.000 euro artean gastatuko dituzte, eta, horrez gain, Pol-Poletik Albitxuko instalaziora doan hodia ere aldatzen joango dira: "Fibrozementuzkoa da eta nahiko zaharkituta dago; hori ere pixkanaka aldatzen joango gara". Aipatzekoa da, hain zuzen ere, Bergarak baduela iturburu bat Pol Polen, kalitate handiko ura eskaintzen duena. Pol Poleko iturburutik Albitxura ura iristeko zazpi kilometroko hodi bat dago, eta, behin Albitxun tratatu ondoren, 2.200.000 litroko edukiera daukan ur deposituan biltegitratzen da ura. Albitxuko planta berrituaren gaitasuna 30 litro segundokoa da.

Instalazioek gaur egungo kalitate eta segurtasun estandarrak bete eta martxan jarrita, aukera bikoitza izango du, beraz, Bergarako herriak: "Esan dezakegu lan guztiak amaitzen direnean Bergarak berme bikoitza izango duela; izan ere, Albitxutik edo Urkulutik hornitu ahalko da. Hori bai, saiatuko gara bergararrak Albitxutik hornitzen".

### Zaila beste herrietan egitea

Begarako alkate Gorka Artolark ontzat eman du errekurso pro-

pioetatik tiratuta bergarrei herriko ura bideratzeko aukera izatea, eta gaineratu du eskualde osoarentzat izango dela lagungarri: "Urkuluko urtegiak dituen gaitasunak zeintzuk diren jakinda, beharrianak jaisten joango lirakeke Bergara Albitxutik hornituz gero, eta hori Urkulutik hornitzen diren bailarako gainerako herrietan onuragarria izango litzateke. Alde horretatik, interesgarria da Bergarak bailarari egiten dion ekarpena".

Eskualdeko beste herriren batean ere halako aukerarik egon daitekeen galdetuta, zaila dela adierazi du Iñigo Elosegik. Izan ere, 1988an Urkulu martxan jarri zenean baliabide guztiak erreketara bideratu ziren eta gaur egun Albitxuko kopuru aldetik gaitasun handienekoa: 30 litro segundoko. Bertako eta Urkuluko urak oso antzerakoak dira, gainera, kalitate handikoak biak, eta herritarrek ez dute alderik nabaritu ez usainean, ez zaporean, ez kolorean.

### Kontsumoa ia erdira jaitsi da

Azken urteetan herritarren ur kontsumoa ia erdira jaitsi dela adierazi zuten agerraldian. Kontsurtzioa martxan jarri zenean, Urkulutik 350 litro ur ematen ziren eguneko eta pertsonako; gaur egun, 205-210 litro bitartean. Iñigo Elosegik dio, ordea, litekeena dela kontsumoa are gehiago jaitsi edo emari berriak topatu behar izatea.

## POL-POLETIK ALBITXURA DOAN ZAZPI KILOMETROKO HODIA "PIXKANAKA" BERRITUKO DUTE

## Argazki zaharrak hainbat datuz osatzeko laguntza eskatu dute

Udal Artxiboko webgunera hamabost egunean behin igoko dute argazki bat; edozein zalantza argitzeko: 943 77 91 27

### J.B.L. BERGARA

Uztail hasieran jarri zuten martxan, Udal Artxiboan, Parte Hartu ekimena. Hamabost egunean behin argazki bat igoko dute, argazki horren gaineko datuak biltzeko. "Igoko dugun

argazkia ondo aukeratzea komeni da; herritarren interesekoa izatea, ekintza ezberdinen bat erakusten duena... Gero, erantzunak ondo daudela ere ziurtatu behar dugu, eta hor badago lana", adierazi du Udal Artxi-

boko arduradun Arantzazu Ore-gik. Artxiboko langileek webgunera ([www.bergarakoartxiboa.eus](http://www.bergarakoartxiboa.eus)) igotako argazkiari buruz daturen bat dagoen herritarren bat badago, webguneko irudi azpian agertuko den fitxa osatzeko aukera izango du.

Zalantzarik izanez gero, herritarrek artxiboko arduradunekin harremanetan jarri ahal-ko dira, 943-77 91 27 telefono-zenbakira deituta edo [artxiboa@bergara.eus](mailto:artxiboa@bergara.eus) posta elektronikora mezua bidalita.



Udal Artxibokoek igo duten bigarren argazkia. BERGARAKO UDAL ARTXIBOA

# EAJ: "Gobernantza eredu berririk ez dugu ikusten"

Agintaldiko lehen urtea kritikatu egin du EAJk, eta bereziki salatu du EH Bilduren Udal Gobernuak "behin eta berriz" aldarrikatu duen "gobernantza eredu berriaren" zantzurik ez duela ikusten: "Gure zinegotziek, askotan, prentsaren bidez jasotzen dute informazioa"

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA EAJren udal taldeak kritikatu egin du EH Bilduren Udal Gobernuaren agintaldiko lehen urtea. EH Bilduk hauteskunde kanpainan "behin eta berriz" aldarrikatu zuen "gobernantza eredu berriaren" zantzurik ez dute ikusten jeltzaleek: "Esatea gauza bat da, baina praktikara ez dute eraman eredu berririk. Hasteko, oposizioarekin ez dute informazio gehiena partekatzen eta ez dute elkarlanik bultzatzen. Gainera, gure udal taldeko zinegotziek, askotan, prentsaren bidez jasotzen dute informazioa".

**Elikaenearen esleipena dela eta** Proiektu zehatza goetara etorrira, Oxirondo azokako Elikaenea proiektua gidatuko duen eragilea aukeratzeko orduan Udal Gobernuak jarraitu duen prozedura irmoki salatu du EAJk: "Datorren asteleheneko osoko bilkurara adjudikazio zuzen bat eramango da, nahierara, esaten den moduan, azokan kokatuko den Elikaenea

proiektua gauzatzeko. Enpresa konkretu bati zuzeneko lagapena egingo zaio hamar urtez eta, gainera, urtero 40.000 euroko dirulaguntza emango zaio". Jeltzaleek uste dute lehiaketa publikoa egin beharko litzatekeela Elikaenearen kudeaketa esleitzeko: "Gure eredia ez da hau; gure lehen sektorea bultzatzeko neurriekin eta proposamenekin bat egiten dugu, zalantzarik gabe, baina azokako espazio hori kudeatuko duen enpresa aukeratzeko lehiaketa zabala egin behar da, edonork aukera izan dezan. Eta, Elikaeneaz gain, gaur egun bertan dauden negozioak ere bermatu egin behar dira".

Bestalde, jeltzaleen ustez, premia duen neurrietako bat etxer

**AZOKAKO ELIKAENEA  
"NAHIERARA"  
ESLEITUKO DELA  
SALATU DU EUZKO  
ALDERDI JELTZALEAK**

etxeko gizarte zerbitzua gautara luzatzea da: "Gaur egungo etxer etxeko zerbitzuak hutsuneak ditu eta gauetan zenbait zerbitzuren aukera eskaini behar zaie erabiltzaileei. Gure eredia pertsona erdigunean izatea da, eta aspaldian egin ditugu proposamenak etxer etxeko zerbitzua hobetzeko. Oraindik Udal Gobernuak ez du erantzun integralik eman".

**"Informazio falta" salatu dute** EAJren ustez, "garrantzizkoak" diren proiektuen gainean informaziorik ez dutela diote: "Ez dakigu Arrizuriagako obraren helburua zein den, zertarako izango den edo kultura elkarteentzat lekurik egongo den. Ez dakigu hileta zibilen aukera noizko gauzatuko den edo Agorrosingo hurrengo faseari noiz ekingo zaion. Gehien-oso izateak ez du esan nahi Gobernuak nahi duena egin dezakeenik, herritarrak eta oposizioa kontuan hartu gabe".



EAJren udal taldea osatzen duten sei zinegotziak batzokiaren atarian, eguazteneko prentsa agerraldian. IÑIGO BARRENA



NIRE USTEZ

KARMELE URIBESALGO

## Zahartzen hasia

Noiz uzten diogu gazte izateari? Adin konkreturen bat betetakoan ala gazteek egiten dituzten gauzak egiteari uzten diogunean? Oraindik gaztea naizela esango nuke, baina sanferminetan parrandan atera beharrean egun-pasa joan gara Iruñera. Taberna bat edo beste aukeratzeko orduan, berriz, edaria kristalezko edalontzian ematen zuenaren alde egin dugu. Lagunartean ligatzeko kontuen inguruan jardun ordez, etxean zer xurgagailu dugun kontatzen ibili ginen, eta arropa zuritik kalimotxo orbainak kentzeko gomendioak partekatu genituen.

Oraindik gaztea naizela esango nuke, eta horren erakusle izan daiteke Tiktokeko kontua daukadala. Aurrekoan sare sozial horretan ikusi nuen bideo baten arabera, *pinkie*-ak adin batetik gorakoek janzten ditugula zioen. Gazteek galtzerdi luzeak erabiltzen omen dituzte. Galtzerdi luzeak eta praka zabalak.

Behintzat, badakit norbaitek argazkiren bat ateratzeko eskatzen badit bertikalean jarri behar dudala mugikorra. Zahartzen hasia naizen arren, oraindik ere gaztea naiz.

## OHARRAK

### 2025eko Udalaren egutegian parte hartzea

2025eko egutegia ere herriko argazkizaleen argazkiekin hornitu nahi du Udalak. 2025ean Laboratoriumek hamar urte beteko dituela eta, proposamena da 2025eko egutegia museoarekin lotzea. Baldintzak eta xehetasun guztiak: [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus).

### Automaten erakusketarako bisita gidatuak

*Automatak: mekanismo magikoak* erakusketa dago Laboratorium museoan urriaren 11ra arte. Automatak martxan ikusi nahi dituenak bisita gidatua erreserbatu beharko du. Erreserba egiteko: 943-76 90 03 edo [laboratorium@bergara.eus](mailto:laboratorium@bergara.eus).

### Odola emateko aukera egongo da abuztuan

Odol Emaileen Elkartek jakinarazi duenez, abuztuan ere egongo da aukera odola emateko. Abuztuaren 7an eta 28an egongo da aukera, San Joxepe elkartearen dagoen Arin eguneko zentroan, 16:30etik 20:30era.

### Desfibriladore bat erosi du Udalak

Desfibriladore bat erosi eta zaharkituta zeuden hiru berritu egin dituzte. Gaur egun, hamar daude: horietatik zortzi herrian sakabanatuta eta beste bi eramangarri, udaltzainen eskuetan.

**UGARTE**  
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak  
 Horma-armairuak  
 Altzariak neurritan  
 Ateak · Eskailerak ·  
 Leihoak · Tarimak ·  
 Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**ARROZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
[aroztegia@ugartearoztegia.com](mailto:aroztegia@ugartearoztegia.com)

Enpresa Registrada N°90/025

# "Hasieratik sentitu naiz beste taldekide bat bezala"

**HELENA JONES** IGAMO PACKAGING TALDEAREKIN LEHIATZEN ARI DEN TXIRRINDULARIA AEBetatik etorri den txirrindulari gazteak Lokatza Ziklismo Eskolako Igamo Packaging taldearentzat denboraldiko hirugarren garaipena lortu du Pola de Sieron (Asturias)

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Lokatza Ziklismo Eskolaren harremanei esker eta Munduko Txapelketak prestatzen ari dela-eta, Igamo Packaging taldearekin lehiatu zen joan den asteburuan Helena Jones (Milwaukee, Wisconsin, AEB, 2006) txirrindulari estatubatuarra. Pola de Sieron (Asturias) lehiatu zen Jones joan den asteburuan, eta lasterketako azkarrena izan zen; denboraldiko hirugarren garaipena eman dio Jonesek Igamo Packaging taldeari. Gustura eta eskertuta erantzun ditu Jonesek GOIENAREN galderak.

**Zergatik etorri zara Bergarara ziklismoan lehiatzera?**

Espanian lasterketak egiteko eta esperientzia hartzeko aukera gehiago daude Ameriketako Estatu Batuekin alderatuta. Txirrindulari gisa ahalik eta gehien ikasi eta haztera nator. **Nolako esperientzia ari da izaten?** Askok ari naiz gozatzen, atsegin dut eta munduan zehar bidaiatzea, jende berria ezagutzea eta kultura berriez ikastea.

**Nolako izan da taldearen harrera?**

Itzela izan da, taldekide gisa hartu naute. Erraz egokitu naiz, ohituta nago asko bidaiatzen eta jende berria ezagutzen. Beraz, niretzat ez da arazoa hemen bakarrik egotea.



Helena Jones podiumean garaikurrarekin, Asturiasen. LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

## "BERGARAKO TALDERA ETORRI NAIZ IRAILEKO MUNDUKO TXAPELKETAK PRESTATZEKO"

**Zer azpimarratuko zenuke Igamo Packaging taldearen izaeratik?**

Gehien gustatzen zaidana da taldeko kideak oso gertukoak direla, familia baten antzeko harremana dagoela taldekideen artean. Hasieratik sentitu naiz

beste taldekide bat bezala, eta hori eskertzekoa da.

**Ze helburu dituzu begiz jota epe motz edo ertainera?**

Nire hurrengo helburua irailean jokatu diren Munduko Txapelketak dira. Bergarako taldera etorri naiz iraileko Munduko Txapelketak prestatzeko. Aurrera begira, ahalik eta lasterketa gehienetan parte hartu nahiko nuke, eta, ahal denetan, azkarrena izan helmugan. Eta egunen batean, posible balitz, txirrindulari profesionala izatea litzateke nire ametsa.



Umeei eta gaztetxoei zuzendutako aurreko txapelketa bat. BERGARAKO XAKE ELKARTEA

## Xake txapelketa azkarra bihar, 16 urtetik beherakoei zuzenduta

Xake elkarteak Zabalotegin duen lokalean jokatu da (10:30); bertan edo alde zuzenean eman daiteke izena

**J.B.L. BERGARA**

Begarako Xake Elkarteak 16 urtetik beherakoei zuzendutako xake txapelketa antolatu du biharko, uztailak 20, 10:30ean hasita. Elkarteak Zabalotegiko dorrearen azpian duen lokalean jokatu da txapelketa, eta izena emateko bi modu egongo dira: egunean bertan, 10:00ak baino lehen lokalera hurbilduta; edo alde zuzenean Whatsapp bidezko mezua bidalita -671 84 15 63 edo 618 41 76 25-; antolatzailerentzat aukera hobea da alde zuzenean Whatsapp bidez ematea izena.

**Sariak partaide guztientzat**

Antolatzailerentzat azpimarratu dutenez, 16 urtetik beherako neska-mutikoei dago zuzenduta txapelketa; 2008tik aurrera jaiotakoak, alegia. Ez da beharrezkoa federatuta egotea, umeak eta gaztetxoak xakera hurbiltzea da-eta helburua. Ohikoena den sistema suitzarraren arabera kanporaketak izango dira, eta jokalariek bakoitzak hamar minutu izango ditu gehienez partidako. Jokalari bergararrez gain, Arrasatekoak eta Elgetakoak egongo dira, besteak beste; sariak egongo dira partaide guztientzat.

## Abuztura arte lehiatuko da Bergaran

Lokatza Ziklismo Eskolako Igamo Packaging talde barruan dagoen giro onaren lekuko izaten ari da Helena Jones estatubatuarra Bergaran bizitzen ari den esperientziari esker. Abuztura arte arituko da Bergarako taldearekin lehiatzen eta adierazi du "prestaketa onena" izango dela irailean jokatu diren Munduko Txapelketegi begira.



Helena Jones -garaikurrarekin-, taldekideekin batera. LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA



POL-POL MENDIZALE TALDEA

## Ehun Miliak: boluntarioen lana

Ehun Miliak mendiko lasterketaren zortzigarren edizioa jokatu zen joan den asteburuan, 171 kilometro luze eta 10.500 metroko desnibel positiboan duen proba. Lasterketa posible izan dadin ezinbestekoak dira boluntarioak; bada, lasterketa Bergarako lurretatik igaro zenean, Gorla-Altzasuko postuko 30. kilometroan, 25 bat boluntario -argazkian- izan ziren lanean.

# "Gorputz minduen zauria erakutsi nahi dut"

**ANE LASKURAIN** ARTISTA PLASTIKOA

Artista bergararrak gaur irekiko du argazki eta eskulturez osatutako 'Azalaren sakontasuna' erakusketa, Aroztegin (18:00); abuztuaren 4ra arte egongo da ikusgai

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA  
Lehen aldiz jaioterrian erakusketa propioa jartzearen "zirrara berezia" biziko du gaur Ane Laskurainek (Bergara, 1999), gaur irekiko du-eta *Azalaren sakontasuna* izeneko erakusketa Aroztegi aretoan. Eskulturez eta irudi digitalez osatutako erakusketa da, eta abuztuaren 4ra arte bisitatu ahalko da. **Erakusketa kolektiboak egin izan dituzu, baina honako hau da lehen erakusketa propioa; eta jaioterrian, gainera. Zer sentitzen da?**

Oso gogotsu nago nire lana erakusteko, estudioan ordu luzez egindakoa herrikideekin partekatzeke. Ez dut presio berezirik nabaritzen, nire obra erakusteko gogoia baizik.

**Zer aurreratu dezakezu gaur irekiko duzun erakusketarik?**

Erakusketa hau gorputzen eta bolumenaren inguruan datza. Gorputz minduen zauria erakutsi nahi dut. Gorputz ezohikoak, lodiak, itsusiak eta nazkagarriak



Ane Laskurain artista plastiko bergararra. A.L.

irudikatzea interesatzen zait; gizartean baztertuak diren horiek, azken finean. Erakusketako irudi digitalak eskulturen argazkiak dira. Argazki horiek digitalki manipulatuak ditut. Eskulturekin guztiz erlaziona-

tuta daude, objektu beretik datoz eta. Eskulturak inguruko espazioarekin harremanak dira. Erakusketaren momentuan auzitan jarri nahi dut ikuslearen, espazioaren eta obraren arteko harremana. Lanaren instalazioa



Eskultura eta irudi digital abstraktuak dira erakusketako protagonista. A.L.



## Eskultura eta irudia, eskutik helduta

Abstrakzioaren eremuan eroso dago Ane Laskurain, eskulturaren eta irudi digitalaren artean mugitzen: "Erakusketa bera performance bat da eta argazkiek lotura zuzena dute eskulturekin. Animatu eta etorri Aroztegiara; espero dut gozatuko duzuela".

eta izaera performatiboa interesatzen zaizkit. Hamar irudi digital eta dozena bat eskultura jarriko ditut Aroztegin.

**Ze helburu duzu erakusketarekin?**

Sentitzen eta pentsatzen dudana adierazi nahi dut, eta horretarako baliatzen naiz sorkuntzaz. Nire lana nire buruko kaosa da, baita nire emozioa eta mina ere. Artea bizi-jarrera kritikoa da niretzat, urratzailea, ezohikoa, haratago joaten saiatzeko beste modu bat; oraina eta inguratzen nauen mundua ulertzen laguntzen didana, nire kasuan, espe-

rimentazio plastikoko planteamenduetatik.

**Ezer prestatu duzu irekierarako?**

Erakusketa 18:00etan irekiko da, eta badut asmoa etortzen direnentzat mokadua prestatzeko. Ederra da gazteok herrian erakusteko aukera izatea.

**"SENTITZEN ETA PENSATZEN DUDANA ADIERAZTEKO BALIATZEN NAIZ SORKUNTZAZ"**

## "Musikari erraldoiei omenaldia" Rhythm Shakers taldeari esker

Berumuga zikloaren hirugarren gauaren barruan joko du Madrilgo taldeak; gaur izango da, Espoioan (22:00)

**J.B.L.** BERGARA

Berumuga musika zikloaren 24. edizioaren barruko hirugarren kontzertuaren txanda izango da gaur Espoioan (22:00). Aurreko bi gauetako emanaldiak goi mailakoak izan ziren, eta gaurkoa ez da gutxiago izango, Rhythm Shakers taldeak joko du eta. Antolatzaileek aurreratu dutenez, kantu ezagunen bertsoak topatuko ditu gaur Espoioira joaten den musika-zaleak: "Rhythm Shakers taldekoek maisuki interpretatzen dituzte soularen, rockaren eta rock eta bluesaren

artistarik handien klasikorik onenak eta ezagunenak. Beste aukera paregabe bat goi mailako talde bat gertutik gozatzeko".

**Raquel Garcia abeslaria buru**

Espanian izen handia duten taldeetako kideez osatutako taldea da Rhythm Shakers -Los Reyes del KO, La Vaca Azul, Tequila...-, eta Raquel Garcia abeslari indartsua du buru. "Zuzeneko berezia" eskaintzen dute: "Soul, jazz eta rhythm and blues musikaren erraldoiak izan diren musikariei benetako omenaldia



Raquel Garcia abeslaria buru duen Rhythm Shakers taldea. GAZTELUPEKO HOTSAK

egiten die: Amy Winehouse, Otis Redding, Elvis Presley, Aretha Franklin, Ray Charles, Stevie Wonder, Alicia Keys, Bob Marley, Bill Withers, Sam Cooke, Etta James, George Michael, M. J. Blide, Al Green eta Eddie

Floyd, besteak beste; dantzan egiteko ez da aitzakiarik egongo.

Berumuga zikloaren 24. edizioa datorren egubakoitzean amaituko da, Euskal Herriko talde batekin: Northagirres. Garage eta rock doinuekin etorriko dira.

## Banda: Antzuolako jaietan bihar eta frontoian domekan

Bergarako Bandak hitzordu bi-koitza izango du asteburuan. Bihar, Antzuolako jaien barruan joko dute; 11:30ean kalejiran irtengo dira eta 12:30ean kontzertua emango dute Zurrategi plazako kiosko berrituan.

Domekan Bergaran emango dute kontzertua, udal pilotalekuan (12:30). Enrike Txurruka zuzendaria min hartuta dagoela-eta, Igor Larrañagak zuzenduko ditu asteburuko bi kontzertuak. Urduri bezain gogotsu dago Larrañaga: "Erantzukizun handia da eta badago urduritasun puntu bat, baina ederra izango da". Antzuolako eta Bergarako kontzertuetan seina pieza joko dituzte.

# Umeak eta gazteak, jaiei hasiera ematen lehenak

Udalekuak amaitzearekin batera hasten dira herriko jaiak, gazteen txupinazoarekin. Hala izan da aurten ere, baina arratsaldeko hitzorduan batu ohi da jende gehiago. Festak, gainera, etzi arte iraungo du, hainbat ekintza izango baitira datozen egunetan

## Amaia Ramirez de Okariz

### Kortabarria ANTZUOLA

Beste urte batez, udalekuetako gazteek eman diete hasiera Antzuolako jaiei. 12:30ean bota zuten atzo txupinazoa, Olatz Lezeta alkatea alboan zutela, eta jaiak ondo pasatzeko mezua zabaldu zuen. Hauxe adierazi zuten gazteek ere: "Gogotsu gaude jaietarako, baina petardoak azkar gastatzen zaizkigu. Ama, aita, izeba, osaba... ongi bete poltsikoak pagarako!". Ondoren, ikuskizunen tartea izan zen: mailaz maila igo ziren oholtza gainera.

20:00etako txupinazoa izan ohi da, ordea, herritar gehien batzen dituen unea, orduan egiten baita ikurrin dantza eta udalbatzaren soka dantza; nabaria izaten da urduritasuna ordu horretan zinegotzien artean, ez baita edonolako lana herritarren aurrean banan-banan dantza egitea.

### Datozen egunetan, gehiago

Datozen hiru egunetan ere ez da egitekorik faltako herrian, ekintzaz beterik baitaude jaiak. Gaur, esaterako, herriko gazteenek izango dute zertaz gozatu, ur parkea jarriko baitute Herriko Plazan; beraz, bainujantzia, txankletak eta toalla eramateko eskatu du Udalak.



Umeen eta gazteen txupinazoa atzo goizean, Herriko Plazan. A.R.K.

Gainontzean, lagunartean batzeko eguna izan ohi da: bazkariak egiten dituzte kuadrillek, eta aurten, gainera, herri bazkaria egingo dute bigarrenez. Kuadrillen arteko jokoek ere ez dute hutsik egingo arratsaldean: lokotx bilketa, zaku lasterketa, harri jasotzea, txingak eramatea, giza proba eta arrautzaren jokoa. 18:00etan izango da, Zurrategi plazan, Deiar dar txarangaren soinuaren pean.

Zapatuan, berriz, Bergarako banda -11:30ean da kalejira eta 12:30ean kontzertua- eta Antzu-

lako Alardea -19:00etan- izaten dira protagonista nagusiak, Joselu Anayak taldearen kontzertuarekin eta txosnaguneko musika eskaintzarekin batera.

### Domekan, bigantxak

Bi ekintza nabarmen izango dira etzi: batetik, bigantxek hartuko dute lekua, 18:00etan, Ondarreako plazan, han egiten baitziren garai batean zezenketak; bestetik, Gariren kontzertua izango da 21:00etan, eta saio "xumea, berezia eta biluzia" izango dela aurreratu du musikariak.

## Datozen egunetako egitaraua

Dozenaka ekintzarekin hasi zituzten atzo antzuolarrek herriko jaiak, baina izango dute zer egina datozen egunetan ere, domekara arte iraungo baitute.

### Uztailak 19, egubakoitza

- 10:00 Alboradak txistulari taldearen goiz-eresia.
- 11:00-13:00 Ur parkea, Herriko Plazan.
- 12:00 Meza.
- 13:30 Ur zezena.
- 14:30 Herri bazkaria, Kalebarrenen.
- 16:30-18:30 Ur parkea, Herriko Plazan.
- 18:00 Kuadrillen arteko jokoak, Zurrategin; aldi berean, Deiar dar elektrotxaranga.
- 22:00 Erromeria Lisker taldearekin, Herriko Plazan.
- 22:00 Kontzertuak txosnetan: Burugabe, Neallta Fola eta Argitu erromeria taldea.

### Uztailak 20, zapatua

- 10:00 Kanoiak sutzea eta diana.
- 11:30-13:30 Kulkiren jolasak, Herriko Plazan.
- 11:30 Bergarako Bandaren kalejira, Enrike Txurrukaren zuzendaritzapean.
- 12:30 Bergarako Bandaren kontzertua, Zurrategin.
- 13:30 Ur zezena.
- 19:00 Antzuolako Alardea.
- 20:30 Hamarru elektrotxaranga, txosnetatik.
- 22:30 Kontzertuak txosnetan: Harrikada, Dirty Old Gasteiz eta DJ Kepix.
- 22:45 Joselu Anayak taldearen kontzertua, Herriko Plazan.

### Uztailak 21, domeka

- 07:00 Patxangoi elektrotxaranga, txosnetatik.
- 12:00 Salda eta txorizoa, Landatxope jubilatuen elkarteak antolatuta, Herriko Plazan.
- 12:30 Chiringones de la Rencle, Herriko Plazan.
- 14:30 Herri bazkaria, elizpean, Ez Dot Moztuko Bizarra taldeak antolatuta; ondoren, Asier Sala eta Garazi Barrena musikarien kontzertua.
- 18:30 Zezenak, Ondarreako plazan.
- 20:00 Larrain dantza, Oinarin dantza taldearen eskutik,
- 21:00 Gariren kontzertua, Herriko Plazan.
- 23:00 Hontzaren igoera.

Barrakez gozatzeko aukera ere domekara arte egongo da, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 01:00etara. Orduan izango da, gainera, haurren eguna, eta, beraz, 1,30 euro ordaindu beharko da bidaiako; gainontzeko egunetan, hiru eurokoa izango da prezioa.

## Kalebarrengo iturria konpondu egin dute, hontz bat protagonista

Udalak azaldu duenez, herriko "sinbolotzat" dute askok hontza, eta horregatik hautatu dute haren irudia

### A.R.K. ANTZUOLA

Kalebarrengo iturria zaharberritzeko erabakia hartu zuen Antzuolako Udalak, eta azken asteetan horretan aritu dira, kioskoko lanekin batera: harrizko oinarria eta barne-hodiak

berritu dituzte, baita zati metalikoa ere. Horrez gain, bi arrain-buru zituen alboetan; bada, brontzeko hontz baten burua gehitu diote berrikuntzat aurrealdean, ura haren mokotik atera dadin.

Hain justu ere, atzo, uztailak 18, inauguratu zuten iturria, jaietako lehenengo egunean; hontzaren jaitsieraren egun berean, alegia.

### Lanen arduradunak

Valen Moñux udal arkitekto teknikoak diseinatu du hontza, eta Zabalo Igeltserotza, Zabalo Iturgintza eta Azpeitiko Ona Montaiak galdaragileak aritu dira jardunean; hontzaren galdaketa, berriz, Avilesko (Asturias) Auriga etxeak egin du.



Atzo eguerdian inauguratu zuten iturri eraberritua. A.R.K.





GI-632 errepidea, Errekalde auzoaren parean; bidea estutu egin dute, eta oinezkoentzako pasagunea egokitu. A.R.K.

## GI-632 errepidean lanak, abiadura motel dadin

Errekalde auzoaren eraberritzearen ondoren, oinezkoek gehiago darabilte errepideko pasagunea; euren segurtasunerako, islak zabaltzeaz gain, pasagunea egokitu, 42 pibote jarri eta lurra margotu dute. Ibilgailuak behartuta daude abiadura moteltzera

A.R.K. ANTZUOLA

GI-632 errepidean, Errekalde auzoan, lanak egiten aritu dira azken asteetan Orsa enpresako langileak, ibilgailuen abiadura "oso handia" zela antzeman baitzuen Antzuolako Udalak, eta, ondorioz, horrek oinezkoengan eragina izan zezakeela, bidea gurutzatu behar izaten baitute Lazaretoa zegoen eraikinaren eremuan eginiko aparkalekura eta alboko parkera joateko. "Ibilgailuen abiadura jaistea izan da helburua oinezkoak errespetauzeko, Errekaldeko obren ondoren –otsailaren amaieran bukatu zituzten, gutxi gorabehera– argi ikusi baikenuen arriskutsua izan zitekeela eremu hori auzotarrentzako zein industriagunera doazenezako. Hala, lehen-tasunetan sartzea erabaki genuen", adierazi du Aritz Igeltzek, Hirigintza zinegotziak.

Haren hitzetan, Udalaren erabakia izan da lan horiek egitea. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako

saileko arduradunekin batzartu ziren, arazoa nola bideratu zezaketen erabakitzeke, eta euren batera adostu zuten zehaztutako lanak egitea: "Errepidean zeuden oinezkoen babesguneei zabalera handiagoa eman diegu –errepidea estutuz, aldi berean–, oinezkoen pasagunea egokitu dugu, 42 pibote jarri ditugu eta lurra margotu dugu". 46.000 euroko aurrekontua izan dute hori guztia egiteko, eta %70 dirulaguntzei esker ordaindu dute.

### Oinezkoentzako bidea

Era horretan, Igeltzek azpimarratu du seguruagoa dela orain errepidea hura igaro behar duten oinezkoentzako: "Beharrezkoa ikusten genuen errepidea guru-

**46.000 EUROKO AURREKONTUA IZAN DUTE OBREK; %70 FINANTZATU DA DIRULAGUNTZEKIN**

tzatzeko oinezkoentzako pasagunearen erdian deskantsu moduko oinezkoen babesgune bat egitea; hori gabe bazirudien errepide osoa alde batetik bestera gurutzatu behar zela jarraian, behartuta". Haren arabera, egungo errepideak ez du lehengoarekin "zerikusirik", Errekalde auzoko eraberritze lanek aldatu egin dituztelako mugikortasun eta irisgarritasun ohiturak; adibidez, aparkalekuarengatik: "Orain, oinezkoek ere erabiltzen dute, eta horrek esan nahi du abiadura murriztu egin behar dela ezbeharririk suerta ez dadin".

### A-636 errepidea

Lanak egingo dituzte A-636 errepidean ere, Antzuolan, Bidegiren ardurapean: batetik, Beasaingo noranzkoan dagoen galtzadako lur-jausi bateko lerradura egonkortu egingo dute, harri lubetazko horma bat jarrita; bestetik, Antiguako biaduktua iparraldeko estribuko betelanak egingo dituzte.

## Xalbador Olabarria eta Josefina Edo omendu ditu Landatxoek

Jubilatuaren urteko bazkaria egin zuten hilaren 14an, eta eskerrak eman dizkiete orain arteko boluntarioei

A.R.K. ANTZUOLA

Landatxoek jubilatu eta pentsiodunen elkarteak antolatuta, urteko bazkaria egin zuten joan den domekan, uztailek 14, eta "egun pozgarria" izan zela azaldu dute antolatzaileek. Bazkalondoren, gainera, ohitura izaten da bazkarian dauden bi pertsona helduenei herriko jaietako zapia jartzea, eta horrela izan da aurten ere: Xalbador Olabarriak eta Josefina Edo *Pepita*-k jaso zuten. Olabarriak, ostean, kantuan egin zien han zeudenei, euren gozamenarako.



Olabarria eta Edo. IMANOL SORIANO

### Boluntarioei eskerra

Boluntarioak izan ohi dituzte laguntzaile bazkarian urtero, hala nola mahaiak jartzen laguntzeko, zerbitzatzeko eta batzeko. Aurten, ordea, boluntarioek ez zutelako behar erabaki zuten elkarteko kideek, bazkaria

"beste era batera" antolatuta. Beraz, orain arte laguntzen aritu direnei eskerrak eman dizkiete: "Eurek urtero eman diguten laguntza eskertu nahiko genuke batzordekoek, bene-benetan, oso lan ona egin dute-eta aurreko urteetan.

## Aldaketak izango dira etzi arte trafikoan eta hondakin zerbitzuan

Kalebarrenetik hasi eta Buztinzuriraino itxita dago errepidea, baita Sagastitik –eskola atzetik– udal pilotalekuaren osteraino ere; domekan, berriz, ezingo da aparkatu ez Ondarren, ez Ondarre eta herriko plaza arteko bidean. Hondakinei dagokienez, gaur ontzi arinak atera beharko dira; bihar, organikoak; eta etzi, errefusa.

## Martitzenean, hilaren 23an, garbituko dute erreka auzolanean

Uztailaren 27an, zapatua, ziren erreka garbiketa egitekoak auzolanean, Antzuolako Udalak antolatuta. Hala ere, jakinarazi dute data aurreratu dutela; hala, datorren martitzenean, hilak 23, izango da, 15:00etatik aurrera. Herritarrei hara gerturatzeke deia egin diete, erreka garbitzera eta, aldi berean, ingurunea zaintzera.

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

MUJIKA  
HARATEGIA

Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34



Neska-mutiko talde bat zuri-gorritz eta zezenaren buruhandiarekin, San Fermin eguna ospatzeko prest.



Elgoibarko ur-txorrotetan jolasen.

# Eguazteneko amaiera festarekin agurtuko dituzte udaleku irekiak

Aurten ere eguraldiak baldintzatu ditu, baina aurreikusitako ekintza ia guztiak egin dituzte eta hezitzaileek gidatuta askotariko jolasak, irteerak eta ekintzak izan dituzte neska-mutikoek. Bost astez ia ehun erabiltzaile izan dituzte udaleku irekiek

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA Laster, hilaren 24an, beteko da hilabetea Udalak antolatutako udalekuak martxan direla. Bost astez elkarren ondoan hainbat jolas, irteera eta ekintza egin ostean, eguaztenean egingo dute amaiera festa. Aurten ez dute agurrerako familiendako amaiera jaialdirik egingo. "Karaoke eta dantza jaialdia egingo dugu. Gure artean egingo dugu, eta jatekoa ere izango dugu", azaldu du Paula Palacios hezitzaileak. Astelehenetik eguaztenera arteko jardunak dituzte oraindik aurretik. Zikin jolasak, irteera bat –talde bakoitzak berea– eta agurreko festa dituzte programan. "Udalekuak ondo joan dira. Eguraldiaren erruz ez ditugu aurreikusitako ekintza guztiak egin, baina gehienak bai", azaldu du Nerea Villa koordinatzaileak. "Arrakasta handiena ur

putzuek, Elgoibarko igerilekura egindako irteerak, futbol torneok, Asentziara egindako txangoak eta San Fermin jaien inguruko ekintzek izan dute", esan du. HH-2 eta LH-6 arteko umeak ibili dira udalekuetan. Guztira, 97 ume, nahiz eta ez diren guztiak bost astez erabiltzaile izan. Gehien egon diren astea bigarrena izan da, uztailaren 1etik 5era; aste hartan 89 neska-mutiko izan zituzten ardurapean zazpi hezitzaileek.

Eskola eta ludoteka izan dituzte elkargune: txikieneak, eskola; eta nagusiagoak, ludoteka.

**EGURALDIK AUKERA EMAN DUEN GUZTIETAN AIRE ZABALEKO EKINTZAK EGIN DITUZTE**

**Aire zabaleko ekintzak** Eguraldiak horretarako aukera eman duen guztietan aire zabaleko ekintzak egin dituzte talde guztiek, eta asteotan nabari izan da umeen presentzia herriko kale eta txokoetan. "Txikiak oso gustura ibili dira bolatokian, Larrabil zeharrean, urmael inguruan eta goiko parkean", azaldu du Villak. Nagusiagoak, berriz, beste maila bateko irteerak egin dituzte eta, besteak beste, Intxorta Txikin eta Egoarbitzan izan dira.

Udalekuen aurretik umeekin landutako parte hartze prozesutik irten zen, bestalde, hainbat proposamen zituztela. Eskatu zituzten, besteak beste, irteera bat igerilekuetara, *escape room* saio bat eta gaubeila. Hirurak txertatu ziren udalekuetako programazioan, eta egindako lehen balorazioa positiboa da.



Urmaelaren gunean intsektuei begira.



Irteera batean.



Hamarretakoa goiko parkean.



Intxorta Txikira egindako irteera. ARGAZKIAK: ELGETAKO UDALEKUAK

# Azken egunak udako irakurgaiak mailegatzeko

Abuztuko oporrak direla-eta uztailaren 31n itxiko ditu atea liburutegi zerbitzuak, eta irailaren 2an zabalduko ditu berriz. Gaur egun, eleberrri beltza da erabiltzaile askoren lehen aukera oporretarako. Gogoratu behar da zerbitzuak ordutegi berezia duela egunotan

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Hauek dira azken egunak Elgetako liburutegian abuzturako maileguak egiteko. Gaur, bariakua, 10:00etatik 13:30era izango da liburutegia zabalik. Datozen bi astelehenetan, 14:30etik 20:30era; eta hilaren 23an, 24an eta 30ean, 10:00etatik 13:30era.

**Irailera arteko itzulera epea**

Abuztuan liburutegia itxita egongo denez, hilabete pasatxoko itzulera epea ematen ari da egunotan liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeleta: "Igartzan da jendea, orain, udarako irakurgai bila etortzen dela. Irakurle kopuruari dagokionez esango nuke orokorrean emakumeak gehiago direla, bai umeetan bai helduetan. Arrakasta handiena duten literatura generoari dagokionez, gaur egun genero beltza da nagusi. Historikoa ere asko mugitzen da Elgetan, baina genero beltza da arrakastatsuen". Ezpeletak nabarmendu du gazteleraz gehiago mailegatzan dela euskaraz baino.

Araua dio erabiltzaile txartel bakoitzarekin gehienez hiru liburu mailegatu daitezkeela batera, baina malgutasunez jokatzan dute Elgetako liburutegian: "Liburutegia hilabetez itxita egongo denez, hirutik gora eramaten ere uzten dugu; liburuak irakurtzeko eraman nahi duen horrek merezi du begirune hori".

**Eskaintza digitala**

Pandemian digitalak gora egin zuen eta Elgetan ere nabarmen egin zuen gora eLiburutegian egindako mailegu kopuruak. Ostean datuek behera egin badute ere, eLiburutegiari urterik urtera erabiltzaile gero eta gehiago dituela dio Ezpeletak.

Interneten bidez eduki digitalen irakurketa errazten duen plataforma bat da eLiburutegia. Irakurketa hori streaming bidez, ordenagailuaren bitartez edo



Liburutegian ikusgai dagoen heziketa digitalari buruzko interesgunea. LIBURUTEGIA

## GENERO BELTZAK DU ARRAKASTA HANDIENA ELGETAKO ERABILTZAILEEN ARTEAN

gailu mugikorrek direla medio egin daiteke. Etxeko ordenagailutik, tabletatik eta sakelakotik jaitsi daitezke liburuak eLiburutegitik. Zerbitzu horretara sartzeko helbide elektronikoa hau da: <https://www.euskadi.eus/ac37aELiburutegiaPublicaWar/>.

"Erabiltzailea eta pasahitza behar dira eLiburutegian mailegua egiteko", azaldu du Ezpeletak. "Erabiltzailea bazkide txarteleko zenbakia izan ohi da; heldu gehien kasuan nortasun agiriaren zenbakia da. Pasahitza, berriz, sisteman sartzekoan norberak emandakoa da. Pasahitza ahaztu badugu, edozein liburutegitan eman diezagukete berri bat. Hala, eLiburutegian liburu elektronikoa, film eskaintza zabala, aldizkariak, audio liburuak eta abar mailega daitezke".

Liburutegiko erabiltzaileek jakin behar dute, bestetik, Elgetako liburutegiko bazkide txartela erabil daitekeela liburutegi sareko beste edozein liburutegitan. Ordutegi aldaketarekin, baina inguruko liburutegi asko zabalik daude abuztuan. Horien artean dira Elorrioko, Eibarko, Arrasateko eta Ermuko liburutegiak –goizez zabalik astelehenetik barikura–.

**Interesgunea eta erakusketa**

Liburutegia beste bost egunez egongo da zabalik, eta, hain zuzen, ikusgai jarraitzen dute heziketa digitalari buruzko interesgune bereziak zein sendelarren erakusketak. Interesgunean hainbat irakurgai proposatzen dira eta horrekin batera baita udan pantailen erabilera murrizteko Altxa Buroa Elgeta lantaldeak landutako eskuorria ere. Hamar proposamen jasotzen dira bertan; tartean dira jakinarazpenak isiltzea, behar-beharrezkoak ez diren aplikazioak kentzea, gauean gailua deskonektatzea eta erlojuaren, iratzargailuaren eta linternaren erabilera berreskuratzea.



ANTOLATZAILEAK

## Gaztetxoak pozik tiraldi ostean

Dozena bat neska-mutikok hartu dute parte umeendako propio antolatutako tiraldian. "Txirloak bost bat metro aurreratuta egin dugu txapelketa, eta gehienek jo dute txirlo bat edo beste. Berdinketa hausteak ere jokatu dituzte", azaldu du Sebastian Aranzabalek. "Gustura ibili dira umeak. Guztiek jaso dute saria".

## Udazkeneko azoka irailaren 21ean izango da aurten

Dozena bat postu izan ziren iaz egindako azokan, eta aurten ere antzerako kopuruetan ibiltzea da asmoa. Elgetako zein inguruetako ekoizleak elkartu ziren. Aurtengo azoka irailaren 21erako iragarri dute, eta goizez egingo dute, hainbat baserriarren eta artisauen parte hartzearekin.

Data jarrita badago ere, irailean hasiko dira izen-ematearekin.

Aurreko urteetan mahaia jarri duten herritarrek abuztu amaieran edo irail hasieran jasoko dute gonbidapen-gutuna gogorazpenarekin. Gainerakoek udaletxera jo beharko dute izena emateko zein mahaiak eskatzeko. Egun osoko egitaraua prestatu ohi dute udazkeneko azokaren bueltan. Umeendako tirolina, Intxortako Igoera eta patata-tortilla lehiaketa izan ziren iaz. Irailean argituko da zein izango den aurtengo Udazken Jaiko egitaraua.

## Deba eta Zumaia arteko ibilbidea domekan

Deba eta Zumaia arteko ibilbidea proposatu du Kantsatzeke Mendi Taldeak domekarako, hilak 21. Itsas bazterretik egingo dute txangoa. Lau bat orduko irteera izango dela aurreikusten dute eta ibilbide errazkoa dela aurreratuta dute antolatzaileek. Taldea 07:45ean abiatuko da Elgetatik. Zumaian hartuko dute Debarako tren.

## Baserri inguruko plastiko biltzea martitzenean

Debagoieneko Mankomunitateak ematen du zerbitzua eta martitzenerako, hilak 23, iragarri dute. Arratsaldez utzi behar dira plastikoak aurrez telefonoz adostutako lekuan. Hala, ezinbestekoa da eskaera egitea, 943-76 25 47 telefono-zenbakira deituta. Siloetarako, belar boletarako eta berotegietarako erabilitako plastikoak batuko dituzte.

**Oihana Elortza Gorostiza OÑATI**

Herriko auzoko jaien zerrendara batu da Santa Marina. Aste honetan egin du batzordeak azken bilera eta datorren aste-buruaren zain daude, ilusioz.

**Santa Marina begien bistan**

80ko hamarkada hasieran ere egin zituzten jaiak auzo horretan, eta haiek berreskuratzea erabaki dute bertako auzotarrek. Joan den udazkenean hasi ziren aurretik zetorren gogo horri forma ematen, eta Gabonen ostean hasi ziren ofizialtzeko tramiteak egiten, egitaraua osatzearekin batera. Hilaren 26tik 28ra egingo dituzte eta Santa Marinako plaza izango da erdigunea. "Puntu hori ze kaletatik ikusten den, kale horietako kideak sartzen dira Jai Batzordean. Hau da: Euskadi etorbidea, Kurtzebide, Patrua kalea, Portu kalea, Lope Agirre eta Bakardadearen Ama kalea", dio batzorde horretako kide Alaitz Lazkanoiturburuk. Moia kalea ere sartu dute aurten, nahiz eta orain arte Errekaldoko jaien barruan egon. Gero non sartuko den adosteko dute oraindik, baina litekeena da bi auzoetako jai batzordeen arteko lehia bidez erabakitzea.

**Taldeetan banatuta**

35 urtez azpiko ia 50 bat lagun dira Jai Batzordean eta lau taldeetan banatuta egin dituzte jaiak antolatzeke egin beharreko lan guztiak. "Plazako ertz batean jarriko dugu oholtza eta erdian, iturriaren ondoan, txosna. Elkar Hezi ikastetxeak biltegi moduan erabiltzeko utzi digu beheko espazioa, eta gaztetxe sukaldia erabiliko dugu, adibidez, luntxa prestatzeko. Portu tabernan saldu ditugu txartelak, eta mus txapelketa, berriz, Gure Txoko elkartean egingo dugu. Saiatu gara auzoak dituen espazioak erabiltzen. Karro-poteoa ere antolatu dugu, eta hainbat kaletan barrena egingo da. Egia esan, ez dugu zailtasunik izan jaiak antolatzeke. Laguntzak jaso ditugu eta auzotarrak ere prest daude ekitaldiren batean edo bestean, beharra dagoenean, laguntzeko".

Santamaña jaietako egitarauan zuzeneko musika emanaldiak, umeendako jolasak eta herri bazkaria ere jasota dituzte. "Oso harrera ona egin diete auzotarrek jaiari, eta uste dugu herri bazka-



Santa Marinako Jai Batzordeko hainbat kide auzoko plazaren iturriaren aurrean. SANTA MARINAKO JAI BATZORDEA

# Santa Marinak ere izango ditu bere jaiak

80ko hamarkada hasieran ospatu ziren azkenekoz Santa Marina auzoko jaiak, eta haiek berreskuratzea erabaki dute auzotarrek. Uztailaren 26tik 28ra ospatuko dira aurtengo santamañak, eta erdigunea auzoko plaza izango da

rian giro ona egongo dela", dio Lazkanoiturburuk. Auzo guztiek jasotzen dute berezitasunen bat euren egitarauan, eta santamañetakoan *korri-kaña* prestatu dute: tragoa txosnan hartu eta plazari itzulita korrika egiteko jolasa.

**Data jartzerakoan**

Uztailaren 18a da berez Santa Marina eguna, baina asteburu honetarako data Santxolopezte-gikoez zuten gordeta euren jaiak antolatzeke, eta, "antzinatasuna errespetatuz", astebete geroago, hurrengoan ospatuko dira san-

tamañak. Hemendik aurrerago datak auzo bien artean adostuko dituzte. Otsailean egin ohi dute bilera auzoko jaietako egitaraua zehazteke. Landaguneko eta herriguneko auzoetako jai batzordeetako kideak elkartzen dira orduan.

## "Zezenak eta txosna, biak jarri genituen toki berean, plazan"

JEXUX ARREGI SANTA MARINAKO AUZOTARRA

Oroitzapenean ditu Santa Marinako lehen jaiak Jexux Arregik (Oñati, 1962). Lehen jaietako komeriak, batez ere. Azkenak 1984an egin zirela du gogoan.

**Nolakoa izan zen hasiera?**

Roberto Aranguren *Tobi*, Kote Mendizabal eta hirurok ginen, 1979an. 17 urte genituen, eta zozketa bidez erabaki genuen nork sinatzen zituen baimenen paperak; bada, *Tobi*-ri tokatu zitzaion.

**Zer antolatu zenuten?**

Zezenak ekarri genituen, eta ez dakit nola, baina txosna



J.A.

iturriaren kontra jarri genuen, justu zezenak zeuden tokian, eta, noski, inor ez zen txosnara hurbiltzen. Hurrengo urtean ikastetxearen beheko patioan jarri genuen txosna. Kontzertua

ere egon zen. Basakabi taldea ekarri genuen, oso famatua. 150.000 pezeta eskatu zizkiguten, baina ez genuen horrenbeste, eta 100.000 pezeta eman genizkien.

**Txosnan diru gutxi, beraz...**

Zenbat edari hartu ere ez genekien. Aroztegiaren erabiltzen genuen karro batekin joaten ginen Elviranera, ardandegira, edari bila, gastatu ahala; baina goizeko ordu bietan ere.

**Dirulaguntzarik izan zenuten?**

Auzotarrek asko jarri zuten, bai. Udalak, ezer ez. Obretan zeuden udaletxean, eta kultura etxera eramanda zituzten bulegoak. Han eman ziguten gutun-azala, baina udal langile batek bere poltsikotik jarritako dirua zen hura: 100 pezeta.

## Arratsaldean botako dute madalenak ospatzeko etxafuegoa

Madalena jaiak ospatuko dituzte Santxolopeztegi auzoan gaur, egubakoitza, hasi eta domekara bitartean. Auzolanean hasiko dituzte jaiak, 16:00etan, eta ordu erdi geroago botako dute etxafuegoa. Musika eskaintzari begira, Arrasateko Iskanbila, Bilboko Sembrando Kaos eta DJ Elvis Caino egongo dira gaur. Zapatuan, Gozategi.

## Burjasoteko bandarekin joko du Oñatikoak domekan

Valentziako Burjasoteko bandarekin elkartrukea hasiko du Oñatiko musika bandak. Asteburuan valentziarrak izango dira Oñatin, eta, lo Bilbon egingo duten arren, Oñatin emango dituzte zapatua eta domeka. Herria bisitatuko dute zapatuan eta banda biek kontzertua egingo dute domekan, Lazarragan, 13:00etan.

## Tolosako Txaston Dixie Band taldeak joko du San Martinen

Kalean egitarauaren barruan, irailera bitarteko azken kontzertua izango da datorren eguaztentean. San Martin auzoan izango da oraingoan eta emanaldia Tolosako Txaston Dixie Band taldeak egingo du. Tuba, tronboia, saxo tenorea, saxo altua, klarineta, gitara, banjoa eta bateria entzungo dira AE-Betako hegoaldeko doinueta.

## Herri Egunean postuak jartzeko izena eman daiteke

Herri Egunean unibertitate zaharraren inguruan ogia, euskal pastelak, gaztak eta bestelako jakiak eta produktuak saltzen jartzeko postua jarri gura izanez gero, izena eman behar da Oñatiko udaletxean, eta horretarako epea dagoeneko zabalik dago. Irailaren 16a izango da azkeneko eguna. Herri Eguna urriaren 5ean ospatuko da.



Ganbara abesbatzako kideak Adunako estudioan, domekan, grabaketa egunean. GANBARA

# Umama proiektuan ere hartu du parte Ganbarak

Juantxo Zeberioen 'Umama Eguberri 2' proiektuan hartu du parte Ganbara abesbatzak. Gabonetako zortzi pieza jasotzen ditu lanak eta horietako zazpitan egin ditu koroak Oñatiko abesbatzak. Dagoeneko bi emanaldi dituzte lotuta abendurako

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Ez dira geldi egotekoak Ganbarako kideak. Juantxo Zeberioen *Umama Eguberri 2* diskoan sartu dira orain eta lan horretarako grabazioak egin berri dituzte. Adunan pasa zuten joan den domeka Ganbarako abeslari askok, disko horrek jasoko dituen piezak abesten.

## Zortzitik zazpitan

Zortzi pieza jaso dituzte disko horretan eta horietatik zapitan abesten du Ganbarak; besteak beste: *Birjina maite*, *Kanta aleluia*, *Gaueko izar*, *Haur eder baten bila* edo *Abenduko hilaren kantak*. Piezak Juantxo Zeberio berak moldatu ditu, eta Ganbarak prestatu. "Duela hiru hilabete inguru hasi ginen lanean kantekin, gure kasa ikasi ditugu moldaketak eta hamabost bat egun dela etorri zen Zeberio guk landutakoa ikustera eta doitzera. Jazz taldea, hari laukotea, haize bidezkoak, harpa bat eta organoa dira, esaterako, entzu-

ten diren musika instrumentuak, musika egiten dutenak, eta koroak Ganbarak egin ditu. Asteburuan izan gara prestatuko hori grabatzen. Elkarrek Adunan duen estudioan egin ditugu grabaketak, Victor Sanchez teknikariarekin eta Zeberioekin batera", azaldu du Ganbarako zuzendari Aitor Biain Bidartek. Egun osoko lana, baina "berezia Ganbararendako".

## 2003tik datorren proiektua

Hogeita bat urte pasa dira Juantxo Zeberio Umama proiektua sortu zuenetik. 2003an egin zuten *Umama 1* lana, hainbat kanturen moldaketekin, jazz estiloko musikariek eta orkestra txiki batekin. Haren

## TOLOSAKO LEIDORREN ETA IRUÑEKO GAIARREN EMANALDI BANA EGINGO DUTE DATORREN ABENDUAN

ostean, *Umama 2* etorri zen, 2007an, pieza berriekin, eta 2013an beste norabide bat hartu zuen proiektuak: *Umama Eguberri 1* lana kaleratu zuten orduan. Aurten, 2024an *Umama Eguerri 2* egingo dute, eta hor hartu du parte Ganbara abesbatzak. "Oso esperientzia atsegina izan da. Konponketak politak dira, argi asko dute, magikoak dira, eta Gabonerrako oso produktu polita izango dela uste dut", dio Biainek.

Juantxo Zeberioen egitasmo horretan parte hartzeari balioa eman gura izan dio Biainek, etorkizunera begira ate berriak irekitzeko lagungarria izango zaielako, haren esanetan. Gainera, kontzertuak egitea da asmoa, eta horrek beste kolaborazio batzuk ere ekarriko dizkio Ganbarari. Dagoeneko, gainera, lotuta dituzte bi emanaldi datorren abendurako: abenduaren 20an Tolosako Leidorren izango da bat eta 23an Iruñeko Gayarren bestea.

## NIRE USTEZ



ESTEBAN IRUSTA MALLEA

## Zertan ari gara?

Asko gara galdera hau egiten dugunok. Gero eta gaztelania gehiago entzuten da gazteen eta ez-gazteen artean gure kaleetan. Edo, bestela esanda, gero eta euskara gutxiago egiten da. Eta antzeko zerbait gertatzen omen da ikastetxeen giroan ere. Irakurketa arloa aipatuz, zenbakiak oso eskasak dira. Oso gutxi irakurtzen da; euskaraz, batez ere. Baten batek esan dit, umorez, Euskal Herrian irakurleak baino idazle gehiago daudela. Panorama ez da baikor izatekoa. Bizkarrean urte batzuk gehiago dauzkagunok diktadura gogorra bizi izan genuen eta militantzia politikoan bizitzea tokatu zitzaigun. Eta, nolabait, gurasoek, alde batetik, eta irakasleek, bestetik, denok, neurri batean edo bestean, geure abertzaletasuna transmititzen genuen. Gaur egoera beste bat da, eta ez da sentitzen militantzia baten beharrik. Baina euskararen bizirauteak arriskuan jarraitzen du. Aurkariak beste era batekoak dira; ez hain agerikoak. Baina Euskal Herria bizirik nahi badugu, ez hiltzorian, abertzaleok geure hizkuntzaren, gure kulturaren alde arduraz jarraitu behar dugu. Axolaketasuna, neutraltasuna, ez da bide egokia.



Iñaki Olalde eta Iزارo Elorza, eguazteneko aurkezpenean. O.E.G.

## Lehiaketa bidez erabakiko dira 2025eko udal egutegiko irudiak

'Ura eta beste energia batzuk' da gaia eta lanak urriaren 18ra bitartean aurkeztu daitezke

## O.E.G. OÑATI

*Ura eta beste energia iturri batzuk* izango da datorren urteko Udalaren egutegiko gaia. Horri lotutako argazkiek ilustratuko dute, eta argazki horiek aukeratzeko lehiaketa antolatuko dute: 150 euroko saria izango du azaleko argazkiak eta 75 eurokoa hilabete bakoitzean ikusiko denak.

Hoditeriak, turbinak, errotak, ur-jauziak, ur jolasak, haizea, eguzkia, ikatza edo beste edozein elementu izan daiteke argazkiko subjektua, eta ezinbestekoa da Oñatin ateratakoak izatea. Era berean, oraingo argazki bat zein

antzinako bat aurkeztu ahal izango du Oñatin erroldatutako edonork, adin mugarik gabe. Argazkiek, hori bai, alde aurretik argitaratu edo saritu gabeak izan beharko dute, eta etzanak hobetsiko dituzte. Irabazleek 330 PPI-ko tamainan bidali beharko dute saritutako argazkia; argazki zaharren kasuan, paperezko originala aurkeztu beharko dute. Aurkezteko azken eguna urriaren 18a izango da, HAZ bulegoan edo [euskera@onati.eus](mailto:euskera@onati.eus) helbidera bidalita. Argazki bakoitzari esaldi bat jarriko diote gero lehiaketaren deitzaileek.



Txirrindulari bat 2022ko lasterketan, ohiko ibilbideko San Anton kaleko harrizko bidea igarotzen. IMANOL SORIANO

## Ohiko ibilbidera itzuliko da Kantoikrit lasterketa

Iaz aldaketak izan zituen ibilbideak, lanen ondorioz; bihar jokatu den bederatzigarren edizioan (22:00), berriz, betiko zirkuitura itzuliko da. Lasterketara begira antolakuntzak boluntario falta duela dio, eta laguntzeko dei egin du

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI  
Kantoikriten bederatzigarren aldia jokatu da bihar, 22:00etan, eta aurten ohiko zirkuitua erre-kuperatuko du lasterketak. Herriko Plazan hasita, Atzeko kalea, Patrua kalea, Santa Marina, Portu, San Anton, Aita Madina eta Unibertsitatea igaro beharko dituzte. Ibilbide horretan hamabost itzuli egin beharko dituzte txirrindulariek; hogeita lau kilometro, guztira.

### Parte-hartze txikiagoa

Ohiko ibilbide horretan lehiatuko diren txirrindulari kopuruak, ordea, behera egingo du aurten go edizioan. Iaz berrogei bat txirrindulari aritu ziren; aurten, asteazkenerako hogeita bostek zuten izena emanda. Tartean, espainiarrak eta atzerritarrak. "Aurreko edizioetako parte-hartzaile batzuek esan digute oportetean daudela edo bestelako konpromiso batzuk dituztela. Dena dela, espero dugu lasterketa egunerako hogeita hamar

txirrindulariren bueltan ibiltzea", adierazi du Barrenak. Izena eman dutenen artean hiru dira emakumezkoak, eta, iaz bezala, podium propioa izango dute. Oñatiarrei dagokienez, momentuz, hiruk eman dute izena.

Txirrindulari gutxiago egoteak, baina, ez du esan gura maila handirik ez denik egongo. "Iazko podiumeko lehen biak egongo dira, eta maila handiko beste batzuk ere bai. Ezagutzen ez ditugunak ere badaude; beraz, maila handia espero dugu, baina ez gaude ziur nolako maila egongo den", aitortu du.

### Boluntarioak behar dituzte

Lasterketak bere horretan aurrera jarraitzen badu ere, bada

**BOLUNTARIO ARITU NAHI DUTENENTZAT BILERA EGINGO DUTE GAUR ARRATSALDEKO ZAZPIETAN AZOKAN**

antolakuntzatik urtero bidaltzen duten mezu bat: boluntarioen beharra. "Boluntario barik ezinezkoa izaten da maila horretako lasterketa bat aurrera eramatea, eta aurten jende faltan gaude. Horregatik, herritarrei dei egiten diegu", dio Xabier Barrenak, antolatzaleetako batek. Hain zuzen ere, boluntario izan nahi duen orok hitzordua du gaur, 19:00etan, plazako frontoi alboko azokan; Barrenak adierazi du denentzat egongo dela "lantxoren bat".

### 'Streaming' bidez ikusgai

Oñatiko kaleak lepo betetzen dira urtero lasterketa ikusteko, baina bertatik bertara ikusi ezin dutenek etxetik jarraitzeko aukera izaten dute. Badira urte batzuk lasterketa *streaming* bidez jarraitzeko aukera egoten dela, eta aurten ere halaxe izango da. Lasterketa hastearekin batera, zuzenean emango dute lasterketa, Kantokriten Youtubeko kanalean.

## Denboraldiko batzarra egin du Aloña Mendiko futbol sailak

Egun berean, denboraldiko kirol balantzea egin eta klubeko hamalau taldeetako kirolariak saritu zituzten

### I.B.K. OÑATI

Aloña Mendi Kirol Elkarteko futbol sailak 2023-2024ko denboraldiko batzar orokorra egin zuen joan den ostiralean. Iazko denboraldiko akta irakurtzeaz gain, kirol balantzearen eta balantze ekonomikoaren berri ere eman zuten. Kirol balantzeari dagokionez, azpimarratzekoa da aurten gizonezkoen lehen taldeak Ohorezko Erregional Mailara itzultzea lortu duela, iaz jaitsi ostean. Bestalde, jakinarazi zuten Unax Inza Realean arituko dela 2024-2025eko denboraldian eta Nora Murguzur eta Libe Palacin Eibar taldera joango direla. Balantze ekonomikoari erreparatuta, azpimarratzekoa da klubak 671,52 euroko irabaziekin amaitu duela denboraldia. Galde eta eskaeren txandan, Javi Azpiazu presidentek elkartearen 75. urteurreneko ekitaldiak izan zituen berbagai; irailera begira

sail guztien aurkezpen ekitaldi handi bat egiteko asmoa ere berretsi zuen. Aurten lehen aldiz Donosti Cup-eko partiduak Azkoagainen jokatu izana ere positibotzat jo zuten.

### Hamalau saritu

Batzarraren ostean afaria egin zuten eta klubeko hamalau taldeetako kirolariak saritu zituzten: Maialen Txintxurreta (Ohorezko Erregionala), Tiago Santana (Ohorezko Erregionala), Aitor Gordoia (Lehen Erregionala), Aitor Zubiagirre (Gazte Maila), Oier Castaños (Lehen Gazte Maila), Elene Odriozola (Ohorezko Kadetea), Asier Nogueiras (Gorengo Kadetea), Beñat Oleaga (Lehen Kadetea), Maddi Murguzur (Infantila), Unax Inza (Lehen Infantila), Kepa Kuesta (Infantil Txikia), Eki Palacin (Alebin A), Beñat Irizar (Alebin B) eta Helene Madinagoitia (Alebin B).



Futbol saileko saridunak. ALOÑA MENDIKO FUTBOL SAILA

## Izar Mendiolarena izan da jaietarako kartelik bozkatuena

Oñatiko 2024ko jaiak badute kartela. Udalak urtero antolatzen duen kartel lehiaketako irabazlea Izar Mendiola izan da. Aurten bost kartel zituzten herritarrek bozkatzeko, eta oñatiarrek emandako 262 botoetatik 130 eskuratu ditu Mendiolarenak. Alboko argazkian dagoen kartela da irabazlea; Udalak emandako 500 euro lortu ditu.



2024ko jaietako kartela. OÑATIKO UDALA



# UDA KO ARGAZKIEN 20. GOIENA LEHIAKETA



**Dubrovnik**  
Argazkia: Odei Vazquez | Aretxabaleta



**Girona**  
Argazkia: Inati Urzelai | Aretxabaleta



**Dolomitenak**  
Argazkia: Iker Zubizarreta | Arrasate



**Suaren Irribareak, Portasolgo jaietan**  
Argazkia: Angel Ayestuy | Aretxabaleta

## Martxan da!

Egin klik eskuko telefonoarekin zein argazki kamerarekin eta bidali udan ateratako argazkiak!

Posta elektronikoz ([argazkiak@goiena.eus](mailto:argazkiak@goiena.eus)) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu argazkiak!

### Sariak

- **LEHEN SARIA:** Arrasateko eta Bergarako Halcon Bidaiei esker, opari-kutxa: bi lagunendako landetxe batean gaua eta gosaria.
- **BIGARREN SARIA:** Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarentzako afora edo bazkaria.
- **HIRUGARREN SARIA:** Arrasateko Eroski hipermerkatuari esker, Samsung Galaxy A05s.
- **GAZTE SARIA (16-18 urte):** Intersport-Loramendiren eskutik mendirako McKinley saria: motxila + bastoiak + kantinplora.
- **PUBLIKOAREN SARIA:** Bergarako Ereindajan-en eskutik: bertako eta kalitatezko produktuen saski ederra.



Oinarri eta argazki guztiak hemen: [goiena.eus/bereziak/20-udako-argazkien-lehiaketa](http://goiena.eus/bereziak/20-udako-argazkien-lehiaketa)

### Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak bost argazki aurkez ditzake, gehienez. Argazkiarekin batera adierazi behar dira:
  - Egilearen izen-abizenak eta herria.
  - Harremanetarako telefonoa eta posta elektronikoa.
  - Argazkia non ateratakoa den.
  - Jaiotza-data (gazteen kategorian parte hartzen duen jakiteko)
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 19tik irailaren 23ra arte –biak barne–.
- Bidali argazkiak eta datu guztiak posta elektronikoz ([argazkiak@goiena.eus](mailto:argazkiak@goiena.eus)) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar.
- Debagoienean jaio edo bizi den 16 urtetik gorako edozeinek parte har dezake.
- Argazkiak originalak izan behar dira eta koloretan zein zuri-beltzean aurkez daitezke.
- Udako argazkiak izango dira: aurtengo udan ateratakoak edo beste uda batekoak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 4an jakingo dugu, GOIENA aldizkarian eta [Goiena.eus](http://Goiena.eus)-en.
- Bost sari egongo dira eta honela erabakiko dira:
  - Lehen lau sariak Goienako kidez osatutako epaimahai batek aukeratuko ditu eta argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.
  - Gazte Sarian 16 eta 18 urte artekoak soilik izango dute parte hartzeko aukera. Gazte horiek gainontzeko sariak irabazteko aukera ere izango dute.
  - Irailaren 27tik urriaren 2ra izango da Publikoaren Saria aukeratzeko epea.
- Argazkiak Goienaren euskarrietan argitaratuko dira.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du, egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienaren artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adieraziko da.

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

**EROSKI**  
ARRASATE

**GURE AMETSA**  
Restaurante - Jatetxea

BERGARA  
**EREIN  
DA  
JAN**

**Halcon** BIDAIAK  
ARRASATE BERGARA

**INTERSPORT**  
LORAMENDI

**Xabier Urtzelai Atxa** ARRASATE

Mojategin pertika-jauzilari moduan aterako dizkioten azken argazkiak egitera doala, Malen Ruiz de Azuak (Arrasate, 1995) itxita aurkitu ditu atletismo pistako sarbide guztiak. Pistak berritzeko lanetan dihardute langileek, eta bertara ez sartzeko jarritako plastikoak badira seinalea; hemendik aurrerakoak pista horietatik urrun biziko dituela iragartzen dute. Oraindik, baina, arrasatearrak Mojategiko gimnasio txikian gordetzen ditu urte hauetan guztietan batu dituen pertika mordoa. Norbaitek kapritxoak badu, 4,50ekoak salgai ditu: "Fisikoki indartsu egon behar duzu horiek erabili ahal izateko; hemendik aurrera ez ditut beharko".

Ruiz de Azuak Espainiako txapelketa absolutuetan hamazazpi domina eskuratuta esango du agur, horietako bost urrezkoak, eta 4,47ko marka pertsonalarekin (Zaragoza, 2021).

**Astebete pasa da erabakiaren berri eman zenuenetik; zer moduz zaude?**

Ondo, normaltasunez bizi izan ditut egun hauek. Egia da denboraldi amaiera beste urte batzuetakoa modukoa izan dela; hau da, aire libreko denboraldiaren ostean atsedean hartzen dugu eta egun hauetan hor ez da aldaketarik egon, urterokoa izan da. Nekatuta amaitu dut denboraldia, eta atsedena behar dut. Beste kontu bat izango da irailan, berez entrenatzen hasi beharko nukeen garaia, ez dudala horretarako beharrik izango. Hor konturatuko naiz zer bait aldatu dela.

**Boteprontoan hartutako erabakia izan da?**

Ez, ondo hausnartutakoa izan da. Aurrekoan, Espainiako txapelketara gindoazela Jonathan [Perez] eta biok atletismoan daramatzadan urteak zenbatzen hasi ginen, eta hamazazpi izan dira, guztira. Horietatik azkeneko bi urteak esango nuke luzeak egin zaizkidala, konturatzan nintzen geroago eta gehiago kostatzen zitzaidala, bereziki neguan, lanetik irten eta bakarrik entrenatzera etortzea. Musika entzuteko gailuak jarri, nire munduan sartu, eta entrenatzera. Helburu bat markatzen duzun momentuan badakizu zein den horra iristeko egin beharreko lana, eta bai edo bai egin behar da. Baina



Malen Ruiz de Azua, aste barruan Mojategin, pertika batekin. XABIER URTZELAI

# "Tarteka gogoz kontra entrenatu behar izatea izan da gogorra"

**MALEN RUIZ DE AZUA** ATLETA OHIA

**ATLETISMOA** Hamazazpi urtez atletismoan jardun eta gero, arrasatearrak naturaltasun osoz esan du amaitu dela bidea, erretiroa hartzeko ordua iritsi dela

geroago eta gogorragoa zen, bai. Etxekoekin eta entrenatzaileekin berba eginda neukan gaia-ri buruz, ez dute ezustekorik hartu.

**Hala ere, herrian gutxi batzuek dakizue zer den pertika batekin halako salto bat egitean sentitzen dena; Maialen Axpek, Jonathan**

**"DENBORALDI AMAIERA NORMAL EGIN DUT; IRAILEAN SUMATUKO DUT ALDAKETA"**

**Perezek, Istar Dapenak, zuk zeuk... Faltan igarriko duzu?**

Bai, seguru baietz, ez daukat zalantzarik. Orain momentuan ez, lehen esan moduan nekatuta amaitu dudalako denboraldia eta txapelketak orain izan direlako, oraindik oso fresko daukat dena. Baina urte batzuk barru,

**"HAUSNARTUTAKO ERABAKIA IZAN DA; AZKEN BI URTEETAN KOSTA EGIN ZAIT MOTIBATZEA"**

atzera begiratu eta zer egiteko kapaz izan ginen ikusten dudanean... Eta garbi izanda, gainera, salto horiek egiteko zenbat lan egin behar izan dudanean... Hutsune hori igarriko dut, bai. **Pertika guztiak baztertuko dituzu?** 4,50ekoak bai; horiekin lan egiteko sasoi oso onean egon behar

**"ARRASATEN PERTIKA DENBORA BATEZ KILI-KOLO GERATUKO DA; JONATHAN ERE NEKATUTA DAGO"**

duzu. Valentzia klubekoei esan diet klubean arteko txapelketaren batean nire beharra badute ger-tu egongo naizela laguntzeko, baina besterik ez. Eta txapelketa horietan parte hartzeko ez ditut behar pertika horren zorrotzak, indar handia behar da horiek tolesteko. Hala, beste pertika batzuekin ere maila politetan jardun dezaket.

**Halakoetan zer egiten da kirol ibilbidean batutako pertikekin?**

Beste atleta batzuek jakin dutenean erretiroa hartu behar dudala hasi zaizkit nire pertikengatik galdezka [Barreak].

**Espainiako txapelketa irabazita esan duzu agur; pastelari ginga jartzea izan da.**

Bai, motibo batengatik edo beste batengatik, baina txapelketa horretan beti izaten nuen arazoren bat. Gainera, beste edizio batzuetan oso sasoi onean egon izan naiz, aurreikuspenak ere hobeak ziren, baina gero ez nuen urrea lortzen. Eta oraingoa, bikain egon barik, urrea irabazi dut. Egia da borroka horretan urtero lauzpabost atleta egon izan garela, ez gehiago, baina tira, aurrean nik irabazi ahal izan dut.

**Obsesio izan barik, baina urre hori motibagarria zen.**

Ez, urre horrekin ez nengoen itsututa. Urre iristen bazen, ondo, eta bestela, ere bai. Baina egia da gure artean txantxetan bai komentatzen genuela urre hori falta zitzaigula.

**Lortu izan ez bazenu, ez zenukeen kirol ibilbidea beste urtebetez luzatuko, ala?**

Ez, ez... Ezta pentsatu ere. Erabakia hartuta neukan ordurako. **Iaz min hartuta ibili zinen, baina, bestela, ez duzu apartekorik izan. Horiek izaten dira kirolari baten dako momenturik gogorrenak?**

Akaso, ez dut hor gehien sufritu. Iaz, pista estaliko denboraldiaren amaieran hasi nintzen molestiak sentitzen, eta gero, aire libreko denboraldia min hartuta egin nuen. Eta bai, gogorra izan zen min hartuta ibiltzea. Baina lehen ere komentatu dut: akaso, gogorragoa egin zait Mojategira batzuetan gogoz kontra joan behar izatea, motibazio falta hori izatea...

**Askotan dominekin, marka pertsonalekin... itsutzen gara; hor dago benetako meritua?**

Niretako eguneroko lanean egon da zailtasun handiena, konstantzia horretan kalerik ez egitea.



Inoiz tokatu zait Mojategin zure entrenamendu saio bat jarraitzea; uztailean, bero galantarekin, pistan bakarrik lanean, eta handik metro batzuetara jendea igerilekuan...

Tira, hor ez nuen horrenbeste sufritzen. Uztaile saso polita izaten da, entrenamenduak ere halakoxeak izaten dira. Sasoi onean zaude, txapelketen garaia da... Okerragoak dira azaroan egiten diren lanak. Sasoi hartzen, eguraldi txarrarekin entrenatzen, euria, hotza... Hala ere, bai, uztaileko entrenamendu saioen bat ere gustura aldatuko nukeen igerilekuan etzanda egotearren [Barre].

**Aurrerantzean, zertan geratuko da Mojategiko pertika faktoria hori? Azken urteotan Euskal Herriko atleta onenak harrobi horretatik irten zarete...**

Galdera hori Jonathani [Perez] egin beharko diozue. Ni haren gidaritzapean egon naizen atleta bat naiz, eta Mojategitik irten garen pertika-jauzilariak haren aginduetara izan gara lanean. Badakit nekatuta dagoela eta arlo pertsonalean ere beste etapa batean dagoela. Niri esan didanagatik, haren alabek etorkizunean pertika egin nahi badute, itzuliko da entrenatzaile lanetara. Hala ere, orain atsedean hartu nahi duela esango nuke. Baina bai, denboraldi batez Arrasateko pertika kili-kolo geratuko da.

**Zer izan da Jonathan Perez zure kirol ibilbidean?**

Entrenatzaile bat, lagun bat... Sarritan esaten dut hastapenetan Jonathanekin neukan harremana atleta baten eta entrenatzaile baten artekoa zela. Ez dut esaten hotza zenik, baina bakoizta bere tokian zegoen. Eta urteekin harreman pertsonala izatera pasa gara; niretako etxeko bat gehiago da, familiako kide bat. Eta ez hura bakarrik, haren familia ere bai, alabak... **Aurrerantzean zertan ikusiko zaitugu? Crossfit-a egiten, datorren urteko Arrasate-Udalatzen...**

[Barre] Ez dut uste. Tira, neuk ere ez daukat garbi zer egingo dudun, eta jende askok egin didan galdera da hori: "Eta orain zer?". Bada, jende arruntak egiten duena egingo dut; badituzte zaletasunak, eta denbora luzeagoa izango dut niretako. Eta ikusten badut orain arte egin dudun hori izugarri igartzen dudala faltan, bada, Mojategirako bidea ondo gozoan daukat.



X.U.

## "Lan izugarria egin du Malenek"

JONATHAN PEREZ  
ENTRENATZAILEA

Urte hauetan Maialen Axperen, Lore Marren, Istar Dapenaren eta Malen Ruiz de Azuaren entrenatzailea izan da Jonathan Perez (Arrasate, 1981).

**Malenek ze ekarpen egin dio Arrasateko atletismoari?**

Lortu dituen dominetatik harago, nik uste dut Malenek erakutsi digula konstantziarekin zer lor daitekeen eta posible dela lan egiteaz batera goi mailako kirolaria izatea. Hori bai, esfortzu handiarekin.

**Malenen agurrak Jonathanen agurra dakar?**

Maila horretan, behintzat, bai. Urte hauetan Maleni neukan denbora eskaini diot, eta, egia esan, txapelketa batetik bestera ibiltzea nekagarria da; bereziki, familia duzunean. Baina bide ederra egin dugula uste dut. Ea urte batzuk barru nire alabek poztasun bat ematen didaten eta pertika probatu nahi dutela esaten didaten. **Arrasateko atletismo taldean gazte asko dabil; ez dator erreleborik?** Pertikan ez. Ez da atletismo modalitate batere erraza, eta baditu bere arriskuak. Gu bete-betean harrapatu gintuen, baina uler dezaket kanpotik gurasoei beldur apur bat ematea.



Iaz, Laboral Kutxakoek agindu zuten lasterketan; Iñaki Diaz izan zen onena. GOIENA

# Ibilbideko aldaketekin dator 46. Dorletako Ama

**TXIRRINDULARITZA** Domekan jokatuko dute lasterketa eta antolatzaileek aldaketa nabarmenak egin dituzte ibilbidean, ziklistek birritan igo beharko dituzte-eta Apotzagako maldak, Aretxabaletako Markole eta Txarapea auzoetatik

**X.U.A. LEINTZ GATZAGA**

Ikusteko dago, domekan, Lehendakari Txapelketako hirugarren proban, amateur mailako ziklistak zer moduz moldatzen diren Apotzagara igotzeko dauden porlanezko malda gogorretan -Txarapean gora-. Bi kilometroko igoera da, tarte batzuetan malda gogorak ditu eta Apotzaga-Etxebarritik Apotzagarako tarte porlanezkoa da. Hori da aurtengo Dorletako Ama sariak dakarren nobedade handiena -irteera neutralizatua, 09:30ean, Leintz Gatzagan-. "Proba gogortzeko eskatu izan digute, iaz sare sozialetan ere halako eskaerak egin zizkiguten, baina guk garbi dugu gurea

mendatez osatutako lasterketa bat dela, ez proba lau bat; horrenbestez, ez ditugu nahi saihebidetan alferrikako kilometroak gehitu. Horregatik erabaki dugu ibilbidean aldaketak egin eta ziklistak Apotzagatik sartu, hor izango dute hankak non berotu", adierazi dio GOIENARI Joxerra Agirreurretak.

Ibilbide berriarekin, gainera, antolatzaileek lortu dutena da saihebidetako kilometroak kentzea, Aretxabaletako eta Eskoriatzako herriak ere barrutik zeharkatuko dituztelako ziklistek. "Ikusiko dugu zer emaitza ematen duen, baina uste dugu polita geratuko dela, eta aparteko ekarpenik egiten ez duten

lautadako kilometroak kendu ditugu horrela".

Lasterketako ibilbide berriaren gaineko xehetasunak ezagutzeko, sartu GOIENAREN webgunean: [www.goiena.eus](http://www.goiena.eus).

**Caja Rural, orain arte agintzen**

Lasterketako parte-hartzaileei dagokienez, aste barruan 120 ziklistak emana zuten izena, eta ikusteko dago Lehendakari Txapelketako aurreko bi lasterketan moduan -Arrateko Igoera eta Antzuola Saria- Gatzagako herri barruko harbidean ere Caja Ruraleko ziklistaren bat nabarmentzen den, aurreko lasterketan eurak izan dira-eta jaun eta jabe.

## FUTBOLA Qatarko Al-Wakrah taldeak Beñat Labaien fitxatu du

Qatarko Al-Wakrah taldean hasiko du Beñat Labaien bere ibilbide profesionaleko esperientzia berria; izan ere, Miguel Angel Ramirez entrenatzaile kanariarraren talde teknikoko bigarren entrenatzaile gisa jardungo du QSL ligan -Qatarko ligan-. Aurretik, Tokushima Vortis Japoniako taldeko entrenatzaile izan zen bergararra.

## FUTBOLA Elene Guridi, Realeko lehenengo taldearen dinamikan

Realak iragarri du Elene Guridi oñatiarra lehenengo taldeko dinamikan egongo dela datorren denboraldian, nahiz eta filialeko fitxa izaten jarraituko duen. Aurreko denboraldian egin zuen debuta txantxikurrak Realarekin Bartzelonaren aurka, eta orduan 30 zenbakidun elastikoa jantzi zuen. Denboraldi berrian, berriz, 26 zenbakia jantziko du.



Guridi, aurkezpen egunean. REAL SOCIEDAD



Danbaka lehiaketako antolatzaileak, laguntzaileak eta aurreko aldiko irabazlea, eguazteneko aurkezpenean. JAGOBA DOMINGO

# Danbaka, izar berrien bila

Goiena Komunikazio Taldeak Bergarako Udalaren laguntzarekin antolatu duen seigarren Danbaka Musika Lehiaketan parte hartzeko izen ematea zabalik dago; urriaren 25ean abiatuko da eta hamasei taldek edo bakarlarik hartuko dute parte

## Aitziber Aranburuzabala Juldain BERGARA

2022ko aldiak utzi zuen "zapora eta oroitzapen gozoaren" ostean, eguaztenean aurkeztu zuten Debagoieneko musikariei zuzendutako seigarren Danbaka lehiaketa. "Goienaren berezko helburuekin bat egiten du Danbaka Musika Lehiaketak. Alde batetik, Danbakarekin, gazteak erakarri nahi ditugu euskal hedabideetara; hain justu, Goienako hedabideetara. Eta bestetik, eskualdeko musikariei –bakarlari, bikote zein talde– aukera eskaini nahi diegu era askotako musika adierazpenak haizatuz", dio Goiena Komunikazio Taldeko presidentea Monika Belastegik.

Debagoieneko taldeei zuzenduta dago, eta, edizio guztietan moduan, denetariko estilo eta formatuak izango dira ondoetorriak, eta "ez zaie aterik itxiko

2022an parte hartu zutenei". Irailaren 22ra arte eman ahalko da izena eta baldintzetako bat izango da parte-hartzaileetako bat, gutxienez, Debagoienean erroldatuta egotea. Oinarriak eta gainerako xehetasun gehiagorik *Danbaka.eus* atarian daude jasota.

## Lau kanporaketa eta finala

Urriaren 25ean, azaroaren 15ean, azaroaren 29an eta abenduaren 13an izango dira lehiaketako kontzertuak eta urtarrilaren 17an jokatu da finala. Hamasei talde izango dira lehian, kon-

**URRIAREN 25EAN  
ABIATUKO DA  
SEIGARRIN DANBAKA;  
URTARRILAREN 17AN  
JOKATUKO DA FINALA**

tzertu bakoitzeko lau talde edo bakarlari. "Hamabost talde Danbakako epaimahaiak aukeratuko ditu eta azkena, publikoak, boto bidez. Aurreko aldian moduan, Bergarako plaza nagusian dagoen Seminarixoan izango dira, 21:30ean hasita", azaldu du Danbakako koordinatzaile Jokin Bereziartuak.

## Hiru sari aurten ere

Diskoa grabatzea izango da Sari Nagusia; aurreko aldian, Aramaioko The Clayton taldeak eskuratu zuen eta *Over the red light* diskoa argitaratu zuen. Publikoaren Saria irabazten duenak bideoklip bat izango du opari; hala egin zuen Oñatik Aiert artistak, *Omen ala behar* kantua. Eta Danbaka-Ekinez Sariak 2025ean Bergaran egingo den Ekinez jaialdian jotzeko aukera emango

## "Esperientzia aberasgarria izan da Danbakan parte hartzea"

JOKIN LARRAÑAGA THE CLAYTON TALDEKO ABESLARIA

Aramaioko The Clayton taldeak irabazi zuen bosgarren Danbakako Sari Nagusia.

### Zer iritzi daukazu Danbakari buruz?

Proiektu moduan oso txukuna eta oso ondo botata Goienaren partetik. Danbakaren bidez Goienak erakutsi du bailarako musika-zaleak batzeko gaitasuna duela. Elkargune bat sortu zuen 2022ko Danbakak puntu zehatz batean bailara osoko musika-zaleak elkartzeko, euskaraz, eta musikaren bueltan. Aspaldi ikusi bako jendea elkartu, talde berriak ezagutu... Horrez gain, musika taldeendako erakusleho ederra ere bada Danbaka.

### Zelako esperientzia izan zen zuentzako aurreko aldian parte hartzea?

Esperientzia aberasgarri bezain ezberdina izan zen guretzat.



JAGOBA DOMINGO

Eta ezberdina diogu, zentzurik onenean. Bizi garen inguru honetan ez da batere normala lehiaketa batean parte hartu ahal izatea; eta azken edizioan beste talde batzuetako partaideekin komentatu izan genuen ez genuela lehiaketa moduan bizi. Esperientzia berri bat bezala bizi izan genuen, talde berriak eta beste plaza bat ezagutzeko aukera gisa. Eta horri gehitu behar diozu zuzeneko kontzertu bat bideoan ederto grabatuta.

dio irabazleari; aurreko aldian, Oñatik Letagin taldea igo zen Bergarako jaialdiko agertoki gainera.

## Lehiaketaz harago

Areto barruan izango da lehia "sanoa", baina kanpoaldea musikari eta musikazale askoren topaleku ederra izango da aurten ere. "Ondo funtzionatzen duena bere horretan mantendu behar delako, Sanprubusa izango dugu San Martin plazan, eta chill out gunea ere egongo da aurten. Areto barruan ere barra zerbitzua egongo da", esan du Bereziartuak. "Ekimen oso ona da Danbaka; publiko zabala batzen du, emakumezkoen presentzia handia dago, euskarazko kantu asko eta musika estilo asko ere bai", gaineratu du Aramaioko The Clayton taldeko abeslari Jokin Larrañagak.

**IZEN EMATEA ZABALIK DAGO IRAILAREN 22RA BITARTEAN; OINARRIAK, 'DANBAKA.EUS'-EN**

## Bergarako Udalarekin

Iazko aldian Bergarako Udala izan zuen Goienak antolatzeko lanetan bidelagun, eta aurten ere Danbaka babesteko apustua egin dute. Hauxe esan du Gorka Artola alkateak: "Gure helburua egitasmo honi jarraikortasuna ematea da, eskualdeko eta, bereziki, Bergarako musika taldeentzat erakusleho bihurtzeko. Ez dakigu Danbaka honetatik hurrengo Gorka Urbizu edo Izaro berria irtengo den, baina argi daukaguna da erakundeetatik aukerarik eskaini ezean hori lortzea zailagoa izango dela. Beraz, prest gaude talde gazteek behar duten bultzada ematen laguntzeko".

## Xabier Labaien gogoan

Danbakako edizio guztietan –2004tik 2010era arteko lau edizioetan eta 2022koan– soinu-teknikari lanetan aritu zen iazko uztailan hil zen Xabier Labaien, eta hari keinu gozoa egin zioten aurkezpenean. "Beti itzalean, isil-isilik eta ezkutuan lanean, sekulako lana egiten zuen. Besarkada estu bat, Xabier, zauden lekuan zaudela".

# Urtanta ekimenaren geltoki bat, Arantzazun

Et Incarnatus Orkestra gidari dela, Donostiako Orfeoia, Maika Etxekopar, Titika Rekalt, Asisko Urmeneta eta Iñaki Palacios izango dira, besteak beste, Arantzazuko basilikan uztailearen 23an 20:00etan egingo duten ikuskarian; sarrerak, 'Urmuga.eus' atarian

## Aitziber Aranburuzabala OÑATI

2020an abiatu zen Urmuga, mendiak eta musika batzen dituen musika jaialdia: Euskal Herri osoa zeharkatzen du, mendebaldetik ekialdera, eta mendi ton-torretara, herrietara eta bailaretara musika eta naturarekiko maitasuna eramaten du.

Bi urtean behin egiten da eta tartean, ekitaldi handia egiten ez den urteetan, Urtanta antolatzen dute; laburragoa, baina goi mailako musikaz gozatzeko aukera ematen duena hori ere. Arantzazun egingo dute, uztailearen 23an, aurtan antolatu dituzten lau emanaldietako bat.

## Nestor Basterretxearen omenez

Elkanoren mundu-bira omendu zuten orain dela bi urteko Urtanta ekimenean, eta aurtan, Nestor Basterretxea goretsiko dutela azaldu du Urmuga kultur elkarteak eta Et Incarnatus orkestrako zuzendari Migel Zeberioek Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan: "Gure arte-

ko sortzaile ezagun eta, behar bada, eragin handienetakoa izan duena da. Aurtan haren jaiotza menduurrena ospatzen dugunez, egokia iruditu zitzaigun haren figuraren inguruan aurtengo Urtantaren ildo nagusia bideratzea. Arantzazuko emanaldian keinu gehiago egingo ditugu; izan ere, Bitoriano Gandiagaren *Hiru gizon bakarka* poema-liburuaren argitalpenaren 50. urteurrena da, eta, horrez gain, *Jakin* aldizkariaren sortzaileak ere omenduko ditugu: Paulo Agirrebaltzategi eta Joxe Azurmendi".

Lau emanaldi egingo dituzte, guztira: Hondarribian, Basterretxea bizi izan zen herrian, uztailearen 22an; Basterretxearen

## ASKOTARIKO DIZIPLINAK BATZEN DITUEN IKUSKARIAK, BASTERRETXEAREN ARTISTA GOGOAN

muralak dauden Arantzazun, hurrengo egunean; Bakion, artistaren jaioterrian, uztailearen 25ean; eta Nafarroako Gaintza herrian, uztailearen 28an. *Urmuga.eus* atarian daude sarrerak eskuragarri.

## Jon Esnaolak konposatuta

Askotariko osagaiak batuta, euskaltasuna, espiritualtasuna, erlijioa eta mitoak beragai hartuta eta ironiarekin, surrealismoarekin, umorearekin eta gogoetarekin bustita sortu dute ikuskaria: "Musika arloan pisu eta presentzia nabarmena dute aitzinako euskal doinuek, baina ez dira bere horretan eskainiko, baizik eta Jon Esnaolak sortu dituen konposizio indartsuekin. Mundu oso onirikora garamatza musikak, eta uste dut jendea ez dela hotz geratuko eta zer pentsatuta emango diola espresuki batu ditugun arte diziplinetako sortzaileek elkarlanean egin duten ikuskari ederrak".



Et-Incarnatus taldeko kideak, iazko Urmuga ekimenaren baitan Otsagabian egin zuten kontzertuan. JOXE FELIX DIAZ DE TUESTA

## Goienakideen txokoa UZTAILEKO SARIAK



## Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Errigora

ERRIGORA

## Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ  
OSATIBO BAK

## Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org  
Bidezko Merkataritzako produktuak

## PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) Whatsapp: GOENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia  
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Informazioan 1.970.13/1995 legearen arabera, jabearen diru-guztira pertsonak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren itxarotutako informazio baten sartze dira. Datu-bildetza horien helburu bakarra da eraberrin dagoen sustapen gaitasunak. Eraberrin dagoen sustapen sariak, baina ez dira zozketarako onargarriak. Hala ere, eraberrin dagoen sustapen sariak, baina ez dira zozketarako onargarriak. Hala ere, eraberrin dagoen sustapen sariak, baina ez dira zozketarako onargarriak.

## Irabazi bi lagunendako otordua

### TARTUFO JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: uztaileak 23

943 25 05 05 [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) "Goiena app"-a / zozketa atalean.

GOENAKIDE Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

GOENAKIDE KUOTA: 30€

Deitu: 943 25 05 05 • [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)



DESKARGATU GOIENA  
APLIKAZIOA!

goiena  
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



ESKER ONA



**Aritz Oianguren Martinez** 

2024ko uztailaren 11n hil zen, 39 urte zituela.

*Min emuten dau fan egin zarela siñistu biharrak. Zure bizipoza ta alaittasuna gure kriselua izango dia. Eskerrik asko danatik, Aritz. Ez zaugu iñoiz ahaztuko. Cris, Ama, Aitta, arreba eta Gorka*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2024ko uztailaren 19an.

OROIGARRIA

**Aritz Oianguren Martinez** 

2024ko uztailaren 11n hil zen, 39 urte zituela.

*Mila esker emandako guztiagatik. Beti gurekin.*



Copreciko lankideok.  
Oñatin, 2024ko uztailaren 19an.

OROIGARRIA




**Jose Mari Etxaniz Zorrilla** 


Preso ohia  
2024ko uztailaren 16an hil zen,  
Santiago de Compostelan, 67 urte zituela.

*Jose Mari,  
Beti izango zaitugu gogoan.*

Nagixak kuadrilla.  
Bergaran, 2024ko uztailaren 19an.

ESKER ONA



**Isabel Pildain Arabiourrutia** 

Rufino Zenitagoiaren alarguna  
2024ko uztailaren 11n hil zen, 82 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2024ko uztailaren 19an.

OROIGARRIA



**Julian Irazabal Gorosabel** 

2024ko uztailaren 12an hil zen.

*Gogoan izango ditugu beti elkarrekin bizi izandako une goxoak.*



Larrain Gain K.J.B.  
Oñatin, 2024ko uztailaren 19an.

OROIGARRIA

**Merche Gomez Arranz** 

2024ko uztailaren 5ean hil zen, 92 urte zituela.

*Atsegingarria izan da bizitza zurekin partekatzea. Zure irakaspengatik, guztiagatik, eskerrak eman nahi dizkizugu, bihotz-bihotzez.*

Senideak.  
Bergaran, 2024ko uztailaren 19an.

ESKER ONA

**Natividad Aguirre Irizar** 

Blas Aizpuruaren alarguna —Goian bego—  
2024ko uztailaren 15ean hil zen, 96 urte zituela.

Haren seme-alabak: Juan Mari (†), Ignacio Javier (†), Mari Carmen, Jose Antonio, Jose Ramon; ezkon seme-alabak: Belen, Nerea eta Blas; bilobak: Asier eta Nekane, Miren; birbilobak: Jurgi, Hodei; ezkon arrebak: Lourdes Aizpuru; lehengusuak, lagunak eta gainerako ahaideak.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2024ko uztailaren 19an.

MEZA

**Julian Irazabal Gorosabel** 

2024ko uztailaren 12an hil zen, 82 urte zituela.

Julianen azken agurrean berotasuna eta elkartasuna eskaini diguzuen guztioi, eskerrik asko bihotz bihotzez familiaren izenean.

Haren aldeko ondra meza zapatuan izango da, uztailaren 20an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

Bertaratuko zaretenoi, eskerrik asko alde zurretik.  
Oñatin, 2024ko uztailaren 19an.

URTEURRENA

**Roman Guridi Aguirre** 

Juanita Ibaeren alarguna  
2023ko uztailaren 9an hil zen, 97 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, uztailaren 20an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Oñatin, 2024ko uztailaren 19an.

## HILDAKOAK

- Miren Bengoa Leibar.** Arrasaten, uztailaren 12an. 90 urte.
- Juan Jose Gonzalez Elicez.** Arrasaten, uztailaren 15ean. 83 urte.
- Esteban Arana Eraña.** Arrasaten, uztailaren 15ean. 78 urte.
- Victoriano Garcia Fernandez.** Arrasaten, uztailaren 16an. 75 urte.
- Isabel Pildain Arabiourrutia.** Bergaran, uztailaren 11n. 82 urte.
- Natividad Aguirre Irizar.** Bergaran, uztailaren 15ean. 96 urte.
- Jose Mari Etxaniz Zorrilla.** Santiago de Compostelan, 67 urte.
- Marcelina Albéniz Barragan.** Bergaran, uztailaren 17an. 95 urte.
- Jesús Maria Andetxaga Pagalday.** Eskoriatzan, hilaren 11n. 78 urte.
- Julian Irazabal Gorosabel.** Oñatin, uztailaren 12an. 82 urte.
- Ahizpa M<sup>a</sup> Antonia Anduaga Irizar.** Oñatin, uztailaren 17an. 94 urte.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05  
edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

**Oroilore** BABESLEA  
Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

*Gure artean agurtutako guztiak zure bidea azaltzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango ditue agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beroenak gogon izan dituen konfiantzagatik eta maitasunagatik.*

Mario, Iban, Mariñe eta Cristian

617 44 21 55  
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI



## BERRI-ZAKUA



**Janire eta Aritz**  
Bihar ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Heldu da zuen eguna. Ederto pasa ezazue familia eta lagun artean! Segi pozik eta zoriontsu. Besarkada handi bat, etxeko guztion partetik".

**Maisabel eta Jose Luis**

Urrezko ezteiak bete dituzte. "Primeran ospatuko dugu zapatuan, denok elkarrekin. Zorionak, bikote! Familiako guztion partetik, besarkada handi bana. Segi zoriontsu izaten".



## ASTEA GOIENA TELEBISTAN

**ANTZUOLAKO JAIK**

Herriko jai nagusiek ematen dutenaren laburpena eskainiko dute: Alardea, hontzaren jaitsiera, musika, kuadrillen arteko ginkana...

'Jaiak' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**UNAI GAZTELUMENDIRI ELKARRIZKETA**

Anai Beñatekin idatzitako *Borroka da bidea* komiki-liburuaren gainean egingo du berba Joni Ubeda kazetariarekin.

'Elkarrizketa' Eguaztena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / [kultura@goiena.eus](mailto:kultura@goiena.eus)

**EGUBAKOITZA 19****ANTZUOLA Antzuolako Jaiak**

Egitaraua eta informazio osoa 24. orrian.  
*Antzuolan.*

**ARETXABALETA Ixadebalde azoka**

Aretxarte elkarteko hainbat merkatariren eskutik.  
*Durana kalean, 10:00etan.*

**OÑATI Madalenako jaiak**

16:00etan, auzolana; 16.30ean, etxafuego jaurtiketa; 17:00etan, bizikleta marxa; eta 22:30ean, Iskanbila eta Sembrando Kaos taldeak, eta ostean DJ Elvis Caino.  
*Madalena auzoan.*

**ESKORIATZA Udako jaiak**

San Pedro eta Intxaurtxueta Jai Batzordekoen eskutik.  
*Intxaurtxuetan, 17:00etan.*

**ARRASATE Vulcanizadas taldea**

Bizkaiko taldeak lehen diskoa aurkeztuko du, Arrasate Blues jaialdiaren baitan. Debalde.  
*Euskal Herria plazan, 19:00etan.*

**ESKORIATZA 'Ze demontre' topaketa**

Leirek eta Dorletak eta Zirrara taldeak parte hartuko dute hirugarren topaketan. Garagardo dastatzea ere egongo da.  
*Santa Marina plazan, 19:00etan.*

**ARRASATE Pilota jaialdia**

Infantil mailan, Zubia/Osoro eta Orue/Dominguez; eta nagusien mailan, Murua/Elizegi eta Azketa/Uriondo. Era berean, Ander Murua arrasatearra omenduko dute.  
*Uarkapen, 19:30ean.*

**ARRASATE Zerendepya taldea**

Aretxabaletako taldearen emanaldia, Arrasate Blues jaialdiaren baitan. Debalde.  
*Zigarrolan, 19:30ean.*

**ARRASATE Diablues Eta Bluezifer**

Bergarako taldearen emanaldia, Arrasate Blues jaialdiaren baitan. Debalde.  
*Arimazubi plazan, 19:30ean.*

**ARRASATE Amann & The Waywards Sons taldea**

Soul, roots eta hard-rock kutsua duen taldearen emanaldia, Arrasate Blues jaialdiaren baitan. Debalde.  
*Otalora Lizentziaduna kalean, 20:00etan.*

**BERGARA Rhythm Shakers taldea**

Berumuga jaialdiaren baitan. Debalde.  
*Espolioan, 22:00etan.*

**ARRASATE The Allnighthers taldea**

Gasteizko taldearen emanaldia, Arrasate Blues jaialdiaren baitan. Debalde.  
*Ferrerias kalean, 22:30ean.*

**ZAPATUA 20****ANTZUOLA Antzuolako Jaiak**

Egitaraua eta informazio osoa 24. orrian.  
*Antzuolan.*

**ARRASATE Emakume ekoizle eta artisauen azoka berezia**

Hirugarren zapatuko baserritarren azokaren baitan.  
*Seber Altube plazan, 09:00etan.*

**ESKORIATZA IV. Luis Ezeiza areto futbol txapelketa**

Talde bakoitzean sei jokalarik, gutxienez.  
*Luis Ezeizako kantxan, 10:00etan.*

**ELGETA Intxortako ibilbide gidatua**

Izena emateko: 943-79 64 63 edo [infoturismo@debagoiena.eus](mailto:infoturismo@debagoiena.eus).  
*Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.*

**LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa**

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelaraz. Izena: 943-71 47 92 edo [reservas@gatzmuseoa.com](mailto:reservas@gatzmuseoa.com).  
*Gatz Museoa.*

**OÑATI Madalenako jaiak**

12:00etan, auzolana; 14:00etan, bazkaria; 17:00etan, mus txapelketa; eta 23:30ean, Gozategi taldea.  
*Madalena auzoan.*

**ARRASATE Arrasate Blues: The Half Nelsons**

Country eta old-folk tradizio amerikarrear inspiratutako errepertorioa duen taldea, Arrasate Blues jaialdiaren baitan.  
*Arbolapetan, 13:00etan.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' ikusteko bisita gidatua**

Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko aukera. Izena: 943-78 34 53.  
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

**ARRASATE Mingo Balaguer & Pablo Panpa Blues Blast taldea**

Eskarmentu handiko musikariak, Arrasate Blues jaialdiaren baitan. Debalde.  
*Portaloian, 19:00etan.*

**ARRASATE Olana Liss musikaria**

Jatorri afrikarra eta extremadurarra dituen abeslaria, Arrasate Blues jaialdiaren baitan. Debalde.  
*Herriko Plazan, 20:00etan.*

**OÑATI Kantoikrit**

Pinoi finkodun bizikleten kriteriuma egingo dute erdigunean.  
*Herriko Plazan, 22:00etan.*

**ARRASATE Ina Forsman musikaria**

Finlandiako musikariaren emanaldia, Arrasate Blues jaialdiaren baitan. Debalde.  
*Herriko Plazan, 22:30ean.*

**DOMEKA 21****ANTZUOLA Antzuolako Jaiak**

Egitaraua eta informazio osoa 24. orrian.  
*Antzuolan.*

**ARRASATE 'Murugain, dragoiaren bidetik' ibilaldia**

Debalde. Izena emateko: [Arrasate.eus](http://Arrasate.eus) edo 943-25 20 00.  
*Herriko Plazan, 09:00etan.*

**OÑATI Madalenako jaiak**

10:00etan, auzolana; 12:30ean, meza; 13:30ean, luntxa; eta 14:30ean, etxafuegoak eta zozketa.  
*Madalena auzoan.*

**ELGETA** Intxortako ibilbide gidatua

Izena emateko: 943-79 64 63 edo [infoturismo@debagoiena.eus](mailto:infoturismo@debagoiena.eus).  
**Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa, 10:00etan.**

**OÑATI** Orientazio jolasa familian

Ibilbide irisgarrian egingo dute.  
Izena: [arantzazu@gipuzkoanatura.eus](mailto:arantzazu@gipuzkoanatura.eus) edo 943-78 28 94.  
**Arantzazuko Parketxean, 11:00etan.**

**BERGARA** Txistulari bandaren kalejira

Ostean, kontzertua.  
**Santa Marinaran, 11:00etan.**

**LEINTZ GATZAGA** Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena: 943-71 47 92 edo [reservas@gatzmuseoa.com](mailto:reservas@gatzmuseoa.com).  
**Gatz Museoa.**

**ARRASATE** Ibai Garcia Blues Project taldea

Arrasate Blues jaialdiaren baitan.  
Debalde.  
**Biteri hiribidean, 13:00etan.**

**OÑATI** Burjasoteko Bandaren kontzertua

Oñatiko Musika Bandarekin egiten diharduen elkartrukearen baitan.  
**Lazarraga lorategian, 13:00etan.**

**OÑATI** 'Oñatiko altxorrak' ikusteko bisita gidatua

Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko. Izena: 943-78 34 53.  
**Turismo Bulegoan, 13:00etan.**

**OÑATI** Espeleotxiki

Espeleologia irteera 6 urtetik gorako umeeekin egiteko. Izena: 943-08 20 00.  
**Arrikruzten, 15:00etan.**

**ARRASATE** Arima Soul taldea

Kantu propioak abesten dituzte euskaraz. Arrasate Blues jaialdia. Debalde.  
**Jokin Zaitegi plazan, 19:00etan.**

**ARETXABAETA** Kuttune folk taldea

**Zer ote da?** proiektua aurkeztuko du Nerea Quincoces buru duen taldeak.  
**Herriko Plazan, 19:30etan.**



AGRUPACIÓN MUSICAL LOS SILOS

**OÑATI** Burjasoteko bandaren kontzertua

Oñatiko Musika Bandarekin egiten diharduen elkartrukearen baitan. Bi bandek batera joko dute, banakako saioak egin ostean. Valentziako bandak asteburua pasako du Oñatin.  
**Etzi, domeka, Lazarraga lorategian, 13:00etan.**

**ASTELEHENA 22****OÑATI** 'Arantzazun bizi: iragana, orainaldia eta etorkizuna zer?' udako ikastaroa

Arantzazuren eta Euskal Herriaren etorkizuna lotzen dituen bidexkak, naturalak zein kulturalak, elkarrekin aztertzeke, EHUK eta Arantzazulabek antolatuta.  
**Gandiaga Topagunean, 09:00etan.**

**MARTITZENA 23****OÑATI** 'Arantzazun bizi: iragana, orainaldia eta etorkizuna zer?' udako ikastaroa

Bigarren eguna.  
**Gandiaga Topagunean, 09:00etan.**

**OÑATI** 'Urmuga. Urtanta' egitasmoa

Donostiako Orfeoia, Maika Etxekopar, Et Incarnatus Orkestra, Titika Rekalt antzezlea, Iñaki Palaciosen txistua eta Xabier Lozanoren argiztapena.  
**Arantzazuko santutegian, 19:30ean.**

**ARRASATE** 'Artuluisio' haur-antzerkia

Liburuz elikatzen den eta bihotz baten taupaden erritmoan funtzionatzen duen itxura fantastikoko makina handi bat da Markeliñeren proposamenaren protagonista. Eurria bada, Biteri plazan.  
**Seber Altube plazan, 19:30ean.**

**OÑATI** 'La haine' filma

Martitzinema programaren baitan.  
Debalde.  
**Gaztetxean, 22:00etan.**

**EGUAZTENA 24****LEINTZ GATZAGA** Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-71 47 92 edo [reservas@gatzmuseoa.com](mailto:reservas@gatzmuseoa.com).  
**Gatz Museoa.**

**OÑATI** Txaston Dixie Band taldea

2013an sortutako Tolosako taldearen emanaldia, Kalean gitarraren baitan.  
**San Martin zuhaitzian, 19:00etan.**

**EGUENA 25****LEINTZ GATZAGA** Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena: 943-71 47 92 edo [reservas@gatzmuseoa.com](mailto:reservas@gatzmuseoa.com).  
**Gatz Museoa.**

**OÑATI** 'Oñatiko altxorrak' ikusteko bisita gidatua

Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko. Izena: 943-78 34 53.  
**Turismo Bulegoan, 13:00etan.**

**EGUBAKOITZA 26****ARRASATE** Ferrerías kaleko jaiak

08:00etan, etxafuegoak; 12:00etan, txistularien kalejira; 17:00etan, haur-jolasak eta txokolate-jana; 19:00etan, erraldioen konpartsa txikia eta txistularien kalejira, eta meza; 21:00etan, kale afaria; eta 23:00etan, dantzaldia.  
**Ferreríasen.**

**LEINTZ GATZAGA** Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena: 943-71 47 92 edo [reservas@gatzmuseoa.com](mailto:reservas@gatzmuseoa.com).  
**Gatz Museoa.**

**OÑATI** 'Oñatiko altxorrak' ikusteko bisita gidatua

Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko. Izena: 943-78 34 53.  
**Turismo Bulegoan, 13:00etan.**

**BERGARA** Northagirres taldea

Berumuga jaialdia. Debalde.  
**Espolioan, 22:00etan.**

**ZAPATUA 27****ELGETA** Intxortako ibilbide gidatua

Izena emateko: 943-79 64 63 edo [infoturismo@debagoiena.eus](mailto:infoturismo@debagoiena.eus).  
**Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.**

**OÑATI** Gomiztegi bisita gidatua

Izena emateko: 943-78 28 94 edo [arantzazu@gipuzkoanatura.eus](mailto:arantzazu@gipuzkoanatura.eus).  
**Arantzazuko Parketxean, 10:00etan.**

**OÑATI** Bisita gidatua Arantzazun

Izena emateko: 943-78 28 94 edo [arantzazu@gipuzkoanatura.eus](mailto:arantzazu@gipuzkoanatura.eus).  
10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-71 89 11.  
**Arantzazuko Turismo Bulegoan.**

**BERGARA** Bisita gidatuak

**Lorategi historikoak, Bergara monumentala eta Laboratorium Museoa** bisitak aukeran. Izena: 943-76 90 03.  
**Laboratoriumen, 11:00etan.**

**LEINTZ GATZAGA** Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena: 943-71 47 92 edo [reservas@gatzmuseoa.com](mailto:reservas@gatzmuseoa.com).  
**Gatz museoa.**

**ARRASATE** Ines Osinaga

Arrasateko musikariaren proiektu pertsonalena, Udazabalen baitan. Euriarekin, Amaia antzokian.  
**Monterron parkean, 22:00etan.**

## ZINEMA

## GASTEIZ

## FLORIDA

**Del revés 2**

Egubakoitza: 17:15, 19:45, 21:45.  
Zapatua eta domeka:  
12:00, 17:15, 19:45, 21:45.  
Astelehena eta martitzena:  
17:15, 19:30.  
Eguaztena: 17:00, 19:00, 21:00.

**Bikeriders: la ley del asfalto**

Egubakoitza, astelehena eta eguaztena: 17:00, 19:30.  
Zapatua eta domeka:  
12:00, 17:00, 19:30.  
Martitzena: 17:00.

**El bus de la vida**

Egubakoitzetik domekara:  
19:00, 22:00.  
Astelehena eta martitzena: 19:30.  
Eguaztena: 19:00.

**Fly me to the moon**

Egubakoitzetik domekara:  
19:00, 22:00.  
Astelehentik eguaztena: 19:00.

**Fuera de temporada**

Egubakoitza eta astelehentik eguaztena: 19:30.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 19:30.

**Gru 4: mi villano favorito**

Egubakoitza: 17:30, 19:30, 22:00.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30, 19:30, 22:00.  
Astelehena eta martitzena:  
17:15, 19:30.  
Eguaztena: 17:00, 19:00, 21:00.

**El barco del amor**

Egubakoitza: 17:00, 21:30.  
Zapatua eta domeka:  
12:00, 17:00, 21:30.  
Astelehentik eguaztena:  
17:00.

**Nuestro momento perfecto**

Egubakoitzetik domekara:  
17:00, 22:00.  
Astelehentik eguaztena: 17:00.

**Padre no hay más que uno 4**

Egubakoitza: 17:00, 19:15, 21:30.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:15, 21:30.  
Astelehena: 17:00, 19:15.  
Martitzena: 17:00, 19:30.

**Tres colores: rojo**

Egubakoitzetik eguaztena: 16:45.

**Twisters**

Egubakoitza: 17:00, 19:30, 22:00.  
Zapatua eta domeka:  
12:00, 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehentik eguaztena:  
17:00, 19:30.

**El castillo ambulante**

Zapatua eta domeka: 12:00.

**Qué me pasa doctor?**

Martitzena: 19:30.



Fly me to the moon pelikula.



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

## Epe luzeko begirada

Jakina da teknologia berriek modu zuzenean eragin dutela gure bizitzetan; azelerazio prozesu handi bat abiatzeaz gain, *betiko* balioen likidotze bat ere eragin dute.

Peter Higgs Fisikiako Nobel saridunaren hitzetan, "egiten jakitearen" kultura batetik "jakinaraztearen" kultura batera pasatu omen gara. Beste era batera esanda, mamiak baino azalak gehiago balio duela, alegia.

Irrati-elkarrizketa baten ondotik, Roman Krznaric idazlearen berri izan nuen. *El buen antepasado* liburuan, lehen aipaturiko bide beretik argi alderatzen ditu gaur egun zabaldua dagoen epe laburreko pentsaera –hark "azukre-laino garuna" deitzen duena–, zeinak momentuko gozamina, kontsumoa, duen helburu nagusi, eta, bestetik "ezkur-garuna", gizakiaren eboluzioaren ondorioz, epe luzerako ikuskeraz, belaunaldi berrien mesedetan jarduteko gai dena. Haren esanetan, tamalez, digitalizazioa, ziklo elektoralak, ekonomiaren finantzarizazioak... epe laburreko agendak ezartzen dituzte, balizko epe luzeko "katedral-pentsaera" baten kaltetan. Hitz handiak, erronka itzelak... eta nondik hasi? Agian, uda garaia denez, ez da abiapuntu txarra sare sozialen zalaparta utzi eta gustuko liburu bati tartea egitea.

BUKATZEKO

# Oporraldi "osasuntsua" pasatzera etorri dira

Chernobil Elkartearen bidez 108 adingabek pasako dute uda EAEn eta Nafarroan; horietatik 50ek, Gipuzkoan. Bailarako familietan zortzi egongo dira, abuztuaren 27ra arte: hiru ume Bergaran, bina ume Eskoriatzan eta Oñatin eta bat Elgetan

Mireia Bikuña Madrid BERGARA

1995ean sortu zenetik, Chernobil Elkarteak Txernobyngo (Ukraina) istripu nuklearrak kaltetutako bazterketa eremuaren ondoan bizi diren adingabek aldi baterako harrerak sustatzen ditu EAEn eta Nafarroan. Hilaren 1ean 108 adingabe heldu ziren, 100 harrera-familiari esker. Horietatik 50ek Gipuzkoan pasako dute oporraldia, eta zortzi dira Debagoienean daudenak: hiru ume Bergaran, bina Eskoriatzan eta Oñatin eta bat Elgetan. Oporraldien helburu nagusia da istripu nuklearrak eragindako kalteak eta gaixotasunak arintzen laguntzea. Aurten, baina, Ukrainako gerrak eragindakoa gehitu behar zaio. "Gerraren ondorioak arintzeko balioko die oporraldiak; baina helburu nagusia osasuna hobetzea da", aipatu du mutiko bat etxean duen Lierni Altube oñatiarrak.

Hizkuntza, ohiturak...

9 urteko Anna Beliak bigarren urtez etorri da Elisabete Olaberen etxera. Adin berarekin haren ama egon zen harrera-familia batean. "Nire amaginarreba- ren etxera etorri ziren Annaren



Debagoienera etorri diren haurretako batzuk, harrera-familiarekin. M.B.M.

ama eta amama hainbat alditan. Ostean, gu animatu ginenean, propio eskatu genuen Anna etortzea. Egia esan, esperientzia polita eta aberasgarria da, baina zaila ere bai. Izan ere, familia kanpoko pertsona bat dator,

horrek dakarren guztiarekin. Hankaz gora ipintzen ditu gauza asko. Era berean, etxean hartzen dugun umearendako ere egoera zaila da: pertsona ezezagunak, hizkuntza ezezaguna, ohitura ezberdinak...".

Bigarrenez

Iritzi berekoa da Saioa Bardeci bergararra; bigarrenez hartu dute etxean Nastya Hnidenko: "Alaba txikiarekin ondo konpontzen da. Adinez antzekoak izan arren, zaharrenarekin zailagoa da. Gainera, ume obedienteak dira, baina oso isilak. Elkarren artean berba egiten dugu, noski, baina ez dute haiei buruz ezer kontatzen. Gerra bete-betean sufritzen ari dira, eta ezusteko zaratak edo etxafuegoak daudenean asaldatu egiten da apur bat".

Bogdan Tovsteno mutikoak Sorkunde Madinaren etxean pasako ditu udako oporrak. 2023ko Gabonetan ere egon zen, hilabetez: "Guk ez daukagu seme-alabarik, eta halako harre- rarekin ume bati lekua egiten diogu etxean. Guretzat oso esperientzia polita da. Udako oporraldia eta Gabonetan etorri izan da gurera, eta apurka-apurka bagoaz harremanak estutzen eta elkar hobeto ulertzen".

Abuztuaren 27ra arte

Abuztuaren 27an itzuliko dira Ukrainara, eta, pasatakoak pasata, une tristea izango da guztiendako. "Harrerak eman duena aztertu eta izandako gazi-gozekin merezi izan duela berresten dugu. Hemen gaudenok errepikatu egin dugu; beraz, bai, merezi du", esan dute.

Ukrainatik Debagoienera etorri diren gaztetxoek ere berresten dute oporraldi "osasuntsuak" dibertigarriak direla: "Hondartzara joaten gara, igerilekura, mendira, bizikletan ibiltzen gara... Gustura etortzen gara eta oso ondo pasatzen dugu gure harrera-familiarekin".

## ANTZUOLAKO JAIK

GOIENA TELEBISTA

UZTAILAREN 22AN, ASTELEHENA, 19.30EAN, 21.30EAN ETA 23.30EAN



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

**goiena**  
Zu hemen zaude.

